



KOMUN, AUTOBUS GERALEKU ETA BIZIKLETENTZAKO GUNE BERRIAK ELORREGIN

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mankomunitateak adostu dute Elorregin zerbitzu publiko berriak jartzea / 4

Elorregiko autobus geraleku berriak hartuko duen itxura, komun eta bizikletentzako gune eta guzti. OÑATIKO UDALA



Oñatiko ikasle batzuk eguaztenean. L.Z.



SANMARTINAK 2022
BERGARAN / 24

SINADURAK

	JOANES PLAZAOLA / 22
	JOXEMARI MUXIKA ARRIETA / 8
	ALAZNE GURIDI / 34
	ENERITZ URRUTIA / 12
	AINTZANE OIARBIDE / 48

Arrasateko lorezainek manifestazioa deitu dute hilaren 15erako

Udal Gobernuak dio bere esku dagoen "guztia" egiten ari dela, eta enpresari eta lorezainei negoziatzeko eskatu die / 10



Arrasateko lorezainak, udaletxe aurrean, eguaztenean. XABIER URZELAI

COVID neurririk barik hasi dituzte asteon eskolak ikasle gehienek / 2



Danbaka: plazara salto egiteko aukera

Gontzal Mendibil musikariari elkarrizketa

ZURE LENTEEN EROSKETAREKIN

MONTURA DOAN + 2. betaurrekoa OPARI

Kontsultatu optikan konpainiaren ezaguerriak.



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiopticas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen



Ikasleak Txantxiku ikastolara sartzen, Oñatin, lehen eskola egunean. LARRAITZ ZEBERIO

COVID neurririk gabeko ikasturtea, martxan

Astean hasi dira eskolak Debagoieneko ikastetxe gehienetan. Askotariko lanak egiteko aprobeztatu dute udako oporraldia hainbat zentrotan, eta badira kurtsoari eskaintza berriekin ekin diotenak ere. Hemezortzi titulu berri ditu, adibidez, MUK

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Eskola publikoetan atzo –Eskoriatzako Luis Ezeiza da salbuespena; Leintz Gatzagako ikasleak dituztenez, astelehenean hasiko dira, jaiengatik–, eguena, eta gainerakoan artean gehienetan eguaztenean itzuli ziren ikasleak ikastetxeetara –Bergarako Mariaren Lagundian hilaren 5ean, astelehenarekin–. Ikasturte be-

rriarri ekiteko garaia. Askorentzat ez zen, opor luzeetan irakasleak eta hainbat ikaskide ikusi gabe egon ostean, lehen eguneko urduritasunik faltako; irrika ere izango zen, hainbat eta hainbat kasutan, itzulerarako. Aurten ez dagoena COVIDarekin lotutako neurri berezirik da –eskola garraioan izan ezik, hor maskara erabiltzen jarraitu

beharko baita–: "Oso albiste ona". Oñatiko Txantxiku ikastolako zuzendari Itziar Aranaren pozarekin bat egingo du, ziur, hezkuntza komunitate osoak.

Askotariko lanak

Bigarren Hezkuntzako eraikina goitik behera eraberrituta ekin diote Txantxiku ikastolan ikasturte berriari. Oñatin bertan,

Behobarrua izeneko espazio berria sortu du Elkar Hezik, askotariko aukerak emango dituen, eta jantokia berritzen dihardute Urgainen –erabilgarri dago, nahiz eta urte amaieran hasiko diren bazkaria bertan prestatzen–. Eskola aurreko aparkalekua kendu eta patinentzako eta bizikletentzako –estalia– egokitu ere egin dute.

Eskoriatzan, eskola aldame-neko kantxa berritua dute ikasturte berrirako Luis Ezeizan, eta Bergarako Mariaren Lagundian laster hasiko dira, ikastetxe ondoan, urmael bat egiten, "Eskola Jasangarri ziurtagiria lortzeko bidean". Arizmendi ikastolako hainbat egoitzatan ere egin dituzte lanak udan; teilatua berritu dute, esaterako, Arrasateko Gaztelupen.

Nobedade gehiago ere baditu Leintzeko ikastolak, zuzendaritza hasita: bi zuzendari nagusirekin –berriak biak– ekin diote kurtsoari, Illart Azkarate eta Mireia Muruamendiarekin. Eskaintzari dagokionez, urte batzuetako hutsunearen ostean, berriro dago Batxilergo Artistikoaren aukera Almenen.

Eskaintzarekin jarraituz, Lanbide Heziketan ere badira nobedadeak: Bergarako Miguel Altunan Adimen Artifiziala eta Big Data landuko dituen espezializazio kurtso berria dute aurtendik, Gipuzkoako bakarra, eta Oñati institutuan –Larrañan–, berriz, Administrazio Zerbitzuetako Oinarritzako Profesionala ziklo berria –erkidegoan, eskaintzen duen lehen ikastetxe publikoa da Oñatikoa; eguaztenean egin zuten aurkezpena–.

DBHn, pandemiagatik ordu-tegi jarraitua ezarri zuten ikastetxeetan aurreko ikasturtean hasi ziren normaltasunera itzul-

tzen, eta aurten ikasturte hasieratik ariko dira ohiko eran, zenbait egunez goiz eta arratsaldez eta beste zenbaitz jarraian –Bergarako Aranzadiren eta Mariaren Lagundiaren, Txantxikuren eta Elkar Heziren kasua da; Arizmendi pandemian ere eutsi zion jardun zatiari–.

Sare publikoko ikastetxeei dagokionez, zenbait egunez arratsaldez ere eskolak izango dituzte DBHn Bergarako Ipintzan, Jaurlaritzaren *Hedatze* proiektutik kanpo geratu eta gero; gainerakoetan, Arrasaten, Oñatin eta Aretxabaletako Kurtzebarrin, goizez izango dira eskolak, eta errefortzu saioak eta tailerrak arratsaldeetan.

Mondragon Unibertsitateari dagokionez, ikasketa batzuetan eskolak hasita eta beste batzuetan hastear, hurrengo egubakoitzean egingo dute ikasturte hasierako ekitaldia, Bilbon. MUK hemezortzi titulu berri eskainiko ditu aurten –gradu, master, aditu-ikastaro, espezializazio-ikastaro, programa exekutibo eta aipamen eta ibilbide artean–, "enpresa-premia berriei erantzuten dieten esparruetan".

Gurutze Gorriaren ekimena

Debagoieneko Gurutze Gorriak, bestalde, eskola materiala helarazi die zaurgarritasun egoeran dauden eskualdeko 195 ikasleri –udaletako gizarte zerbitzuekin elkarlanean–. 2018a ezker, mila ikasle baino gehiagok jaso dute eskola materiala.

EGOERA ZAURGARRIA DUTEN 195 IKASLERI EMAN DIE ESKOLA MATERIALA GURUTZE GORRIAK BAILARAN



MIGUEL ALTUNA
Lanbide Heziketa

ESPEZIALIZA ZAITEZ!

Ikasturte bakarrean (2022/09/19tik 2023/05/31ra) eta DUAL formatuan

Lan kontratu bidez sektoreko enpresa liderretan lan egiteko aukerarekin

PLAZAK LIBRE!

- + Adimen artifiziala & Big Data Berria!
- + Forjaketa Prozesuen Diseinua & Ekoizpena
- + Fabrikazio Adimenduna





FORJAKO ENPRESA BABESLEAK











INFORMA ZAITEZ:

✉ info@maltuna.eus ☎ 943 899 270 · 943 899 271

Urriaren 16an izango da Mundukideren lasterketa

Afrikako eta Hego Amerikako programa sozioekonomikoak garatzeko laguntza batzen duen ekimenak haurren eta gazteen lasterketak izango ditu aurtengo berrikuntza; kooperatiben arteko X3 lasterketa, martxa nordikokoa eta oinezkoa dira besteak

J.I. ARRASATE

KLS Lasterketa Solidarioak zazpigarren edizioa izango du aurtengoa –Urkulun egingo da, ohi bezala–. 10:00etan hasiko da, haurren eta gazteen lasterketekin: 6 eta 18 urte artekoentzako izango dira, luzeagoak edo laburragoak, adin tartearen arabera, eta doan izango dira.

10:30ean ekingo zaie martxa nordikokoari eta oinezkoari –edonork hartu ahal izango du parte–, eta 11:00etan, kooperatiben arteko taldekako X3 –hiru lagun– lasterketari –hiru kategoriarekin: gizonak, emakumeak eta mistoak–. Lasterketotan parte hartzeko hamar euro or-



Fagor Elektronikako, Mundukideko eta Kreaneko ordezkariak. IÑIGO BARRENA

daindu beharko ditu korrikalari bakoitzak, eta ibilbidea 6,3 kilometrokoa izango da.

Mundukideren elkartasun ekimenerako izena eman daiteke dagoeneko erakundearen webgunean, urriaren 12ra arte. Lasterketa egunean lekuan bertan, Otalora jauregiko aparkalekuan, apuntatu ahalgo da, 08:30ak eta 10:30ak artean. Lasterketan parte hartu ez baina laguntza eman nahi dutenek dortsal solidarioa izango dute aukeran. Eguraldia lagun bada, musika emanaldiak eta jan-edererako tabernatxoak ere izango dira urriaren 16an Urkulun.

100.000 laguni laguntza

"Munduko maparen guneko pobretuetan jaio, hazi eta bizi diren bizi baldintzak hobetzen laguntzea" da Mundukideren egitekoa: "Munduan bada leku morderoxka oinarritzko bizi-baldintzak betetzen ez direnak. Leku horietako giza sufrimendua galanta da, eta, gainera, sarri, ezusteko, ezegonkortasun eta gatazka gogorrenak bertan sortzen dira. Haur, gazte, heldu eta pertsona nagusi asko eta asko

dira ahalmena duten pertsonen laguntza beharrez daudenak, munduak bizkarra ematen baitie: menpekotasunik sortuko ez dien laguntza, beraien bizitzaren jabe izatera bultzatuko dituen. Horixe da Mundukideren misioa, eta hemengo pertsonen babesa behar du lanean jarraitzeko".

2021eko ekitaldian 100.000 pertsonari baino gehiagori iritsi zitzaizkien Mundukideren laguntza: "Mozambikeni eta Etiopian milaka nekazariri laborantza aukerak eskaintzen jarraituko dugu, elikadura beharrak asetzeari gain, errenta sortzeko duten gaitasuna hobetu dezaten. Brasilen, Kolonbian eta Ekuadorren familien garapen sozioekonomikoa bultzatzea dugu helburu; ekoizpenetik hasi eta merkatu-ratzeraino, kooperatiben jarduna hobetu dezaten lanean jarraituko dugu, prozesuak optimizatzen erreferentzia diren pertsonen kudeaketari buruzko prestakuntza eskainiz".

Lasterketa Solidarioaren zazpigarren edizioan, Krea eta Fagor Elektronika kooperatibak batu zaizkie Mundukideri eta Athloni antolakuntza lanetara.

 Etorkizuna hobetzeko lanean

FAGOR
Herrigintza

Fagor Taldearen lankidetzeta programa, gizarte egitasmoak babesteko

Hiru laguntza banatuko dira: 60.000 €, 40.000 € eta 20.000 €.

Izen ematea zabalik irailaren 1etik 30era. AURKEZTU ZURE PROIEKTUA!

Informazio gehiago, www.fagor.eus webgunean

FAGOR 

Urrats berriak Elorregiko geralekua konpontzeko

Elorregik batzen dituen hiru herrietako udalak hitzarmena lantzen ari dira, komuna jarri eta autobus geltokia eta bizikleta aparkalekua berritzeko. Herritarrek urte luzez egindako eskaerak dira horiek, protestak eta sinadura bilketak tarteko

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Elorregik laster izango du benetako komun publikoa. Urteetan hainbat erabiltzailek egindako eskaerari erantzun bateratua emango dio eskualdeak. Arrasate, Bergara eta Oñatiko udalek, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, oinarritzko zerbitzuz hornituko dute Elorregiko bus geralekua. Eta Debagoieneko Mankomunitateak bere gain hartuko du garbiketaren ardura.

Autobus geltokia, bizikleta aparkalekua eta komuna egokitzeko lankidetzak hitzarmena adosten ari dira Oñatiko, Arrasateko eta Bergarako udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundia. Azken erakunde honek hartuko du proiektu honen kostuaren erdia baino gehiago. Gainerakoa hiru udalek ordainduko dute, proportzio berean.

Bizikletendako tokia ere bai
56 metro koadroko azalera izango du komunak eta autobus geltokiak. Gaur-gaurkoz, ez dago ur hornidurarik Elorregiko gune horretan, ezta saneamendurik ere. Hain justu ere, horixe izan da, hasieratik, arazoetako bat. Ur hornidura ez da proiektu honetan sartzen. Hori horrela, komuna kimikoa izango da –ur



Herritarrek komuna eskatzeko egindako protesta, 2020an. GOIENA

zisterna bat eta ur zikinendako beste ontzi bat izango ditu. Gune horrek bizikletak lagatzeko lekua ere izango du, zazpi bizikletarendako lekua.

Oñatiko *Kontzejupetik* udal aldizkariak irailiko azken zenbakian argitaratu duenez, Oñatiko Udalak Taper Arkitektura enpresa kontratatu du obraren zuzendaritza zerbitzua eroateko. 9.750 euro –gehi BEZa–. Enpresa horri enkargatu zion Oñatiko Udalak 2020an oinarritzko proiektua eta 2021ean exekuzio proiektu batean zehaztu zen. Aldizka-

riaren arabera, orain, "exekuzio proiektuaren aurrekontua egungo egoerara" egokituko du Taper enpresak. Horren ostean, obraren esleipena egingo da eta "hamabi asteko epean eraikiko dute gune berria", aurreikuspenen arabera.

Garbiketa, Mankomunitateak

Obra osteko mantentze eta garbiketa lanak Debagoieneko Mankomunitatearen bitartez egingo dira, baita sortu daitezkeen gastuak ere. Autobus geralekua, batez ere, Oñatiko joan-etorria egiten dutenek erabiltzen dute,

baina bistakoa da Elorregi bihurtu dela paseo-leku. Eta paseora joaten dira Bergaratik, Oñatitik eta Arrasatetik. Baita Debagoieneko beste herri batzuetatik ere. Bestetik, Sanprubusa ere bada bertan.

Herritarrek 2017an egin zuten komuna jartzeko lehenengo eskaera eta 2020an sinadura bilketa egin zuten: 1.600 sinadura batu zituzten hamabost egunean, eta Oñatiko eta Arrasateko udalera bidali zituzten. 2020tik aurrera, batik bat, Oñatiko–haren lurretan dago bus geralekuaren zatirik handiena eta hark eman zion Sanprubusari zerbitzua jartzeko baimena– eta Arrasateko udalek –Elorregin komuna jartzeko, aurrekontu parte hartzaileetan, diru partida bat gorde zuten– agertu dute, publikoki, gune hobetzeko ardura.

Zaborra ere arazo-iturri

Geltokiaren inguruan pilatutako zaborrak herritarren haserrea piztu zuen uztailean. Sanprubuseko arduradun Jon Mujikak eman zuten egoeraren berri: "Duela bi hilabeteko zaborra ere bertan dago oraindik; ez du inork jasotzen". Mujikak azaldu zuen ez zela "kontu berria", eta edukiontzia jartzeko eskaerak eginda daudela Debagoieneko Mankomunitatean. Arazo honendako ere konponbidea gertuago dago erakundearen arteko hitzarmenarekin.

Arantzazun gaur jende asko batzea espero dute

Autobus zerbitzua indartu egin dute hara joateko; bi autobus egongo dira joan-etorriak egiten

U. I. L. OÑATI

Gaur, hilak 9, Arantzazuko Amaren –Gipuzkoako zaindaria– eguna da, eta, ohi bezala, meza nagusiarekin ospatuko dute santutegian.

Aurten ere erakundeetako ordezkariak izango dira Arantzazun; besteak beste, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia eta udal zinegotziak. Izaro Arregi Oñatiko alkatea ere han izango da, guztiei harriera egiteko.

10:00etan izango da lehen meza Arantzazun eta 12:00etan bigarrena, nagusia. Gipuzkoako gotzainak gidatu izan du beti meza hori, baina, gotzain faltan, Unai Manterola bikarioa izango da meza nagusia esango duena. Gipuzkoa osoan jaieguna dela kontuan hartuta –eta, horrenbestez, jende gehiago elkartzea aurreikusita–, autobus zerbitzua indartu egin du Udalak. Bi autobus arituko dira Oñati eta Arantzazu arteko ibilbidea egiten, orduro. 07:30ean abiatuko da lehenengoa Oñatitik eta 19:00etan azkena Arantzazutik. Autobusak Oñatiko hiru geltokietan geldituko dira: San Lorentzon, Kalegoian eta postetxean.

Oñatiko erromesen igoera 08:00etan abiatuko da, Zapatik.

ttap

Irakurri, ukitu,
ikusi, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari digitala
zure mugikorrean

Ttap berria

Zu bezain bizia

Diseinu eta atal berriak
Digitalagoa
Dinamikoagoa

IRAILAREN
30ETIK
AURRERA
ESKURAGARRI

Hiru proiektu babestuko ditu diruz Fagor Taldeak

120.000 euro banatuko dituzte Fagor Taldeko kooperatibek, Euskal Herriko gizartea eraldatzea helburu duten hiru proiekturen artean. Hilabete bukaerara arte zabalik dago aukera 'Fagor Herrigintza' lankidetzaren programan izena emateko



Nekazariak, lurra lantzen. FAGOR TALDEA

U.I.L. DEBAGOIENA

Kooperatiba taldeak *Fagor Herrigintza* lankidetzaren programa berria jarri du abian, gizarte egitasmoak babesteko. "Programaren bitartez, komunitatetik sortutako ekimenak lagundu eta beraiekin lankidetzan aritu nahi dugu, euskal gizartearen autoeratzaren bidez, garapen iraunkorrerako helburuei erantzun propio eta berezitua ematea helburu duten proiektuak bultzatuz", azaldu du Fagor Taldeak.

Guztira, 120.000 euroko dirulaguntza banatuko da hiru eragile irabazleen artean. Kolektiboek hilabete honetan zehar – irailaren 30era arte – aurkeztu beharko dituzte euren proposamenak. Proiektu irabazleak 60.000 euro jasoko ditu; bigarrenak, 40.000 euro; eta bukatzeko, hirugarrenentzako 20.000 euro emango dira.

Balio estrategikoak oinarri

Sarituko diren proiektuak Fagor 2030 Iraunkortasun Estrategian pisu berezia duten gaiekin lotutakoak izango dira; hau da, honako helburu hauekin bat egiten dutenak: genero berdintasunean eragitea, kontsumo arduratsuan eragin positiboa izatea, aldaketa klimatikoari aurre egitea, gizarte inklusioa babestea, euskal kulturaren eragitea, mugikortasun jasangarria sustatzea eta elkarlanean jardutea.

Onuradun izateko betekizunak bi dira: irabazi asmorik gabeko erakundea izatea eta egoitza nagusia Euskal Herrian egotea. Aurrez esan bezala, Euskal Herriaren garapena bultzatzen duten proiektuak lantzen dituzten erakundeei zuzendutako programa da. Nolanahi ere, proiektuaren inpaktua Euskal Herrikan kanporakoa izan arren, Euskal Herrian antolatuta eta garatzen diren dinamika ere hartzen ditu baita.

Proiektuak Internet bidez aurkeztu beharko dira, *fagor.eus* webgunean.

Aldaketa, irabazlea hautatzeko

Orain arte, proiektu irabazleak aukeratzeko ardura Fagor Taldeko Gizarte Eraldaketa Batzordeak izan du; aurten, baina, *Fagor Herrigintza* ekinbidearekin sistema berrantolatu egin dute, eta proiektu irabazleak Fagor Taldeko kooperatibetako kideek aukeratzeko dituzte boto bidez.

Hala, aurkeztutako proiektuen artean puntuazio altuena lortzen duten hamar egitasmoetatik hiru aukeratzeko dituzte kooperatibetako kideek.

Aurreratu dutenez, abenduan egingo dute hautaketa prozesua, eta ostean jakinaraziko da onuradunen zerrenda.

Taldearen irabazien %12

Fagor Taldeko kooperatibek, urtero, irabazien %12 bideratzen dute gizarte funtsera, eta horren zati bat da *Fagor Herrigintza* lankidetzaren programara zuzentzen dutena.

Iazko edizioan, Bizipoza elkar-teak 30.000 euro jaso zituen; hainbat zailtasun bizi dituzten familiekin eta elkarrekin batera, euskaraz eta sorkuntzatik egiten dute lan Bizipozaren baitako 120 boluntariok. Bigarren laguntza, 25.000 euro, Errigorak jaso zuen. Nafarroa hegoaldea du ardatz Errigorak, eta euskara ofiziala ez den zonan eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiak landatzen. Bukatzeko, Gureak elkar-tearen *Pauso berriak* proiektuak 12.000 euro jaso zituen.

FAGORREK 120.000 EURO BANATUKO DITU HIRU PROIEKTU ERALDATZAILE LAGUNTZEKO

Niretzat **Harentzat**

Hiretzat

EUSKARA GUZTIONTZAT

Guretzat **Zuentzat**

Harentzat

Zuretzat

UDAL EUSKALTEGIAK GUZTIONTZAT. PUBLIKOAK.

2022-2023 MATRIKULA EPEA ZABALIK

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus	ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa etorbidea 2 (Kulturola eraikina) Tel.: 943 79 70 77 Whatsapp 688 78 09 31 euskaltegi@arrasate.eus	BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus	LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Arebabaleta Inbaurtueta 9 - Eskoñatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus
--	--	--	--

"Gizarte eraldaketarako bidelaguna da EMUN"

AMAIA BALDA EMUN KOOPERATIBAKO KOORDINAZIO TALDEKO KIDEA
25 urte bete ditu gai sozialak kudeatzen laguntzen duen aholkularitza enpresak; eraldaketari buruz jarduteko topaketa egingo du, Arrasaten, urriaren 6an

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Eskoriatzako Irakasle Eskolak, egungo HUHEZIK, egindako apustutik sortu zen EMUN kooperatiba, bailarako enpresak euskara sustatzeko egiten ari ziren saiakerak profesionalizatu eta euskara planak metodologia baten bitartez garatzeko misioarekin. Hasieratik dihardu Amaia Baldak egiteko horretan. Arrasateko Erguin auzoan duten egoitzaren alboan, Iturripe kiroldegian, egingo dute *Eraldaketa* jardunaldia zertan datzan azaldu du.

Zer egingo duzue urriaren 6an?

Alde batetik, zalantzari leiho bat irekiko diogu, barne bidaia bat proposatu eta eraldaketari toki bat egiteko. Aurrez bi online-saio egin genituen, aniztasuna enpresan eta elkarlanaren gobernantza nola aurrera eramane hausnartzeko. Horiek emandakoaren analisiak egingo dituzte Nico Cuencak eta Naiara Goiak, eta, segidan, esperientziatik hitz egingo dute lau gonbidatuek: Amaia Asuak, Julen Mendozak, Santi Ormazabalak eta Arantza Santistebanek. Euskaraz bizitzea, administrazioetan sor daitezkeen zalantzak, enpresa barruko antolaketa eraldaketak eta norbanakotik kolektiborako irakurketak ardatz hartuta. Gure bezeroek eta bertan parte hartzeko interesa duten entitateek izena eman dezakete *eraldaketaeus* atarian. Hortxe dago topaketari buruzko informazio osatua.

Ostean, 13:30ean, ekitaldia egongo da. Zertarako?

25 urte hauetan gurekin batera eraldaketa sozialean bidelagun izan direnak omentzeko, lan mundua euskalduntzen egunero saiatzen diren langile, koordinatzaile zein lehendakariei aitorza egiteko. Bailarako jende asko etortzea espero dugu, jakitun garelako bailarari zor gaitzaizkiola, Euskalanan biltzen



Amaia Balda. EMUN

"ERALDAKETA PROZESUA BIZI DU EMUNEK, BEZEROEKIN IKUSPEGI OROKOR BATEKIN JARDUTEKO"

ziren euskaltzaileei eta Eskoriatzako Irakasle Eskolari. Horregatik erabaki dugu topaketa Debagoiengan egitea, eta ez Donostian, esaterako.

Nortzuk dira EMUNen bezeroak? Zertan laguntzen diezue?

EMUNen ekosistemaren barruan, bezeroen %75 enpresak dira, eta gainontzekoak administrazioak; enpresen barruan, gehienak Mondragoneko kooperatibak: Ulma, Danobat, Fagor... Halaber, kirol elkarteekin -Reala, Athletic, Eibar...-, federazioekin eta gizarte sektorean dabilzan elkarteekin dihardugu. Horiek euskara planak ari gara lantzen. Bestalde, gero eta kooperatiba eta sozietate anonimo gehiagotan dihardugu berdintasun planak lantzen, izan ere, 50 lagun baino gehiago dauzkaten enpresak derrigortuta daude genero plan bat diseinatuta edukitzera. Eta

gure balio erantsia plan horiek implementatzean dago. Udal administrazioak ere badira gure bezero, gobernantza-ereduak, aurrekontu parte-hartzaileak eta halako egitasmoak garatzeko.

Bada eskaintzen dituzuen zerbitzu guztiak lotzen dituen punturik?

Momentu honetan erronka den iraunkortasunari ekarpen bat egiten diote. Iraunkortasunari begira, erakundeek euren inpaktu negatiboa gutxitu eta kudeatzeko ardura dute. Arlo sozialean aholkularitza eskaintzeaz gain, memoria ez finantziarioak egiten laguntzen diegu enpresei.

EMUN bera ere eraldaketa prozesu batean murgilduta dago, antolaketari dagokionez.

Taldeetan erabakiak hartzea indartu nahi dugu. Orain arte sarri eduki baitugu proiektu ikuspegia, baina aurrerantzean nahi duguna da bezero ikuspegiara pasa, bezeroa erdigunean jarrita eta emunkideak ahalgunduta. Hala, EMUNeko aholkulari bakoitzak bere bezeroaren kezka eta beharrei buruz informazioa partekatuko du diziplina anitzeko taldean, euskarazko,

berdintasuneko, aniztasuneko, gobernantza... aholkulariek ikuspegi osoarekin erantzun diezaieten bezeroaren beharrei. **Bezeroak modu orokorrean ikusi nahi dituzuela, alegia.**

Hori da, beraien beharrei begira lan egiterakoan, kasu askotan proiektu ikuspegiarekin eta zerbitzuka antolatuta egin dugulako. Horixe eraldatzen gabil-tza.

Ez baita berdina aldatzea eta eraldatzea.

Mice Lazpita Norgara elkarteko aholkularia izan dugu bidelagun azken bi urteotan, eta harekin ikasi dugu aldaketak une oro gertatzen direla eta ekidinezinak direla, baina eraldaketak erabaki kontzienteak direla, norberak aukeratutakoak. Zuk aukeratzen duzu aldaketa baten aurrean bertatik ikastea eta zer ekarriko dizun. Ezagutzen ez duzun zerbaiteira joateko prestatzen zaitu eraldaketak. Erakunde eraldaketaren inguruan, erakunde baten kulturari buruz ari gara. Ikasi dugu eraldaketak sakona izan behar duela, eta inguruan ere eragin bat eduki behar duela. Ez da aldaketa soil bat, beraz.

Fagor Taldeari Antton Abadia saria eman zion joan den martxoan Gipuzkoako Foru Aldundiak Kulturulan. EMUNek ere, hein batean, bere egin du sari hori.

Fagorrek eta beste kooperatiba askok lan munduan euskara sustatzearan aldeko apustua egin zuten EMUN sortu aurretik ere, euskara eskolak, aldizkariak eta euskara batzordeak sortuta, besteak beste. Beraz, Debagoiengan bazegoen mugimendu bat. EMUNek mugimendu hori profesionalizatu egin zuen eta metodologia batekin garatu zituen euskara planak enpresetan. Fagorri eman zaion saria jende askoren lanaren fruitua da. Meritu handia baitauka, batetik, 25 urtean euskara sustatzen jarraitzea. Bestetik, lorpenei begira ere gaur egun kooperatibetan hartu diren neurri asko txalotzekoak dira. Antton Abadia sariak aspektu horiek errekonozitu ditu. Izan ere, enpresetan gaur egun onartutako eta barneratutako irizpideak daude, eta egia da beti daudela hobetzeko gauzak, baina ahalegin handia egin da euskara maila guztietan sustatzeko. Gipuzkoako Aldundiak horri egin zion keinu, nire ustez.

Mondragon korporazioa 'The New Yorker'-en

Nick Romeo kazetari estatubatuarra bailarako kooperatibei buruzko artikulu sakona idatzi du

H.L. DEBAGOIENA

Joan den udaberrian bailarara bisita egin zuen Nick Romeok, ekonomia gaietan aditua den eta *The New Yorker* hedabiderako lan egiten duen kazetariak. Eredu kapitalistatik aldentzen ziren enpresa ereduak buruzko liburua idazteko aitzakian, kapitulu bat Mondragon korporazioari dedikatzen asmoa erakutsi zuen. Hilabete batzuk pasa dira, eta Debagoiengan bitzako esperientziatik artikulu mamitsua kaleratu du *newyorker.com* atariko negozioen sailean.

Langileekin solidarioak diren enpresen elkarte bezala aurkezten du Romeok Mondragon: "Kooperatiba bakoitzeko exekutibo ordainduenaren soldata, gehienez ere, soldatarik txikieneko langilearena baino sei aldiz handiagoa da; enpresa konbentzionaletan ez da hori gertatzen". Garai gogorretan, pandemian, esaterako, "langileek euren soldatak edo orduak aldi baterako murriztearen alde" bozkatu zutela nabarmentzen du, eta gaixo sentitzen ziren langileek "ez zutela lanera joateko presiorik" jasaten. Egoera hori Espainia mailako beste kasu batzuekin alderatzen du, ikustarazteko ez dela ohikoa modu horretan jokatzeko.

"Nazioartean ondo kokatuta"

Datu ugari aipatzen ditu Romeok; esaterako, enpresen sareak iaz 11.000 milioi eurotik gorako sarrerak eta General Electric zein Blue Origin enpresen kontratuak lortu zituela. Kooperatiben eredu hori mundu mailara heda daitekeen edo ez airean uzten du, baina argi dio Mondragon ekonomia globalean lehiatzeko gai dela: "Egunerokotasunean erabiltzen duzun gailu bat zure herrian bertan fabrikatu denean, zerbait ondo egiten ari zarela esan nahi du".



Uztailaren erdialdean Bergarako Alkabieta kaleko farmaziako termometroak markatu zuen temperatura. GOIENA

Tenperatura altuko eta prezipitazio gutxiko uda

2022ko uztailan eta abuztuan egin duen eguraldia historiara pasa da. Uztailaren 18an, bailaran inoiz jasotako tenperatura altuenak izan ziren: 42,9 gradu. Elorregin, uztailaren 6tik abuztuaren 18ra ia ez zuen euririk egin: 10 zentilitro soilik

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Norberak uztailan eta abuztuan zehar egunerokotasunean igarri duena ondo baino hobeto azaltzen dute Euskal Meteorologia Agentziak argitaratutako datuek. Debagoieneko lau estazioetan oso antzeko tenperatura eta prezipitazio mailak hauteman dira bi hilabeteotan.

Zenbaki esanguratsuenei erreparatuta, bero handiena uztailaren 18an egin zuen: Urkulun 41,2 graduko maximoak atzeman ziren, Oñatin 40,9koak, Elorregin 42,4koak eta Arrasaten 42,9koak. Datuen jakitun garetik ez da halakorik pasa bailaran. Abuztuan maximoak jaitsi egin ziren, eta hilaren 11 eta 12 artean jaso ziren puntu altuenak: Oñatin 37,5 gradu, Urkulun 38,6, Elorregin 38,9 eta Arrasaten 39,1.

Prezipitazioei dagokienez, atentzioa ematen du Elorregiko estazioak ia ez zuela tanta bakar bat ere jaso uztailaren 6tik abuztuaren 18ra; hau da, 43 egunez jarraian. Alboko herrietan ere, antzera: Arrasaten metro kubikoko litro batetik beherako euri-egunak 26 izan ziren, guztira, abuztuan, eta 29 uztailan; Are-

txabaletan, 22 abuztuan eta 26 uztailan; eta Oñatin, 25 abuztuan eta 30 uztailan. Euria egin duen apurretan ere, oso gutxi: uztailaren 6an Elorregin botatako metro kubikoko 21,6 litroak salbuetsita, gainontzeko herrietan gehienez ere 10 litro bota ditu egun bakar batean.

Beroan dago aldea

Iazko uztailan eta abuztuan ere antzeko lehortea gertatu zen, euria noizbehinka eta oso gutxi egin baitzuen. Beroan bai, igaritzen da diferentzia, iazko maximoak 35 gradutik behera kokatzen baitira; 8 graduko diferentzia uda batetik bestera.

Urkuluren edukiera

65.500 lagun hornitzen dituen Urkuluko urtegiak, berez, 10.000 milioi metro kubikoko kapazitatea dauka. Gaur-gaurkoz, %75,62an dago beteta. Iaz, egun berean, %72,62an zegoen, eta 2020an, %77,02an. Joan den apirilean gainezka egin zuen Urkuluk, euri asko egin baitzuen orduan. Lau hilabeteen, horrenbestez, %25 jaitsi da Urkuluren betetze-maila.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

GEROA EREIN

Oraindik plazak daude!

- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa

www.mondragon.edu/lanbideheziketa
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

Matrikula
Zabalik!



ZABALIK

JOXEMARI MUXIKA ARRIETA

Komunikazio hizkuntza

Euskal Herritarrok eleanitzak gara. Hizkuntzak familian eta eskolan ikasi ditugu, bai bertakoek eta baita immigranteek ere. Modu honetan, gure jendaratean 120 hizkuntzatik gora erabiltzera iritsi gara. Hau gertatzen da, batez ere, azken bi mendeetan, industrializaziotik aurrera.

Hizkuntza erabiliaren artean, bertako euskara, kolonizazioak ezarritako espainiera edo frantsesa, hezkuntza sisteman landutako ingelesa eta alemana daude, immigranteek ekarritako beste askorekin batera. Nahiz eta eleanitzak izan, norberaren hizkuntzak ez dauzkagu galtzeko.

Dirudunek maneiaturako gaztelarren kolonizazio militar erlijiosoak ezarritako da gaztelera; batez ere, azken 500 urteetan. Horren eragina da XXI. mendean oraindik euskara hiztunok bizi dugun bazterketa.

Bidezkoa litzateke etorkinek haien hizkuntzak garatzeko aukera izatea euren seme-alabek hura mantentzeko aukera izan dezaten. Baita bizi diren lekuko euskara ikasteko laguntza izatea ere. Egoera bideratzeko, 1960ko hamarkadatik hona, herritarren ekimenez

hasitako Ikastolek eta Helduen Alfabetatzeak euskararen normalizazioan bidea egin duten arren, oso mantso doa. Ez da beharrak asetzea lortu; hau da, euskararen erabilera ez da sistematizatu.

Izan ere, entitateek euskara hiztunak bazterrean utzi eta aurretik zekarten ordezkatzeko prozesua mantendu dute. Hori normalizat hartu dute, normala Euskal Herrian euskaraz komunikatzea izan arren. Parisen frantsesez edo Madrilen espainieraz den modura.

Dinamika horri buelta emango badiogu, traba gehien dituzten eremuetan baldintzak sortu beharko dira. Laneko eremuetan, adibidez, oso eskasa da euskararen erabilera, eta indartzeko modu eta aukerak antolatzea beharrezkoa da; esaterako, ulertzen ez dutenek ikasteko eta itzulpena izateko bitartekoak jarritz.

Sor ditzagun euskara normal erabiltzeko baldintza eta arauak.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Mamua

ONINTZA ENBEITA
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/AENLB

Kudeatzeko zaila izaten da gauak lorik egin ezinik harrapatzen zaituen momentu hori.

Munduaren eta norbere artean dagoen distantzia orduantxe izaten da laburrena.

Horregatik esnatuko dira hainbeste mamu agian.

Begiratzen duzu sabaira eta zein gauza txikia zaren ohartzen zara; ematen duzu buelta ezkerrean eta joan den astean zure bikotekideari arrazoi gabe muntatu zenion

eskandaluaz damutzen zara; eskuinerantz jartzen zara eta zure gurasoen benetako adinaz jabetzen zara.

Berriro begiratzen duzu gora eta egon nahi zenukeen lekua eta zaudena alderatzen dituzu.

Oraingoan, ezkerrean klima aldaketa daukazu zain eta eskuinean oraindik ere gaintu ez dituzun mespretxuak egin zizkizun maitalea.

Saiatzen zara lanaz pentsatzen eta munduko pertsonarik infirabalaratuena sentitzen zara.

Eta oraindik ez da ordubete pasatu azkenengoz

erlojuari begiratu diozunetik.

Eta horrela gau osoa edo haren zati handi bat.

Gero, eguzkiak lekua hartzen dio ilargiari, eta mamuak baretzen hasten dira.

Gosaldu, dutxa bat hartu eta lorik ederrenean egongo zinatekeenean lanera abiatzen zara.

Errutinak handitzen du, berriro ere, munduaren eta zure arteko distantzia.

Horrela izango da mamuak berriz ere esnatzen diren arte.

Mamua gehitu egiten dira, ordea; eta gehitu ahala, gero eta gehiagotan agertu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzardea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Egun handira arte**OIHANA EZKURRA**

EZKURRA-GALDOS
FAMILIAREN IZENEAN
ARRASATE

Duela sei aste zendu zen gure aita.

Ezusteak gaixotasun larri eta bortitz batek eraman zuen. Aita dotorea genuen oso! Maitatua etxean, familiarian, herrian, lagun artean...

Eredugarria izan zen bere agurra, bizitza ospatuz eta heriotzari aurre egiteko ausardiarekin.

Ingurukoak lur jota egon arren, gure aitak ez zuen irribarrea galdutako azken momentura arte.

Lerro hauek idatzi nahi ditugu bidea xamurtu diguzuen guztioi eskerrak emateko:

Hasteko, barne medikuntzako talde osoari, diagnostikoaren hasierako egun zailetan goxotasunez zaindu gintuzuelako; eta etxean, azken bi astetan zaintza erraztu zuten etxez etxeko ospitalizazioko lankide apartei zer esanik ez.

Aitor de Juan, Iñaki Peña eta Itzia Lasa lagun eta lankideei, beti ondoan egon eta sentitzeagatik.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi diogu Martin Aperribai eta Jose Luis erradiologiako

erizainari, une oro gertutasunez, profesionaltasunez eta hitz onez hartu gintuzuelako.

Orain dolua eta hutsunea kudeatzeko denbora da, baina ibilbide honetan lagun zaituztegun guztioi esker, bidea goxoagoa eta leunagoa izango dela ziur gaude.

Gure aitaren azkenengo egunetako zaintza maitasunez, duintasunez eta etxean, bere nahia betez, izatea opari bat izan da.

Egun handira arte, aita!

Irailaren 12an itzuliko gara plazara!**ITZIAR USANDIZAGA**

BERGARAKO PENTSIODUNEN
MUGIMENDUAREN IZENEAN
BERGARA

Oporren etena igarota eta pilak kargatuta, berriro hasiko ditugu astelehenetako plazetako elkarretaratzeak.

Aurreko kurtsoaren bukaera indartsua eta oso kementsua izan zen; bizikleta martxa zela-eta ekintza asko egin genituen.

Milaka sinadura bildu genituen KPI erreala eskatzeko.

Orain ere, kalera eta plazetara ateratzeko arrazoi

asko daude, mobilizazioetan jarraitzeko eta erantzun bateratuak emateko mota askotako krisiari.

Krisi egoerari gehitu behar zaio momentu honetan dagoen inflazioa. Herritarren bizi-kalitatea are gehiago okertu da, pentsio baxuak dituztenen kasuan. Horregatik, 1.080 gutxieneko pentsioa denei eta orain bermatu beharra dago. Emakume alargunen kasuan, %100eko pentsioa exijitzen dugu. Emakume pentsiodunena, batez beste, gizonekoena baino %30 txikiagoa da.

Pentsioetan eros-ahalmena berreskuratu behar da.

2022an, 2021ean galdutakoaz gain (%3), aurtengo igoera (%2,5) eta KPI %10,2 izan den bitartean. Pobreak pobreak; hau ezin da onartu, honi erantzun egin behar zaio. Urriaren 15ean Madrilera joango gara, KPI errearen alde bildutako sinadurak Kongresuko talde parlamentario guztiei entregatzera.

Urriaren 1a Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna da. Denon artean antolatu eta erantzuna emateko eguna.


Osasuna eta zaintza publiko eta kalitatezkoak denontzat. Osakidetzan murrizketarik ez!

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali
gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

GUTUNAK: Karaktetarak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBIÑE UBEDA**



Ander Garay, Victoriano Fuentes eta Amaia Arana teknikaria, atzoko prentsa agerraldian. L.Z.L.



Eva Abuin eta Maider Morras, lorezainekin, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. E.A.

Gobernuak dio enpresak badituela baliabideak soldatak igo ahal izateko

Gaur, egubakoitza, 55 egun dira Arrasateko udal lorezainek greba mugagabeari ekin ziotenetik; Udal Gobernuak dio lan-gatazkan "bere esku dagoen guztia" egiten ari dela, eta enpresari eta lorezainei dei egin die negoziatzeko eta irtenbide bat bilatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Uztailaren 18az geroztik greban daude Arrasateko udal lorezainak eta, besteak beste, soldata igoera eta KPIa bermatuko dituen lan-akordio bat aldarrikatzen jarraitzen dute orduetik. Greba egunak luzatzen ari dira eta herriko lorategi goibeak zein idortutako landareek agerian uzten dute hori.

Udal lorezainak dira, baina Prezero SA enpresak azpikontratutako zerbitzua eskaintzen dute. Modu horretan, enpresaren eta langileen arteko gatazka da eta Udal Gobernuak dio "bere esku dagoen guztia" egiten ari dela bi aldeek adostasuna lortzeko. Victoriano Fuentes Udaleko Zerbitzu zinegotziak eta Ander Garay Ogasun zinegotziak prentsaurrekoa egin dute Gobernuaren iritzia plazaratzeko, eta Fuentesek azpimarratu du lorezaintza zerbitzuaren gatazka ez dela politikoa, baizik eta enpresaren eta langileen artekoa. "Udalak beharrezkoak diren baliabideak jarri ditu hasieratik,

grebaren aurretik. Langileen eta haien enpresaren arteko greba horrek eragin zuzena du gure udalerrian. Horregatik, bi aldeei esertzeko eta aurrerapausoak emateko dei egiten diegu, konponbide bat bilatzeko", gaineratu du.

Era berean, GOIENA jarri da Prezero SA enpresarekin harremanetan, eta, haren iritzia emateko konpromisoa hartu arren, aldizkari honen itxieran oraindik ez zuen erantzunik eman enpresak.

"Soldatetan isla dadila igoera"

Udal Gobernuak emandako datuen arabera, lorezaintzako kontratuak bi igoera nagusi izan ditu prezioan: 2017an %27ko igoera eta 2022an, berriz, %33koa.

UDAL GOBERNUAK DIO "BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK" JARRI DITUELA HASIERATIK

"2014an EH Bilduk sinatutako kontratu horren zenbatekoa, 2014-2017 aldirako, urtean 561.694,03 eurokoa izan zen, BEZa barne. EAJ-PSOE gobernuak 2017an berri zuten kontratua, 2017-2022 aldirako, urteko 714.043,38 euroko zenbatekoarekin, BEZa barne. Horrek esan nahi du kontratua %27 handitu zela, hau da, 388.155,97 euro gehiago urtean. Gainera, kontratu berri horretan zehaztu zen 714.042,38 euro horietatik %78 langileei ordaintzeko izango zela, %13 makineria eta ekipoetarako eta %9 beste gastu batzuetarako", azaldu du Fuentesek.

Gaineratu du uztailean, grebaren aurretik, Gobernuak berriz ere handitu zituela horretarako baliabideak, kontratuaren prezioa %33 igoz. "2014an sinatutakoa baino %69 gehiago da hori, eta ia milioi bat euroko proposamena izatera igaro da: 949.850 euro. Halaber, langileei ordaintzeko zatia %78koa izango dela zehazten da".

Gobernuak baliabide gehiago bideratu dituela-eta, Prezero SA enpresari eskatu dio lorezaintza-kontratuaren zenbatekoa handitu izana "argi eta garbi" isla dadila langileen soldatetan. "Orain, enpresari eta langileei dagokie lan-harremanen zehaztapenak adostea. Funtsezkoa da bi aldeak adosteko prest egotea, gure udalherriak eta bertako parke eta lorategiek lan-gatazka baten ondorioak pairatzeari utz diezaioten".

Azkenik, Fuentesek dio Udal Gobernuak hainbat bilera egin dituela lan-kontratuko langileekin, eta datorren asterako beste bilera bat programatu duela. "Enpresarekin ere lanean dihardugu, bi aldeak akordio batera irits daitezten".

Langileei babesa adierazi diete

Udalbatzan oposizioan dauden bi indar politikoez, EH Bilduk eta Podemos Arrasatek, lorezainek bizi duten egoera salatu dute. Lorezainekin beraiekin egindako prentsaurreko bidez azaldu dute haien haserrea Maider Morrasek (EH Bildu) eta Eva Abuinek (Podemos Arrasate), eta babesa eta elkartasuna adierazi diete langileei.

Azaldu dutenez, lorezainek hamar urte daramatzate lan baldintza berberekin lanean. "Urteak dira KPIa igotzen ez zaiela, eta, hau eskatu duten momentuan, Prezero enpresak

ezezko borobila eman die. Gogorarazi dezagun Prezero enpresa multinazional baten parte dela, irabazi handiak dituen", zehaztu du Abuinek.

Herriko lorategiak zaintzen egiten duten lana "ikaragarria" dela aitortu du alderdi moreko bozeramaileak. "Greban daudenetik, agerian geratu da egiten duten lana zenbaterainokoa den, herriak basamortu bat dirudi", gaineratu du.

1.100 euroko soldata dutela-eta, haien azalean jartzea funtsezkotzat jo dute bi indar politikoez. "Lorezainek eskatzen duten bakarra KPIa igotzea da eta oraindik ez daukate ez Prezeroren berririk ezta Arrasateko Udal Gobernuaren aldetik inolako erantzunik ere, uztailean elkar-tu zirenetik", dio Morrasek.

Horrez gain, salatu dute irailan osoko bilkurarik ez egitea erabaki duela Udal Gobernuak. "Ondorioz, edozein erabaki hartuta ere, urriaren 4an egingo den osoko bilkurara arte itxaron beharko dute edozein neurri onartu ahal izateko".

Hori dela eta, Arrasateko Udal Gobernuari eta Prezerori eskatu diete errespetatu ditzatela langileen eskubideak. Era berean, Udal Gobernuari eskatu diote pleguetan jaso dezala KPIaren igoera eta hark exijitu diezaiola hori enpresari.

Manifestazioa egunean

Azkenik, Podemos Arrasatek eta EH Bilduk arrasatearrei dei egin diete parte hartzeko lorezainek irailaren 15erako, egue-na, deituta duten manifestazioan. 18:00etan abiatuko da, Herriko Plazatik.

EH BILDUK ETA PODEMOSEK "BABES ETA ELKARTASUN OSOA" ADIERAZI DIETE LOREZAINEI

Eskaintza politikoa eta soziala, elkarren eskutik

Apirila ezker martxan dagoen Aurrera Bolie Herri Ekimenak egun osoko egitaraua antolatu du irailaren 17rako, eskaintza politikoa eta soziala uztartuko dituena. Aurrera Bolie Eguna izango da, eta herritar guztiei dei egin diete ekintzetan parte hartzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Helburu argi batekin sortu zuten herri ekimena: "Duela 60 urte belaunaldi oso batek Euskal Herrian bultzatu zuen pizkundearen oinarriak jaso, gaurkotu eta egungo erronkei helduta, herri honen askatasunaren alde lanean jarraitzeko gogoia eta konpromisoa indartzeko". Hala adierazi du Larraitz Trojaola ekimeneko kideak. Hala, orduko balioei "bultzada berri" bat eman gura diote. "Begi bistan gelditu da konpromisoa, elkartasuna, abertzaletasuna eta balio ezkertiarren oinarri hartuta, esparru desberdinetatik eragiten jarraitzea dagokigula".

Izan ere, herria egunero erakitzen da, Trojaolaren esanetan, hainbat balio eta ekintzaren bitartez: "Hizkuntzaren borrorik, feminismotik, ekologismotik, preso eta iheslarien aldeko lanetik, bizi eta lan baldintzen esparrutik, herri honen memoria idatzi eta transmititzetik, herrigintzatik eta abar".

Euskal Herriaren askatasunaren alde lanean jarraitzeko bide horretan geldialdi bat egingo dute irailaren 17an, eskaintza politikoa eta soziala uztartuz. Aurrera Bolie Egunaren bitartez egin gura dute hori; hausnartzeko, aldarrikatze, elkartzeko eta gozatzeko izango den egunaren bitartez, hain zuzen.

Eskaintza zabala egun osoan

Bermut politikoarekin abiatuko dute eguna, Irati Topalekuko terrazan, 11:30ean. *Independenzia ipar, aurrera bolie!* lelopean eta Jokin Zubiriak dinamizaturata, hiru hizlarik osatuko dute mahai-ingurua: Lur Albizu (Sortu), Endika Perez (LAB) eta Amaur Egurrola (Ernai). Ordu

MAHAI-INGURUA, BAZKARIA, JOLASAK ETA ASKOTARIKO MUSIKA EMANALDIAK PRESTATU DITUZTE

berean, Biteri plazan, haurrendako jolasak, tailerrak eta pinxoak egongo dira.

Gero, 14:30ean, herri bazkariaren txanda izango da, hori ere Biteri plazan. Horretarako tiketak salgai daude dagoeneko Irati, Taupa eta Monte tabernetan. Langileendako prezioa 15 eurokoa da eta ikasle eta langabeendako, berriz, 10 eurokoa.

Bazkalostea musika akustikoarekin girotuko dute Iratiz Agirrek eta Garazi Barrenak, Des-kontrolak, Perlatak, Izadik eta Kontraldek, 16:30ean hasita.

18:30ean, Irati Topalekuan, Katuen Kontuak kontatuko dituzte Joseba Sarrionandiak eta Ines Osinagak.

Eguna borobiltzeko, kontzertuak egongo dira gaztetxean, 22:30ean hasita: Delirium Tremens, Etxepe eta Gora Etorri. Sarrera bost euro izango da.

Egitaraua prestatzen lagundu dieten guztiei eskerrak ematez gain, herritarrei ekintzetan parte hartzeko dei egin diete.

Indartu egin dute Informazio eta Orientazio Juridikoaren Zerbitzua

Irailaren 19an hasita, zerbitzu "osatuagoa" eskainiko du Emakume Txokoak; aurrez izena eman beharko da

E.A. ARRASATE

Informazio eta Orientazio Juridikoaren Zerbitzua indartu egingo du Arrasateko Udaleko Berdintasun Sailak. Hala, zerbitzu "osatuagoa" eskainiko dute, emakumeen jarraipena egin eta horiek etengabeko arreta jaso dezaten. Irailaren 19an, urriaren 10ean, azaroaren 7an eta abenduaren 12an egingo dituzte saioak, 16:00etatik 18:00etara, eta aurrez izena eman beharko da, Emakume Txokoan bertan.

Saioetan eskainiko duten informazioa honako hau da: ema-

kumeen aurkako erasoei, dibortzioari eta dibortzio-prozesuetatik eratorritako gatazkei buruzko prozesu penalak, mantenu-pentsioak ez ordaintzea eta bisita-erregimenak ez betetzea, atzeritartasunarekin lotutako arazoak, diskriminazioari eta eskubideei buruzko informazioa, kaleratzeak eta abar. Emakume horien jarraipena egiteko eta etengabeko arreta jasotzeko aukera emango duen modalitate bat eskainiko dute, Johanna Sanchez Berdintasun zinegotziaren esanetan.



E.A.

Ion Loiola Ansola, apaiz berria

Domekaz geroztik, Ion Loiola Ansola (Elgoibar, 1975) da, Pako Etxebesterekin batera, Arrasateko apaiz laguntzaile berria. Parroko kargua Horazio Argaratek jarraituko du izaten eta, beraz, koordinazio lanak eta erakundeen arteko harremanak kudeatuko ditu hark. Hori horrela, elizkizunak hiruen artean banatuko dituzte aurrerantz.

'Go!azen' ikuskizuna, Elma auzoko jaietako plater nagusia

Gaur, bihar eta etzi ospatuko dituzte Elma auzoko jaiak eta gaur, egubakoitza, izango da Go!azen emanaldia, 20:00etan -sarrera doakoa izango da-. Horrez gain, askotariko ekintzak egongo dira auzoan jaietako asteburuan; besteak beste, umeendako herri kirolak, puzgarriak, apar festa eta Tor magoa. Egitaraua osorik, *Goiena.eus*-en.

Erguin auzoko jaiak irailaren 16tik 18ra ospatuko dituzte

Hainbat ekintza egongo dira; besteak beste, Txatxilipurdirekin jolasak, erretiratuen etxeak antolatutako txokolate-jana, puzgarriak eta kontzertuak: Garazi Barrena, Hankaz Gora, El Exterminio de la Raza del Mono eta Sin+ Music -egitaraua osorik, *Goiena.eus*-en-. "Ospa ditzagun alaitasunez eta umorez aurtengo jaiak", diote batzordetik.



Martitzenean egin zuten Aurrera Bolie Egunaren aurkezpena, Biteri plazan. OIHAN LOITI

Herriko Plaza, eskuter klasikoekin erakusleiho

Hamargarren Mondrally topaketa egingo dute bihar, eta gaur hasiko dira motorrak berotzen, Irati tabernan egingo dituzten musika emanaldiekin; bihar, oster, eskuter klasikoekin gozatzeko aukera egongo da Herriko Plazan, 10:00etatik 12:00etara

Eneko Azurmendi ARRASATE

Mondraueko Dragoiak Scooter Taldeak azken bi urteetan ez du topaketa antolatzerik izan, eta haien kabuz egin dituzten irteerekin konformatu behar izan dute. Hala ere, aurten bai, Mondrally topaketa antolatzeko moduan izan dira eta hamargarren edizioa izango da, gainera, gaurko eta biharko egitarauarekin osatuko dutena. Uztaileko bigarren asteburuan egin izan dute orain arte, baina aurten atzeratu egin behar izan dute. Izan ere, Mondra&Roll jaialdia egin zuten asteburu hartan eta ez zuten apropos ikusi bi ekintzak egun berean egitea.

Hori dela eta, irailean egitea erabaki zuten eta uztailean bertan zabaldu zuten izena emateko aukera. Jon Alkorta taldeko kidearen esanetan, "oso arrakastatsua" izan da aurten gozatu izen-ematea. Izan ere, hasieran 50ean jarri zuten gehieneko eskuter kopurua, eta, azkenean, ia 70era igo behar izan dute, eskaera asko izan dituztelako uda osoan. Modu horretan, 68 bat eskuter klasiko egongo dira ikusgai bihar, zapatua, Herriko Plazan, 10:00etatik 12:00etara. Halaber, aurten ezin izango da momentuan bertan izenik eman.



Hainbat eskuter plazan. 2019an egin zuten azkenengoz topaketa. GOIENA

11:00etatik aurrera, ibilgailu klasikoekin gozatu duten bitartean, askotariko garagardoak dastatzeko aukera ere edukiko dute motorzaleek, Kajoi tabernan.

Egun osoko plana

Plazan ikusgai egon ostean, eskuterrekin irteera bat egingo dute. 14:00etan, Udala auzoko Larrinetxe jatetxera joango dira bazkaltzera eta bazkalostea alaitzeko, Akatz taldearen emanaldia izango da Taupa tabernan, 19:30ean. DAT tabernan egingo dituzten kontzertuekin borobil-

duko dute eguna eta honako musikari hauek hartuko dute parte: Bea G.B. (Gasteiz); Pablo Mr. Big Shot (Time for Losers SC) eta Sir Gorka (Mondraueko Dragoiak Scooter Taldea).

Gaurtik motorrak berotzen

Hori guztia zapatuan izango da, baina egubakoitzean hasiko dira motorrak berotzen. 20:00etan, Irmo taldearen kontzertua egongo da Irati tabernan eta ostean, 22:00etan, Jai Scooterista egongo da: Chica Beat (Bogota) eta Daviz Diz (Ourense).



NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

Bizitzeko modu bat

Jo du gaurkoan ere iratzargailuak. Egun berria aurretik, jaiki eta martxan. Gosaldu aurretik, korrikaldia; ez beti, ordea, besteetan indarrak hartu eta lehenengo saioa betetzera.

Asteko plana begiratu, lanarekin bateratu eta eguneroko bizitza planifikatu. Bai, horrela bizi naiz. Bertatik dirua irabazten ez duen kirolari zoro baten gisa. Agian, ulertuko duzue edo ez, auskalo. Energia xahutzen didan bezala, eguneroko bizitzeko gogoia ematen didan hori da.

Baina bai, bada gauza bat askotan txiki egiten nauena, guztiaren inguruan hitz egiteko erraztasuna. Nola da posible norberak bere onena eman nahian egiten duen lan guztia edonork zalantzan jartzea?

Ez, ez naiz eliteko kirolaria; ez, ez da nire ogibidea, baina bai nire pasioa.

Baina badaude nire egunerokotasuna nolakoa den gogorarazten didatenak, nahi dudana hori lortzeko egiten dudana gogorarazten didatenak, eta horrekin gelditzen naiz ni, bideko lagun horiekin guztiekin!

Lantalde berriarekin, indarberrituta dator Aiba! mendi martxa

Beteranoen erreleboa hartuta, lantalde berriarekin itzuliko da martxa, indarberrituta, eta berrikuntzekin. Urriaren 2an egingo dute, 07:00etan Biteri plazatik irtenda, eta bi ibilbide egongo dira, ohi moduan. Aramaio ibarri buelta emango diote. Ibilbide luzeak 41 kilometro eta 2.900 metroko desnibel positiboa du eta motzak, berriz, 34 kilometroko eta 2.100 metroko desnibel positiboa.

Dagoeneko eman daiteke izena, www.zirkuitua.com helbidean, irailaren 25era arte. Era berean, kopurua aurrez betetzen ez bada, egunean bertan ere egongo da horretarako aukera, Biteri plazan bertan.

OHARRAK

Pozalaguara irteera

1956an jaiotakoek Pozalaguara irteera egingo dute urriaren 15ean. Aurrez izena eman beharko da ([Ikus Goiena.eus](http://IkusGoiena.eus)).

Iturripe elkarte

Zazpi bazkiderentzako lekua dute. Interesa dutenek, idatz dezatela iturripe.elkartea@gmail.com helbidera.

Pentsiodunak

Astehenean berrekingo diete elkarretaratzei, 12:00etan, Herriko Plazan.

Ikastaroak, doan

Irailaren 12tik 16ra, doako ikastaroak egongo dira Uarkapen eta Musakolan, aurrez izena emanda.

arbolapeta

arrasate

beinke

TANATORIOA

BEILATOKI BERRIA ARRASATEN

Guztion zerbitzura 24 orduz

ARRASATE HILETA BERRIA

Deitu eta informa zaitez!!

943 79 22 19

Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. www.funerariaarrasate.com

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Hyundai i30 N Line

Nabarmendu zaitez

N Line

30 Hyundairen Urteurrena

i30 N Line
30. Urteurrena

130 eurotik aurrera hilean

- 130 euroko 47 kuota
- Sarrera: 6.526,50 euro
- Azken kuota: 11.341,02 euro
- UTB: %9,89
- TIN: %8,25



Oharkabeen pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Ibilgailu horrekin, Hyundairen N autoetan inspiratutako kiroltasunaz gozatu ahal izango duzu, prezio ezin hobean. Serie berezi honek barne hartzen ditu N Line kanpoko diseinua kirol-aurrealdearekin eta kirol-atzealdearekin, 17^o-ko hagun eskusiboak, N Line barnealdea oihalezko eserlekuekin eta jostura gorriekin, kirol-bolantea eta lehiaketaren munduan inspiratutako xehetasun gehiago. Nabarmendu zaitez Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena ibilgailuarekin.

ARRASATE-MUGARRI San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 79 70 06 www.oarsocar.com

 **HYUNDAI**

5 URTE **Km-en mugarik gabeko Bermea**

i30 N Line 30. Urteurrena gama. CO2 isuriak (g/km): 135-138. Kontsumo mistoa (l/100km): 6-6,1. Lortutako kontsumo- eta emisio-balioak, WLTP homologazio-zikloaren arabera.

*i30 5ATE TGDI 1.0 120ZP N Line 30A ibilgailuarentzako finantzaketa-adibidea. PSP: 25.495,00 euro. Finantzatutako prezioa: 19.895,00 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraloa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena,

mantentze-lanen eskaintza eta Hyundairen Renove Plana, Hyundai Ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilitako ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.526,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 501,32 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 13.368,50 euro. 130,00 euroko 47 kuota eta 11.341,02 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 4.082,52 euro. Kredituaren kostua, guztira: 4.583,84 euro. Zenbateko egokitua, guztira: 17.952,34 euro. Epeko prezio osoa: 24.478,84 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bidez 2022/10/31ra arte. Iragarki honetan agertzen den modeloa: i30 N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean saldutako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es webgunean.

Kirol proiektua oinarritik garatzeko bokazioarekin

Arrasate Eskubaloiko taldeek Pitxi torneoak jokatuko dute zapatuan eta domekan Iturripen, hil bukaeran hasiko diren ligak prestatzeko. Gaztetxoak herriko eskubaloira erakartzeko asmoa ere badu klubak, zapatu goizerako antolatutako jolasak medio

Hasier Larrea ARRASATE

Jokalariek lehiatzeko baliabideak izan ditzaten egiten du lan Arrasate Eskubaloiko klubak. "Senior mailara heltzen direnerako, defentsa eta erasoko kontzeptuak barneratuta izan ditzaten, edozein momentutan, edozein postutan eta edozein egoeratan erantzun ahal izateko", zehaztu du Ane Herrero. Aurten, gizonen talde nagusiko entrenatzailea izango da, Patxi Garciaeren ordez, eta emakumezkoen gazte mailako taldea ere entrenatuko du.

Klubeko ordezkariak lagunduko diote bi egitekoetan, eta esperantza du jokalariai ondo moldatuko direla liga berrietara; izan ere, seniorrek Gipuzkoako ligan jokatuko dute, iaz baino maila bat beherago: "Taldea gazte honek, lan eginda, oso ondo joka dezake; iaz erakutsi zuten maila, baina, sarri, azken uneetan galtzen genituen partiduak". Ikasitakotik egingo diote aurre denboraldiari, gazte mailako emakumezkoek bezala, kontuan hartuta lehen urtea egingo dutela kategorian.

Kadeteetako nesken kasua bestelakoa da, bigarren urtez jokatuko baitute maila berean, eta, eskubaloian "txukun" egiten dutela jakinda, "urte polita" izan



Senior taldearen entrenamenduan, Ane Herrero azalpenak ematen, asteon. H.L.

KIROL EZAGUNEZ GAIN, BESTE KIROL BATZUK PROBATZERA ANIMATU NAHI DITUZTE GAZTETXOAK

daiteke haienentzat. Kadete mutilen talderik, ordea, ez dute aurretan aterako. "Gipuzkoa osoko klubetan gertatzen ari den arazo bat" da, Herreroen esanetan, 14 eta 16 urte arteko mutilen eskubaloia uztea.

Pitxi torneoak, "irudi"

Adin tarte horretan mugitzen diren neska-mutilen -2010 eta 2007 urteen artean jaiotakoak- aukera ederra izango dute zapatu goizean eskubaloia probatzeko, jolasak eta partiduak baitaizka klubak antolatuta. Arratsaldean, emakumezko taldeen norgehiagokak egongo dira Iturripen ikusgai, 15:45etik 20:30era, eta domeka goizean gizonen txanda izango da, 10:00etan hasita. Lagunartekoek balioko dute harmailak zalez betetzeko ere.

"Orain arte egindakotik zerbait desberdina eskaini nahi nuen"

GARTXOT UNSAIN GHAIU PROIEKTUAREN SORTZAILEA
Kulturate Akustikoko protagonista izango da gaur

H.L. ARRASATE

Bandarik gabe, bere kabuz erabaki zuen 2018an Gartxot Unsainek (Donostia, 1987) Ghaui izeneko proiektuari ekitea. Kulturate Akustikoko aurkeztuko du proposamen berria, 20:00etan; zapatuan Maruja Limonek eta domekan Frank Blackfieldek egingo dute beste horrenbeste. **Zergatik sortu duzu Ghaui eta zerekin egingo du topo publikoak?**

Inoiz baino pertsonalagoak diren konposizioei bidea egiteko, nire barrutik irtendako kantuei, alegia. Zinemagintza, irudia eta arte plastikoak bildu nahi izan ditut egitasmoan. Hala, abestiak bideo-sekuentzien bidez aurkeztu ditut euskarri digitaletan, eta zuzenekoetan performance bat egiten dugu Jaiotz Osak eta biok; koreografia eta hitzak, biak eransten dizkiogu musikari, ordubetik inguruko ikuskizunean. **Zeu zara Ghauien aurpegia, baina bada jende gehiago atzean.**

Esan bezala, oholtzan Jaiotz Osa dantzari profesionala daukat alboan. Kantuak sortzerakoan gomendio onak eman dizkidate Jon Orna eta Ekain Perez lagunek. Zestoako Gaztain estudioko Eñaut Gaztañagak kalitatea eman dio kantuen soinuari. Bideoklipak grabatzerakoan ere alderdi estetikoaz arduratu dira Osa eta Mujika bikotea, eta bedeinkapen moduko bat izan da.

Sormen prozesuan, zerekin gozatzen duzu gehien?

Hitzak idazterakoan. Entzule bezala arretea handia jartzen diet



Osarekin oholtzan. 'DAVEBLANCOPHOTO'

hitzei, eta sortzaile bezala eta zentzu onean esanda, hitzak idaztea da buruhauste gehien ematen didana. Hitzak dira nire espresatzeko modu gorena. Edozein instrumentu eta kantatzeko eraren gainetik, hitzei ematen diet balio gehiena. Hor sentitzen naiz nire komunikatzeko gaitasuna erakusteko gai.

Baduzu sortzeko modu konkreturik? Batzuetan, zenbaki batzuk idatzita abiatzen naiz. Silaba horiek errespetatuta sortzen ditut melodiak. Beste batzuetan, melodia bat etortzen zait burura, bere sonoritatearekin, hau da, badaikit ze bokal eduki behar dituen. Gero saiatzen naiz letrak idazten. Normalean, lehen estribillo edo mantra indartsuenaren bila joaten naiz, baina, noizean behin, gitarra eta bateriarekin etortzen zait ideia musikala, eta horren gainean egiten dut abestia.

Eskola badabil fruituak ematen

Infantilak baino gazteagoak trebatzeko helburua duen eskubaloiko eskolak urtea bete du, eta dagoeneko ari dira emaitzak irteten. Infantil mailan nesken zein mutilen kategorietan aterako dute taldea: "Hogei neska ditugu jokatzen prest, erdiak eskolatik pasatakoak. Mutilak ere gehienak eskolatik datoz. Badago hor iturri bat mantendu nahi duguna".



Iaz eskubaloiko eskolan aritutakoak, lehiatzen hasteko lanean. H.L.

Antzerki eskolan izena emateko epea zabalik du Dokek

Asteroko ordu eta laurdeneko saioen helburuak "8tik 16 urtera arteko haur eta gazteak sormenaren munduan murgiltzea eta antzerkiak eskaintzen dituen onurez gozatzea eta ikastea" dira, baita "taldean eta euskaraz, antzerkigintzaren arloak ezagutzera" ere. Izena emateko, idatzi dokeikastaroak@gmail.com helbidera edo deitu 688 11 85 72ra.

Borroka arteetan murgiltzeko aukera dago kiroldegian

6 eta 14 urte artekoek kenpoa probatzeko aukera izango dute ikasurte honetan, Ziorla Kenpo taldearen eskutik. Saioak ostegunetan izango dira, hilaren 15ean hasita, Zigarrolako kiroldegian. Aikido Arrasatek, ostera, hilaren 12an egingo dio denboraldiari, adinez txikiko zein nagusiko taldeekin. Datu gehiago, goiena.eus-en.

"Zati politak dituen rallya da Aramaiokoa"

AIMAR ARRIOLABENGOA PILOTUA

Aurten hasi da autoekin lehiatzen Arriolabengoa; Opakuako igoeran, hain zuzen. Bihar, etxeko lasterketan parte hartuko du, Xabi Jauregi ondoan duela

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Gustuko du gasolina usaina Aimar Arriolabengoa aramaioarrak. Aretxabaletako Lanbide Heziketan Automozio ikasketak egin ostean, Eskoriatzan dihardu lanean gaur egun. Aramaio-ko gazteak herritarren aurrean debutatuko du, Citroen AX autoarekin.

Rallysprinta zapatuan izango da. Dena gertu duzu?

Autoa preparatzen ari naiz, beti egoten da eta zerbait egiteko. Lasterketa guztien aurretik urduritasun puntu bat izaten dut, baina egia da gero eta urduritasun txikiagoa izaten dudala. **Ibilbidea ondo ezagutzen duzu. Abantaila izango da hori?**

Ez dakit... desabantaila ere izan daiteke. Konfiantza larregiarekin joatea ez da ona izaten eta ibilbidea ondo ezagutzeak konfiantza eman dezake. Xabi Jauregi izango dut kopilotu lanetan; betidanik ezagutzen dut. Konfiantza izan behar da ondoan doanarekin, batez ere, ezagutzen ez duzun ibilbidetan.

Ettxeko lasterketa izanda, zer nabarmenduko zenuke?

Zati oso politak dituen ibilbidea da. Gorabehera asko ditu eta bihurtune dezente. Aurten, gainera, bi noranzkotan jokatuko da: lehenengo bi txandak alde batera izango dira eta azken biak beste noranzkoan.

Citroen AX autoarekin lehiatuko zara, lehenengo taldean. Nolako autoa da?

Auto berezia da: oso arina da, txikia... Gidatzeko oso dibertigarria da.

Autoen zaletasuna garestia dela entzun izan da beti. Azkenaldian gasolinak duen prezioa ikusita, nola moldatzen zara?

Gasolina garesti egon arren, ez da arazo larriena; izan ere, lasterketa egun bakar batez izaten da. Autoaren mantentze-lana da garestia. Nire kasuan, tailer baten egiten dut lan eta nire

kabuz egin ditzaket konponketak; horrela ez balitz, ez litzateke zaletasun bideragarria izango.

Rallyei begira, non entrenatzen zara?

Astebete lehenago entrenamendua egiten dugu ibilbidean, bihurtune bakoitza zelakoa den ikusteko. Hala ere, lasterketarako autoekin ezin da errepidetan ibili; hortaz, zirkuitu itxietara joan behar izaten dugu. Hemen, gertuen, Miranda de Ebrokoa dugu zirkuitu itxia. **Aramaio-ko rallysprinterera ze helburekin zoaz?**

Helburu nagusia ondo bukatzea da, eta giro onean ondo pasatzea. Orain arteko rallyak espero baino emaitza hobeeekin amaitu ditut. Azpiko Racing elkartearen 10 bat lagun gabiltza rallysprinta antolatzen.

Biharko zirkuitua kontuan hartuta, lasterketa ikusteko tokiri onenak zeintzuk dira?

Bakoitzaren gustuaren arabera izango da. Hainbat toki on daude: Uribarri auzoan salto polit bat dago, esaterako; Gantzagan bihurtune politak daude eta Arexola auzoan tramua azkarra.



Aimar Arriolabengoa, kaskoa eskuetan duela. A.E.G.

Trafikoan izango duen eragina

Bihar, zapatua, egingo duten rallysprintak eragin zuzena izango du herriko trafikoan eta aparkalekuetan. Aita Gabirel Jauregi, Pedro Ignazio Barrutia eta Nardeaga kaleak —kiroldegitik okindegiraingoko zatia— itxita egongo dira trafikoari probak irauten duen bitartean. Trafikoa mozteak eragingo dien auzotarrei eta bizilagunei antolatzaileek eman diete beharrezko informazioa. Proba 12:00etan hasiko dute, baina bidea 11:00etan itxiko dute.

Bestalde, aipatutako kaleetako, kultur etxe osteko aparkalekuak eta frontoiko aparkalekuak libre egon beharko dute goizeko zortzietarako, rallyaren antolaketa lanetarako. Edozein larrialdiren aurrean aipatutako kaleak erabili beharra egongo balitz, antolatzaileekin harremanetan jartzeko eskatu dute.

Kiroldegia alokatzeko aukera eta Udalaren kirol eskaintza

Kiroldegia alokatzeko eskaerak irailaren 16a baino lehen egin behar dira; ikastaroetarako, irailaren 23a

A.E.G. ARAMAIO

Herriko kirol elkarteekin kanxaren erabilera zehaztu ondoren, eta eskolaz kanpoko jardueren berri izan ondoren, libre geratu diren orduak alokatzeko aukera eskaini du Udalak, aurrez eskaera eginda. Libre dauden orduak: astelehenera 17:00etatik 18:00etara eta 20:00etatik 21:00etara; martitzenetan 20:00etatik 21:00etara; eguenera 17:00etatik 21:00etara; eta, barikuetan 17:00etatik 18:00etara. Eskaerak irailaren 16a baino lehen egin, udaletxean bertan edo *on line*.

Bestalde, udalak 2022-2023 ikasturteko kirol eskaintza aurkeztu du. 3. adinekoendako mantentze gimnasia martitzenetan eta eguenera izango da, 10:45ean, doan. GAH ikastaroa eguenera izango da, 18:30etik 19:30era. Urteko kostua 60 euro izango da eta urrian hasiko da. Azkenik, pilates egiteko bi aukera egongo dira: martitzenetan eta eguenera 9:30ean, edo astelehen eta eguenera 19:30ean. Ikasturteko kostua 120 euro izango da. Izena eman beharko da udaletxean irailaren 23a baino lehen.



GOIENA

MagialdiArabaren ilusioa

MagialdiArabaren VIII. edizioak geldialdia egin du Aramaion. Magiaren ilusioaz gozatzeko aukera izan zuten txikienek eta ez hain txikiak eguaztenean. Lehenengo, ludotekan izan zuten tailerra; ondoren, kaleko magia eta azkenik Imanol Ituiñoren ikuskizuna Sastiñan. Magoek egindako trukoekin aho-zabalik geratu ziren ikusleak.

El Callejon de Cachan taldeak joko du gaur Sastiñan, 19:00etan

Sastiñako musika jaialdiaren barruan, El Callejon de Cachan taldearen musika entzuteko aukera egongo da gaur, 19:00etan. Kritika sozialaz beteriko gaiak ekarriko ditu hirukote gasteiztarrak, kantinako eta saloiko musika irekiaz lagunduta. Ana Sosoaga, Pedro Gonzalez de Viñaspre eta Iñigo Lopez dira taldekideak.

Autodefentsa feminista ikastaroa egingo dute

Autodefentsa feminista ikastaroa egingo dute, Aramaio-ko osoko bilkuren aretoan, 15 urtetik gorakoendako. Bi saio egingo dituzte: irailaren 17an lehena eta irailaren 24ean bigarrena. Lau orduko saioak izango dira, 10:00etatik 14:00etara. Irailaren 15a baino lehen eman behar da izena, berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidera idatzita.



Udaleko, Debagoieneko Mankomunitateko eta Debagaraiaiko ordezkariak hainbat ostalarirekin batera. IÑIGO BARRENA

Hemen dira tomateari eskainitako egunak

Sei ostalaritza-establezimenduk aretxabaletar barietatearekin egindako pintxoak eskainiko dituzte domeka eguerdia arte; orduan, hilaren 11n, azoka egingo da Durana kalean, hamabost bat ekoizle postuak jarrita, eta lehiaketa ere izango da

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Aretxabaletako tomate barietatea protagonista duen astea seigarrenez dator. Aurten, baina, egun bakarrean egitea ekitaldiak erabaki dute antolatzaileek: Debagoieneko Mankomunitateak, Debagaraia elkarteak eta Udalak. Dena den, hainbat ostalaritza establezimenduk bat egin dute astearekin eta dagoeneko hasi dira tomatea osagai nagusi duten pintxoak eskaintzen.

Ekimenaren helburua bertako tomatea sustatzea da, beste behin, Ainhoa Cabero Kultura zinegotziaren esanetan: "Izan ere, gure herriaren enbaxadore izan daitekeen produktua da". Gaineratu du David Agirre herrikideak ekoiztutako tomateek Kantabrian hainbat sari jaso izanak –Santa Cruz de Bezanan lehen saria eta Torrelavegan bigarrena– hauspoa eman diola egunari. Mankomunitateko Turismo teknikari Maider Etxaidek berretsi egin du hori: "Urtetik urtera indarra hartzen dabil

eguna, eta, era berean, tomate barietate horren izena zabaltzen".

Pintxoak sei tabernatan

Atzo hasi eta domeka eguerdira arte, Aretxabaletako barietatearekin egindako pintxoak eskaintzen dihardute sei ostalaritza-establezimendu. "Tomatea osagai nagusia duen *quiche* bat egin dugu guk, albahakarekin eta gaztarekin osatuta", jakinarazi du Iosu harategiko Amaia Gastañagak. Expres tabernak tomate-marmelada osatu du; Gureak, tomate-tosta; Dagdan, patata gozoaren krema eskaintzen dabilta; Taberna Berrin, ganba-broxeta; eta Mugin, ogi txigortua tomatearekin, urdaiazpikoarekin eta antxoarekin.

BARAZKIAK, FRUTA, GAZTA, EZTIA ETA BESTE HAINBAT PRODUKTU IZANGO DIRA AZOKAN

Postuak eta lehiaketa

Hamabost ekoizle inguruk –gehienak debagoiendarrak– jarriko dituzte postuak domekan, hilaren 11n, Durana kalean egingo den azokan. "Tomateaz gain, beste elikagai batzuk ere ekarriko dituzte: barazkiak, frutak, gazta, haragi ekologikoa, zukuak, ezti...", azaldu du Caberok, eta glutenik gabeko gozogintza eta euskal pastela ere izango dira.

Marc Badal adituak, ostera, hazien gaineko trebakuntza saio bat egingo du (12:00): *Haziak atera denon artean. Hazilana*. Eta aurten ere izango dira lehiaketak; sarituko dituzte, batetik, tomaterik itsusiena, eta, bestetik, barietate handiena eskaintzen duen postua. Herritarrek ere eman ahal izango dute botoa.

Debagoiendarrak azokara gonbidatu ditu Caberok: "Gure lurrak eskainitako uzta probatzeko aukera paregabea izango da, giro politean. Ongietorriak izango dira bisitari guztiak!".

Hasi dituzte Agorreko Andramaixak Areantza auzoan

Afaria izango dute gaur auzotarrek, eta bihar, meza, ginkana eta jolasak; domekan, Kurtzebarrira joango dira

M.A. ARETXABALETAKO

Martin Kabarrixa pertsonaiari ongietorria eginda eta tantaia jasota hasi zituzten atzo iluntzean Agorreko Andramaixak Areantza, eta domeka eguerdira bitartean jai giroa izango da auzoan. Gaur, kanpai-joaldiak (20:00) izango dira kanpai eskolako eskutik, eta ondoren, afaltzeko elkartuko dira auzotarrak.

Zapatuan, txistulariek iratzar-tuko dituzte bizilagunak, etxerik etxe joanda. Gero, 10:00 bueltan, Ikazkin Trail mendi lasterketa-korrikalariak pasatuko dira

Areantzatik, eta 32. postuan doana saritu egingo dute. Meza izango da eguerdian (12:00), auzoan hil direnen alde, eta bukatutakoan, mokadutxo eskainiko dute eta ginkanari ekingo diote. Arratsaldean (17:45), Areantzako jolasetan jardungo dute.

Domekan, Kurtzebarri Eguna-rekin bat egingo dute eta hara joango dira; behin tontorrean (12:00), aurtengo argazki ofiziala aterako dute auzotarrek. Martin Kabarrixa agurtuta, bukatutzat emango dituzte jaiak.

Loramendi hizkuntza errefortzuetarako hezitzaile bila dabil

Hizkuntza Errefortzuak proiekturako hezitzaileak behar ditu Loramendi elkarteak. Astean hamar orduko lan-jarduna eskaintzen du, astelehenetik eguenera bitartean, arratsaldean, eta irailean bertan hasteko izango litzateke.

Hezitzaile izateko eskatzen dutena da euskalduna izatea eta bigarren mailako Lanbide He-

ziketa gradua edo diplomatura-lizentziatura titulua izatea.

Era berean, aintzat hartuko dute aretxabaletarra izatea eta bertako euskara menperatzea; hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea; eta hurrekin aisialdian jardun izana.

Izena emateko azken eguna irailaren 13a da eta curriculumak honako helbide honetara bidali behar dira: euskara@loramendielkartea.eus. Durana kaleko bulegora –udaletxe zaharra– ere eraman daitezke.

GORA ETA BEHERA



Bide bazterretan poto asko botata



Herritar batek adierazi du hainbat auzotako bide bazterretan poto mordoa aurkitu dituela azken hilabeteetan: "Mendirolara bidean, esaterako, lehenengo aldapan, 56 garagardo-poto zenbatu ditut. Lotsagarria da gero!".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Musika doinuak eta dantzak eskolara berriro

Leizarra musika eskolako gelak ikasleekin bete dira; ia 200 lagunek dihardute instrumenturen bat edo beste ikasten eta ia 100ek dantza saioetan. Berritasunak ere badituzte aurten: helduen bigarren talde bat eta alboka eta dultzaina ikasketak

Mirari Altube ARETXABALETA

Eguaztenean zabaldu zituen atek ikasleendako Leizarra musika eskolak. 400 matrikula baino gehiago egin dituzte aurten: musika eskolan eta tailerretan jardungo dutenak, 104; instrumentuetan, 174; dantzan, 99; abesbatzan, 14; eta helduen kantu taldean, 10. Dena den, oraindik ez dituzte ikasturte berriko kontuak erabat itxita. Gainera, irailarekin batera, berritasun batzuk iragarri dituzte.

Helduen bigarren taldea

Ikasle gehienak gaztetxoak dira, baina helduen talde bat ere badago. Orain, bigarren talde bat osatzea da musika eskolako arduradunen asmoa. "Era interaktiboan emango ditut eskolak, online egingo ditugu lan asko, ordenagailua erabilia. Erritmoa eta kantua ere asko landuko ditugu", adierazi du Mariatxen Urkia irakaslea, eta gaineratu: "Martxan dagoen taldearekin era horretan landu nuen iaz, eta oso gustura jardun zuten".

Bigarren talde horretan hutsetik landuko dute musika; horregatik, aurretik ezer ez dakitenek ere izango dute lekua: "Sarritan entzun izan dut: 'Nik gustura ikasiko nuke, baina ez dakit...'. Orain dute, bada, aukera. Ikas-



Mariatxen Urkia irakaslea eskolak ematen, eguaztenean. MIRARI ALTUBE

teko beste metodologia bat da eta gogoia bakarrik eskatzen da". Eskola horiek eguenetan emango dituzte, 09:30etik 10:30era.

Alboka eta dultzaina

Bestetik, txistu irakasle Ainhoa Izagirre donostiarrak alboka eta dultzaina eskolak ere emango ditu aurten. "Umeek musika ikasketekin uztartuko lituzkete ikasketok, gainerako instrumentuekin moduan. Eta helduek, aurretik musika ikasketaren bat izanez gero, irakaslearekin adostuko lukete", dio Urkiak.

Eskolak zein egunetan izango diren oraindik ez dute zehaztu.

Horrez gain, umeen abesbatza ere osatu gura dute: "Egon badago talde bat, nerabeekin osatutakoa. Eta orain, 7, 8 eta 9 urte ingurukoekin eratu nahiko nuke; musika eskolan dauden ikasleak izan daitezke, baina ez dago zertan, atek edonori daude zabalik".

Esandako jardueretan izena emateko edo zalantzak argitze-ko, Arkupen egoitza duen musika eskolara -943 08 10 01- jo behar dute interesatuek.

UDAko hainbat kirolarik hilaren 12an hasiko dute denboraldia

Futbol eskolako umeek, karate sailekoek eta gimnasia erritmikoan dihardutenek ekingo diote lanari

M.A. ARETXABALETA

Aretxabaleta kirol elkarteko kirolari asko dagoeneko hasita daude denboraldi berria gertatzen; bereziki, futbol jokalariek. Eta irailaren 12an gainerakoek ere ekingo diote lanari.

Futbol eskolan izena emateko epea zabalik daukate 2012an, 2013an eta 2014an jaiotakoek; hona hemen horretarako bideak: labur.eus/Futbol_Eskola_2022eta2023 edo 656 73 54 59. Entrenamenduei astelehenean ekingo diete, Ibarra futbol zelaian. Jolasa eta diziplina uztartzea dela helburua adierazi dute arduradunek: "Guztiok izanda tokia gure artean".

Karate Saila, lanean

Karate Sailak dagoeneko hasi du 2022-2023ko denboraldia: 13 urtetik gorakoek, hain zuzen ere. Horiek astelehenean, eguazten

eta eguakoitzetan dituzte entrenamenduak (19:15-20:30). 6 eta 13 urte artekoak, ostera, irailaren 12an elkartuko dira lehenengoak, eta astelehenean eta eguaztenetan izango dituzte eskolak (18:00-19:00), Ibarra kiroldegian. Edozein argibide gura izanez gero, telefono zenbaki honetara deitu daitezke: 656 70 17 37.

Gimnasia erritmikoa, hastear

Gimnasia erritmikoan diharduten gaztetxoek ere datorren astean emango diote hasiera denboraldiari. Astelehenean eta eguaztenetan (17:00-19:00) elkartuko dira horiek Ibarra kiroldegian. Kirol hori bertatik bertara ezagut dezaten, entrenamenduetara joan eta probatzeko aukera eskainiko diete neska-mutikoei, gainera. Eta zalantzak argitzeko, telefonoz deitu daitezke: 629 13 77 26.

Garaguneko kideek egindako artelanen erakusketa Arkupen

Hainbat materialekin landutako margolanak jarri dituzte ikusgai Garaguneko kideek -desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako erabiltzaileak- Arkupen. "Urteetan zehar landutako prozesua izan da; teknika eta material desberdinetatik abiatuz pertsona bakoitzaren estilo artistikoa garatuz", adierazi dute erakusketaren antola-

tzaileek. Garagune zerbitzu bi daude Debagoienean, Arrasaten eta Bergaran, eta bi horietako erabiltzaileen eskulanak eta pintura-lanak dira Arkupen jarritakoak.

Erakusketa ibiltaria da, eta aurretik Arrasaten eta Oñatin ere izan dute aukera ikusteko. Aretxabaletan irail osoan egongo da ikusgai, astelehenean eguaztenetik bitartean -11:00-13:00 eta 18:00-20:00-; zapatuetan, domekatan eta jaiegunetan itxita izango da.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Sekretua praktikatzea da, klik asko egitea"

LARTAUN ITURBE ARGAZKILARIA

Aretxabalek ateratzen dituen erretratuak oso ikusgarriak dira, eta autodidakta moduan ikasi duela dakien guztia dio. Oraingoan, iriztuei aritu da argazkiak ateratzen

Imanol Beloki ARETXABALETA

Abuztuaren 28an ikusi ahal izan ziren iriztuei argazkiak ateratzeko aprobetxatu zuen Lartaun Iturbek, eta horiek sare sozialetan partekatu ditu, etxetik mugitu gabe, erretratu ederrak aterata. Ez da lehenengo aldia izan iriztuei argazkiak ateratzen aritu dena –halakoak erakarritak–, eta emaitza ikusgarria izan da, beste behin.

Gustatzen zaizu iriztuei argazkiak ateratzea?

Etxeko balkoitik ateratzen ditut erretratu hauek. Mugikorrean aplikazio bat dut jaitzita, *Radar de tormentas*, eta tentu egoten naiz. Ez da broma mendira joatea iriztuei argazkiak ateratzera, mendi puntan harrapatzea ez zitzaidan gustatuko. Murrantza bista polita dut balkoitik, argi gutxi dago, eta egokia da halako argazkiak ateratzeko.

Abuztuaren 28an atera zenituen iriztuen argazkiak. Zein ordutan?

08:30ak aldera atera nituen argazkiak. Euriarekin zailagoa da halako argazkiak ondo ateratzeko, obturatzaila zabalik utzi behar duzulako... Euririk ez zebilen, lainoa altu zegoen, eta, beraz, baldintza egokiak ziren. Egun berean, esaterako, 03:00ak aldera esnatu nintzen, baina, ekaitza herriganean zegoen, behe-lainoa



Lartaun Iturbe, argazki kamera eskuetan duela. LARTAUN ITURBE

zegoen, euria..., eta argazkia oso argitsua agertzen da modu horretan. Baldintza egokiez gain, sekretua praktikatzea da; tutorialak ikusi eta argazkiak ateratzen, ikasten joan. Argazki kameraren ezaugarri guztiak manulean jarri behar dituzu, gaueko iluntasunarekin ez duelako ondo erreakzionatzen kamerak.

Halakoetan, ekaitza gertu izan behar duzu, beldurrik ez duzu pasatzen? Errespetua ematen du halako eguraldia dagoenean argazkiak ateratzen ibiltzeak. Ia derrigo-

rrezkoa da tripodea erabiltzea argazkia ateratzeko, eta balkoian kamera tripodean jarrita, ia balkoira ateratzeko beharrik ere ez dut. Urrutiko aginte tresna erabiltzen dut, horretarako, ni etxe barruan egonda.

Beste era bateko argazkiak ere aritzen zara, ezta?

Txirindularitzan zaletua naiz betidanik, eta horrekin batera, errugbiko partiduetara joatea ere gustatzen zait erretratuak ateratzera. Askotan, mendi lasterketarako ere deitzen didate argazkiak ateratzeko.



2019an egindako asto-janean batutakoak. IGOR ORUESAGASTI

Asto-janean, 70-80 kiloko hiru astakume jango dituzte

Hirugarren edizioa izango da, eta hiru astakume erabiliko dituzte bertaratzen direnei jaten emateko

I.B. ARETXABALETA

Aurrez egindako edizioekin alderatuz, aurten, egitarau sendoa prestatu dute asto-janerako. Zapatuan ospatuko dute eta honako hau da programa: 11:30ean, bola-txapelketa izango da; 13:00etan, txikiteoa, trikitilariak lagunduta; 14:00etan, gisatu lehiaketaren sari banaketa; 14:30ean, bazkaria Mitarte kalean –Txartelak Orly, Kixkor eta Arlutzen daude salgai, 30 eurotan–, eta bazkalostean, trikitilariak arituko dira girotzen. Egunari amaiera emateko, 18:30ean, Upeide elektrotzaranga arituko da kaleetan zehar.

Beste behin, Elosuko Igor Oruesagasti izango da jana ekarriko duena, eta ez du lan erraza izango aurreikusten diren 150 lagun jaten emateko. "Astakume gazteak jaten dira, 70-80 kilo dituztenak. Asto bakarra erekin 60 lagunendako jana izaten

da, eta hiru izango ditugu zapatuan. Hiltegian hilda eta lan guztiak eginda eramango ditugu. Gisatuta, fileteak eta txuletak, eta saiheskia ere pixka bat jango dugu. Beraz, hala moztuta ekarriko digute. Gisatutakoa jateko, aurten, elkarteen arteko txapelketa bat antolatu dugu. Zortzi elkarrek eman dute izena eta irabazleak txapela jasoko du. Gainontzekoa, berriz, parillan egingo dugu."


Jaten duenaren gustuko

Asto-okela sekula jan ez duten asko izaten direla azpimarratu du Oruesagastik, eta beste batzuk, inoiz jango ez luketenak. Hala ere, probatzen duenak gustuko izaten duela dio: "Lehenengo bi edizioetan etorri zirenek errepikatuko egingo dute; izan ere, txahal gazte-gazte baten okela berdina du. Xamur-xamurra da, erraz moztzen dena".

Etxetik mugitu gabe, unea gorde

Urrutira joan barik, etxeko balkoitik atera zuen iriztua Muruko tontorrari jotzen ari den erretratu iturbek.

Iriztuei erretratatzeko baldintza egokiak ezinbestekoak direla azpimarratu arren –gauaren iluntasunean askoz ere ikusgarriagoak dira–, probak eginez eta argazki asko ateratzen ikasi duela unea harrapatzen dio hark.



Aretxabaleatik erretratatuak iriztua Murun. LARTAUN ITURBE

Kurtzebarri eguna ospatzeko, domeka honetan mendira

Murruxiko mendizale elkarteak, mendizaleek eta herritarrek antolatuta, domekan Kurtzebarri eguna ospatuko da. Urtero moduan, iraileko bigarren domekan egingo, eta aurten ere, 10:30 inguruan, Kurtzebarriko tontorrean salda, txorizoa eta gazta eskainiko zaie bertaratuei, eta gero Mendiolan, 13:00etan bermuta hartuko dute.

Sanmigeletarako gertu egoteko, hasi dira dantza saioak

Asteon hasi dituzte Beinke Loramendi dantza entseguak. San Migel jaiak gerturatzen ari direla kontuan hartuta, prest egon nahi dute egunerako. Hala, hilabete honetan, irailaren 13an, 20an eta 22an egingo dituzte saioak, Kurtzebarri eskolako pistan, 19:00etan. Parte hartzeko, 685 75 67 29 telefono zenbakira deitu daiteke.




Realaren eta Espanyolen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Espanyol partida (irailaren 18an, 18:30ean) beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.



Eserlekuak
Premium gunean



Catering
zerbitzua



Aldageletako tunelean
jokalariak ikusteko aukera



Ikus-entzunezko
erabilerak



Atentzio eta zerbitzu
pertsonalizatua



353 metro karratuko
gunea

**Ezin errazagoa da
zozketan
parte hartzea!**



1.
Aplikazioa
deskargatu.

2.
Zozketak atalean sartu
eta parte hartu.

Gertu.
Zorte on!

**goiena[”]
kide**

Okm: batzen gaituen distantzia



www.goiena.eus/kideak



Gazte bat bizikleta estatikoan, Manuel Muñoz kiroldegiko instalazioetan. IMANOL BELOKI

Izena eman, probatu eta apuntatzeko dei egin dute

Manuel Muñoz kiroldegian kirol eskaintza aukera zabala dago lehorreko zein uretako ikastaroetan, eta irailaren 15ean hasiko dira saioak. Hala ere, aurrez probatu nahi duenak aukera izango du horretarako, datorren astean izango diren ate irekietan

Imanol Beloki Unamuno **ESKORIATZA** 2022-2023ko ikasturterako azken prestaketa lanak eginda, Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegia eskaintza berria aurkeztu du. Lehorreko eta uretako saio gidatuak irailaren 15ean hasiko dira, eta izen emateak abuztuaren 22an zabaldua, aukera dago zerbitzuak eskaintzen dituen ikastaro guztietan izena emateko. Gainera, ate irekiak antolatuta dituzte, kiroldegiko eskaintza probatu nahi duten interesdunentzat.

Aukera zabala

Fisikoki modu aktiboan mantendu nahi duenak aukera zabala du Manuel Muñoz kiroldegian, eta horretan laguntza eskaintzen, koordinatzen eta kirol-prozesuan bidelagun gisa laguntzen bost profesional arituko dira, guztira, lehorreko zein uretako ikastaroetan.

Eskaintzaren barruan, berriz, pilatesa, hipopilatesa, erorketen prebentzioa, gimnasia, indoor

txirrindularitza, zumba, body tonoa edo fitness aholkulari zerbitzua daude lehorreko jardueren artean. Hala ere, udal instalazioetan eskaintzen diren ikastaroren batean plaza gordezko, beharrezkoa izango da Eskoriatzako udal webgunean erantsita dagoen izen emate orria behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea kiroldegiko harreran. Posta elektronikoz ere bidali daiteke, kiroldegia@eskoriatza.eus helbidera.

Ate irekiak datorren astean

Ate irekiak ere egingo dira, urtero moduan, eta zehaztu dituzte egunak. Hain zuzen ere, datorren astelehenetik –irailak 12– eguaztenera –irailak 14– bi-

**ASTELEHENETIK
EGUAZTENERA
BITARTEAN IZANGO
DIRA IKASTAROEN
GAINKO ATE IREKIAK**

tartean izango dira, baina aurrez izena ematea derrigorrezkoa izango da. "Bihar, zapatua, izango da azken eguna ate irekietan parte hartzeko izena emateko. Kiroldegira deitu beharko du interesa duenak, edo eraikinetik bertatik pasatu. Gutxienez, lau pertsona batu beharko dira saioa probatzeko eta klasea aurrera ateratzeko. Hori horrela, interesa duenarentzat aukera zabaldu dugu, saio batean hasi aurretik probatzeko eta gustatzen zaion edo ez erabakitzeko", adierazi du Ainize Lizarralde, Manuel Muñoz kiroldegiko koordinatzaileak.

Harremanetarako

Informazio gehiago behar duenak, ikastaroren bateko zalantzaren bat argitu nahi duenak edo bestelako kontsulta bat egin nahi duenak Manuel Muñoz kiroldegiko harreragunean galdetu dezake, 943 71 53 28 telefono zenbakira deitu edo kiroldegia@eskoriatza.eus helbidera idatzi.



San Pedroko eta Intxaurtuetako jaietarako gertu dute karpa, Partxis plazan. I.B.

Festak hasteko, emakume borrokalari eta langileei aitortza

Angela Fernandezek botatako txupinazoarekin hasiko dira gaur, egubakoitza, 'San Pedro txiki' jaiak

I.B. ESKORIATZA

San Pedro txikiak hasteko, gaur, egubakoitza, 18:00etan, Angela Fernandez *Angelita* arduratuko da txupinazoa botatzeaz, auzoko adineko pertsoneri aitortza gisa. "Aurten, jaietan auzoko gure adinekoak omendu nahi ditugu; bereziki, auzo langile hau lorazten zutabe izan ziren emakumeak: batzuk bertakoak, beste batzuk Gatzagakoak edo inguruko herrietakoak, eta beste asko urrutitik etorritakoak. Garai zailetan, emakume borrokalari eta langile horiek beren familiak aurrera atera dituzte,

gutxi eta gutxitan aitortutako eta eskertutako lanarekin. Horregatik guztiagatik, jai batzordetik, bai seme-alabek, bai bizi-lagunek, errekonozimendu txiki hau egin nahi dizuegu, hemen ez daudenak ahaztu gabe", adierazi dute San Pedro eta Intxaurtuetako jai batzordeko kideek.

Orotariko ekintzekin hasita

Txupinazoaz gain, haurrentzako ekintzak, Irulitxa txarangak, rap saioa eta DJ Motorekin dantzaldia izango dira gaur, besteak beste.



I.BELOKI

Bidegorria asfaltatu dute astean

Eskoriatzatik Aretxabaletako noranzkoan egiten ari diren lanak forma hartzen hasi dira. Izan ere, astean asfaltatu dute Jose Arana Nagusien egoitzatik Fagor Automaterainoko ibilbide zatia, lanak egiten izan diren eremua. Zeresana ere eman dute lanek; izan ere, erabiltzaileentzat ez dute alternatibarik jarri.

Denboraldirako asmo handiekin, prestaketa-lan intentsiboan

Eskoriatza areto futbol taldeak irailaren 24 eta 25eko asteburuan hasiko du liga, etxean, Kukuia garen aurka

I.B. ESKORIATZA

Gizonezkoen Hirugarren Maila Nazionaleko Eskoriatza areto futbol taldea ari da denboraldiaurrea prestatzen. Denboraldira begira, Federazioak bi multzotan banatu ditu taldeak, eta Eskoriatza B multzoan arituko da, postu onena bilatzeko bidean, bederatzi talderen arteko lehia.

Helburu nagusia urteroko berbera izango da; hau da, sailkapenean ahalik eta postu gorrenena lortzea. Iaz, *play-off*-era iritsita, gustura geratu ziren, eta bide bera egin nahi dute aurten.

Lagunartekoak, entrenatzeko

Ondo prestatuta hasteko, abuztuan hasi zituzten entrenamendu saioak, baina ez dira horretara soilik mugatu. Lagunartekoak ere jokatu dituzte, eta oraindik ere jokatzen asmoz

daude. Esaterako, joan den astean jokatu zuten azken partiduan, Labastidaren aurkakoan, 5-2 irabazi zuten, eta atzo ere jokatzeoak ziren, Elorrioko taldearen aurka, etxetik kanpora.

Entrenatzaile berriak

Lehenengo taldean iazko entrenatzaile berek jarraituko dute; hau da, Mikel Alkaide eta Adrian Garnateo entrenatzaileek, baina gainontzeko mailetan aldaketak izango dira.

Eskoriatza areto futbol taldeko gazteen mailan, iaz, Ander Romero zen entrenatzailea, eta aurten, lehen taldeko jokalariek diren Ion Ugarte arituko da taldea zuzentzen, Jokin Vazquez-ekin batera. Bigarren taldean, berriz, Oier Ganboak jarraituko du entrenatzaile gisa, eta Andoni Arriaran eta Jonathan Valor hari laguntzeko batuko dira.



Partidu batean, Eskoriatza areto futbol taldeko jokalariek gola ospatzen. I. SORIANO

Gaztelekuko zerbitzua martxan da gaurtik

Asteburu osorako gaztelekuan ate irekiak antolatuko dituzte DBH-1eko eta DBH-2ko gazte-lexoei zuzenduta. Gaztelekuko lokala erakutsiko diete, gaztelekuko hezitzaileak ezagutuko dituzte erabiltzaileek, funtzionamendu arautegia jakinarazi, zerbitzuaren ordutegia, beste urte batzuetan egin diren ekin-tzak aurkeztu eta jolasak eta

lehiaketak izango dira, besteak beste, asteburu osoan antolatuko direnak bertara joaten diren guztientzat.

Asteburu honetan moduan, ikasturteko gainontzeko asteburuetan ere gaztelekuko ordutegia berbera izango da. Egubakoitzetan 17:00etatik 20:30era bitartekoa eta zapatu eta domeketan 16:30etik 20:30era bitartekoa. Zerbitzua doakoa da, eta herriko nerabe guztiei egiten diete gonbita aisialdi-gunea ezagutu eta bertan parte hartzeko.



Eguaztenean, Dorleta Santutegian egindako mezarekin eta gazta-mokadutxoarekin hasi zituzten jaiak. EUGENIO OTSOA

Hitzordu klasikoak izango dira programan

Aurtengo Andramaixetako egitaraua azken urteetako ildo beretik prestatu du Leintz Gatzagako Udalak. Punk-rock kontzertuak izango dira, bola-txapelketa herrikoia, apar-festa, pilota partiduak, herri afaria, eta baita herri kirolak ere, besteak beste

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Eguaztenean hasi zituzten Andramaixak Leintz Gatzagan, eta Dorleta Santutegian egindako meza eta gazta dastaketa izan ziren lehenengo hitzorduak jaietan murgiltzeko. Hala ere, hurrengo eguneko egitaraua beteagoa izan zen; izan ere, meza, otxandioarren urteroko bisita, pilota partiduak eta pintxo-pote musikatuak izan zituzten gatzagarrek gozagarri.

Otxandioko bisitariak Leintz Gatzagara oinezko bide zaharretik oinez iritsi ziren. 11:00 aldera iritsi ziren, eta herriko plazan egin zieten harrera gatzagarrek. Horretarako, salda beroa eskaini zieten, pintxoak

ere izan zituzten indarrak hartzeko, eta zenbait lagun bertan geratu ziren bazkaltzen.

Autobus zerbitzu berezia

Gaur gauean, punk-rock kontzertuak izango dira, eta, beraz, autobus zerbitzu berezia ezarri dute Oñatitik -21:00etan, 22:30etan eta 00:00etan irtenda-, Arrasatetik -21:15ean, 22:45ean eta 00:15ean irtenda-, Aretxabale-tatik -21:25ean, 22:55ean eta 00:25ean irtenda- eta Eskoriatzatik -21:35ean, 23:05ean eta 00:45ean irtenda-, Leintz Gatzagara igotzeko eta baita jaisteko ere. Gatzagatik jaisteko, berriz, 01:00etan, 02:30etan eta 05:00etan izango da aukera.

Errekorren bila

Gatzagako jaietako egitarau ofizialean ez egon arren, joko dibertigarria prestatu dute Gatzaga City Krew Gatzagako gazte taldeko kideek, jaietako ordu txikietarako. Iazko jaietan hainbat lagun freskatzera sartu ziren herriko iturri berezira, Bateko Kopa iturrira, eta ur azpitik iturriari bueltak ematen aritu ziren. Kronometratu ere egin zuten, eta 2,68 minutuko denbora hobetzeko erronka bota dute sare sozialen bitartez. Errekorra hobetzen duenarentzat sorpresa bat izango dela adierazi dute, eta baita toallak jarriko dituztela parte hartzaileentzat.

Auzolanaren indarra

Joan den astean egindako eta margotutako hesolak jartzen aritu dira Leintz Lotzen egitasmoko kideak Gatz Bidean. Horretarako, boluntarioen laguntza ere izan zuten; besteak beste, Aretxabaleko Loramendi Elkartekoak. Ibilbidean zehar egiteko asko dagoela kontuan izanda, bidea egokitzen jarraitu gura dute elkarteko kideek.



LEINTZ LOTZEN ELKARTEA

"Kalte ekonomiko larria" eragin dute lapurrek

Kartzela zaharrea sartu ziren irailaren 4tik 5erako gauean eta, besteak beste, negurako berogailu sistemarako bertan zegoen dirua ostu zuten; kaltea arintzeko, bonu-laguntzak aterako dituzte San Martin jaietarako, eta salaketa jartzeko asmoa agertu dute

Jokin Bereziartua BERGARA

Irailaren 4tik 5erako gauean lapurrek sartu ziren kartzela zaharrean eta "kalte ekonomiko larria" eragin zuten; bereziki, negurako jarri nahi zuten berogailu sistemarako dirua bertan zutelako. Txapa Irratian zegoen dirua ere ostu zuten lapurrek. Atzo, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek, azken lapurreta hau salatu eta kartzela zaharreko gune autogestionatuari babesa adierazteko.

Eragile askorendako gunea

Erasoak eraso, diote kartzela zaharreko gune autogestionatuaren alde lanean jarraituko dutela: "Gune autogestionatu honetan jarraituko dugu, gu geu antolatzen, ekintzak antolatzen, eta denon ondarea den espazio hau zaintzen. Azkenengo urteetan bereziki, eragile askok eta askok erabili dute euren ekintzak aurrera eramateko, eta denon babesa da beharrezkoa". Eragile horien guztien artean daude, besteak beste, honako hauek: Txapa Irratia, Kopla Barik bertso eskola, Gazte Kontseilu Sozialista, Maijoku elkarte, Itai, Jau! haur eta guraso asanblada, KIT irakurketa taldea, Angiolillo liburutegia, Ikasle Abertzaleak, Ernai, Gitarra taldea, Bergarako Elektronika Topaketa, Lubaki, Bergarako Emakume Migratuak, Egubakoitzak Berreskuratzen eta Martxantera.

"Argi dugu herritarrak direla"

Gainera, "argi" dute herritarrak izan direla lapurrek: "Azken urteotan hainbat eraso bizi izan ditugu kartzela zaharrean eta oraingoan kalte ekonomiko berritan larria eragin dute. Denbora asko daroagu espazioa berri eta bereziki negurako berogailu sistema hobetzeko lan egiten. Modu kolektiboan eta herrira begira sortzen dihardunaren kontrako eraso bat da.



Kartzela zaharreko ataria, gauez aterata. KARTZELA ZAHARREKO KOORDINADORA

Argi daukagu eraso hau herritar batzuegandik jaso dugula, eta oraingo honetan bereziki agerian geratu da. Hau ez errepikatzen eta kartzela zaharra gune seguruagoa izateko neurriak hartzen hasi gara".

Bonu-laguntzak sanmartinetan
Kalte ekonomiko arintzeko, elkartasunerako dei egin dute, eta lehen ekimena izango da bonu-laguntzak ateratzea sanmartinetarako. Aurrerago ekin-tza gehiago antolatuko dituzte.



2019ko maiatzean egin zuten azken protesta lapurretak salatzeko. GOIENA

Lapurren jomuga hainbat alditan

Hainbat alditan sartu dira lapurrek kartzela zaharrean; 2019ko udaberria izan zen bereziki larria, hilabete gutxian bost alditan sartu zirelako eta kalte ekonomiko zein materialak eragin. Azken lapurreta hau dela eta, salaketa jartzeko asmoa agertu dute.



NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Ekaitza

Iritsi da ikasturte berria, berritik ezer gutxi duen arren. Pandemiaren ostean denak eder zirudien, eta ekarri dizkigute gerra, errepresioa eta aurrezkiak xumeenak irensten diharduen ditxosozko inflazioa. Esan ziguten pasako zela, fenomeno meteorologiko baten gisan, baina ekaitz honi ez zaio ostarerik nabari inongo aldetik, eta jada azken urteotan ikusitakoak erakutsi beharko liguke okerrera egingo duela. Okerrera egingo duela, behintzat, aurre egiten ez badiogu; aurre, baina ez ekaitzari, ekaitz hori sortu eta elikatu duten arduradunei baizik. Egoera honek denak arduradunak dituelako, baina ez gaitzezen engaina, agintari batzuen ordez beste batzuk jarrita ez da-eta hau amaituko.

Ez genuke ekaitzean oasirik sortzerik nahi. Ez dugu miseriaren kudeaketa justuagorik nahi. Miseriarik gabeko mundu bat da nahi duguna, zapalduerik zein zapaltzailearik gabeko mundu bat, eta horrek gizarte kapitalista hau errotik aldatzea esan nahi du, ezinbestean. Badugu lana, urte gogorrek datozkigu aurretik, baina den-dena dugu irabazteko.

Udal egutegia: hilaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiak

Zabalik dago 2023ko udal egutegirako argazkiak bidaltzeko epea. Aurten ez da gai zehatzik finkatu eta Bergararekin lotutako edozein alderdi agertzen duten argazkiak aurkeztu ahal dira: paisaiak, eraikinak, pertsonak, jaiak, lanak, abereak...

Bergaran jaioa denak edo bertan bizi den edozeinek aurkeztu ahal izango ditu argazkiak; ar-

gazkilari bakoitzak, gehienez, 25 argazki. Egutegian erabiltzeko aukeratutako argazkiak ordaindu egingo dira eta, gainera, aukeratutako argazkiak Udal Artxiboan jasota geldituko dira eta Udalak horiek erabiltzeko aukera izango du; betiere, egiletza aitortuta. Argazkiak Udalak izendatutako lantalde batek aukeratu ditu. Irailaren 25erako bidali beharko dira argazkiak, euskara@bergara.eus-era. Argibide gehiagorako Udaleko Euskara Zerbitzura jo beharra dago.

OHARRAK

Erretiratuen eta pentsiodunen elkarretaratzea

Astelehenean, irailak 12, egingo dute protesta San Martin plazan (12:00). Gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea, "benetako KPIren igoera" eta osasuna zein zaintzak publikoak eta kalitatezkoak izatea aldarrikatu dute.

Larramendiko Arnasa: giza katea Donostian

"Errausketaren" aurkako giza katea egingo dute irailaren 11n, Alderdi Ederretik (11:00). "Errausketa ez da irtenbidea; ez Donostian, ez Bergaran eta ez inon. Hondakinak murrizteko eta birziklatzeko plan eraginkorrek eskatzen ditugu".

'Mundua bidegurutzean' hitzaldia hilaren 14an

Ekai Center-eko presidente Adrian Zelaiak Seminarixuan egingo du hitzaldia, irailaren 14an (18:00). Eredu ekonomikoaren gortzeaz, gatazka geopolitikoaren leherketaz eta Interneteko herritarren kontrolaz arituko da.

San Joxepe elkarte: korua eta danborrada

San Joxepeko abesbatzaren entseguak irailaren 13an hasiko dira, egoitzan (17:00). Gainera, adierazi dute sanmartinetako helduen danborradan ere parte hartuko dutela, irailaren 15ean.

Elosuarren "lan esker" ez da nahikoa feriantzat

2019ra arte 41 urtez egin ostean, desagertzera doa Elosuko mendi eta ganadu feria: "Auzotarren lan esker"ak bizirik mantendu du, baina instituzioen landa eremuekiko sentsibilitate eta politika eraginkorren ezak feria desagertzera kondenatu du"

Jokin Bereziartua BERGARA

41 urtez egin ostean, desagertzera doa Elosuko urteko zitarik garrantzitsuena zen urriaren 12ko mendi eta ganadu feria. Berezi hainbat bergarrendako eta azkoitiarrendako egutegian errotuta zegoen zita izaten zen, urriaren 12ko jaiegunean egun-pasa ederra egiteko baliatzen zutena. Bada, auzotarrek asteon aditza eman dutenez, ez dira baldintzak betetzen feriarekin jarraitu ahal izateko: "Auzotarren lan esker"ak bizirik mantendu izan du feria 41 urtez, baina instituzioen landa eremuekiko sentsibilitate eta politika eraginkorren ezak feria desagertzera kondenatu du".



2019an egin zen azken feria Elosuan; irudian, antolatzaileak pintxoak banatzen. GOIENARI

"Egun tristeak" auzotarrendako Diotenez, "aspalditxo" nabaria zen erabakia aurten iritsi da: "Auzotarrok batzartuta egindako hausnarketan, nagusiki, feria bere gain hartuko duen oinordekotzaren falta azpimarratu zen. Landa eremuak biztanle gabe geratzen ari dira; husten ari dira eremu isolatu hauek zerbitzu eta laguntza faltagatik". Azpimarratu dutenez, "egun tristeak" ari dira izatean auzotarrendako eta feria bizi izan dutenendako. Erabaki zaila izan dela aitortu arren hartu beha-

rrekoa zela diote auzotarrek eta eskerrak emateko ere baliatu dute jakinarazpena: "Eskerrak helaraztea besterik ez zaigu geratzen ferian inoiz parte hartu izan duzuenoi, lanean zein eguna pasatzera etortzeko ohiturari eutsi diozuenoi, azokako salerosleei eta musu-truk lanera etorritako boluntario guztiei. Baita hedabideei ere, eta diruz lagundu gaituzuen Hazi fundazioari eta, nola ez, Bergarako eta Azkoitiko herrikideei".

Elosuko alkate Iñigo Zubeldiak 2021eko uztailean GOIENARI

emandako elkarrizketan, "beltz" ikusten zuen auzoaren etorkizuna, eta aipatzen zuen, besteak beste, feria desagertzear zela: "Egoera zein den ikusita, ez diot auzoari feria berriro antolatze ahalmenik ikusten. Esan izan didate pesimista naizela, baina esango nuke errealista naizela. Auzoarendako oso egun berezia izaten zen, diru-iturri bat ere bazen bestelako egitasmo txiki batzuk martxan jartzeko. Hala-ko egun seinalatueta igartzen zen auzo-sena bazegoela, baina pandemiak dena izorratu du".



Iazko IDK-Euskotren eta Barakaldo taldeen arteko lehia. IMANOL SORIANO

IDK eta Zaramat nor baino nor gehiago gaur Labegarrietan

Bergara Hiria saskibaloitxapelketako laugarren edizioa irabazteko lehiatuko dira "goi mailako" bi taldeak

J.B. BERGARA

Bergara Hiria emakumezkoen saskibaloitxapelketako laugarren edizioa jokatu da gaur Labegarrietako kiroldegian (18:00). Donostiako IDK Euskotren eta Zamorako Zaramat taldeak gonbidatu dituzte aurten; BKEko saskibaloitxapelketako zuzendaritza taldeko Borja Elkorobereziarren arabera, goi mailakoak dira bi taldeak: "Bi taldeak denboraldia prestatzen ari dira eta espero dugu goi mailako partidua oso erakargarria izatea. IDK lehen mailako talde indartsu bat da eta beti dabil borrokan azken fasean sartzeko. Zaramat, berriz, Challenge ligako talde indartsuena da, denboraldi amaieran goiko postuetan egotea espero dena". Sarrera doakoa izango da.

BKE: jokalar berrien bila

Denboraldi berriari irailaren 18ko asteburuan emango diote

hasiera lau taldek. "Gainontzeko taldeen egutegia oraindik ez da egin, baina talde guztiak martxan ditugu euren onena emateko", dio Elkorobereziarrek. Maila batzuetan jokalaria falta dutela-eta saskibaloira hurbiltzeko dei egin diete gazteei, 696 53 07 71 telefono zenbakira deituta edo bergarasaski@gmail.com helbidera idatzita. Zuzendaritzan aldaketak ere izan dituzte: Ion Beistegik, arazo pertsonalak medio, zuzendari izateari utzi dio eta kirol zuzendari zen Andoni Azpiatzuk ere kargua utzi du. Hala, zuzendaritza talde berria Elkorobereziarrek berak, Aitor Esnaolak eta Xabat Irazolak osatzen dute orain; kirol zuzendari berria Irazola izango da.

Bestalde, aurten jantzi berriak aterako dituzte jokalarientzat, eta herritarrek online erosteko denda ere zabalduko dute.

Iraileko asteburuak zuzenekoekin datoz Gorrako kantinan

Irailean kontzertuak izango dira protagonista Gorrako kantinan, 18:30ean hasita. Bihar, hilak 10, On The Go taldeak joko du; hileren 17an, Korda Rotak joko du; irailaren 23an, Banana Shake izango da protagonista; eta hileren 24an, Karena taldearen txanda izango da. Eguraldi txarra eginez gero, kontzertuak Elosuko frontoian izango dira.

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Gozatzeko dira sanmartinak

Bergararrak San Martin jaietarako prestatzen ari dira. Bi aste bukaera izango dira eta pandemia aurreko baldintzetan egingo dira bai azoka bai gainerako ekitaldiak



Azoka eguna pandemia aurreko sanmartinetan. GOIENA

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA Badatoz San Martin jaiak, eta, egoerak horrela ahalbidetuta, pandemia aurreko baldintzetan ospatuko dira aurten. Hilaren 15etik 18ra egingo dira, eta, ohi bezala, aurreko zapatua azoka eguna izango da Bergaran. Eguaztenez egindako agerraldian eman zuten egitarauaren berri udal ordezkariak eta herriko hainbat eragilek. Hain zuzen ere, Kultura zinegotzi Kristina Markinak eragile horiek egindako lana eskertu du: "Jaietako programazioa osatzerakoan eskaini duten laguntza guztiarengatik eta egin dituzten ekarpenarengatik".

Azoka izango da jaietako lehen hitzordua. Hilaren 10ean egingo da, 09:30tik 13:30era, eta bi kokaleku nagusi izango ditu: San Martin plaza eta Seminarioko patioa. Lehenengoan egongo dira barazki, fruta eta gazta lehiaketei lotutako postuak, eta baita Erlantz Olabarriak eztiaren eraldaketaren inguruan egingo duen erakusketa zein Urzelai, Leturia eta Imaz harakinei esker jarriko den eta Harrera Taldeak kudeatuko duen odoloste postua ere. Ohiko lehiaketak egingo

dira azokan, eta sari banaketa 13:30erako iragarri dute antolatzailleek.

Ferriak ez du ibilgailuen zirkulazioan eraginik izango eta aparkalekuak egokituko dituzte Ipintza zein San Martin ikasteetako jolastokietan.

Omenaldia Pello Garitanori

San Martin jaietako danborradak hilaren 15ean eta 16an egingo dira; helduena lehenengo –hilaren 15ean udal biltegitik 22:30ean abiatuta– eta umeena biharamun arratsaldean –hilaren 16an 18:30ean leku beretik abiatuta–. Aurten herritarrek keinu berezia egingo diote ekainean hil zen Pello Garitanori. Umeen danborradaren bultzatzaile nagusietako bat izan da, eta azken unera arte egon da danborradaren antolaketari lotuta. Danborradako talde guztiek Udalarekin bat egin eta aho batez erabaki dute omenaldia egitea. Musika Bandak *Danbor txikiak* martxa sortu du eta hilaren 15eko helduen danborradan jo eta abestuko dute lehenengo aldiz. Asmoa da hurrengo urteetako danborradetako martxen zerrendan sartzea.

Azken entseuetan ari dira danborradetako parte hartzaileak. Hurrengoak astelehenean, martitzenean eta eguaztenez egingo dira. Seminarioko karpan egingo dituzte: umeena 19:00etan eta helduena 20:00etan.

Su artifizialik ez aurten

Zezenazko aterako da hilaren 16an, 22:00etan. Udal ordezkariak azaldu dute aurten ezingo dela su artifizialen emanaldirik egin, Agorrosingo futbol zelaia obretan dagoelako eta handik bota izan direlako. "Azterketa egin ondoren, teknikariak ondorioztatu dute Bergaran ez dagoela arautegiak eskatzen duen segurtasun distantziak bete ditzakeen bestelako eremurik su artifizialak botatzeko. Horregatik, horren ordez zezenazko ateratzea erabaki da", azaldu dute. Beste berrikuntza bat da Afrikako musikaren eta dantzaren presentzia. *África*,

**SUZKO ZEZEN
BERRESKURATZEN DA,
SU ARTIFIZIALEN
ORDEZ, AGORROSINGO
LANAK DIRELA-ETA**

las dos orillas musikaren arrerapena egingo dute kalean hilaren 18an, 18:30ean.

Zezentxoak eta poneyak

Bergarako Zezenak taldearen eskutik, berriz, sokamuturra izango da San Martin jaietan. Seminarioko patioan izango da lehen saioa azoka egunean, 17:30ean. Gaztetxoendako saioa izango da.

Sanmartinetako bigarren ateburuan sokamuturra ere egongo da Barrenkalean eta San Martin plazan. 09:00etan izango da bai barikuan eta bai zapatuan. Kasu honetan, 16 urtetik beherakoek eta alkohola edo drogaren bat hartzearen intoxikazioa dutenek debekatuta izango dute sokamuturrean parte hartzea.

Errekortadore eskola ibiltaria ere izango da aurten San Martin jaietan. Bi saio daude iragarrita: lehenengoa hilaren 16an, egubakoitza, 12:00etan; eta bigarrena biharamunean, hilak 17, 17:00etan.

Erraldoiak eta dantzariak

Errekortadore eskolaren bigarren saioaren ondotik, Bergarako Erraldoi konpartsaren kalejira

irtengo da San Martin plazatik. Lagun izango dituzte Bergarako Txistulari Banda, Elgoibarko eta Arrasateko dultzaineroak eta Bergarako trikitilariak. Ezin ahaztu, bestetik, egun horretan bertan jokatzekoa den bikote nagusientzako 37. dantza askatu txapelketa. Faborito nagusien artean dira Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrak.

Simon Arrieta pintura lehiaketa

Beart elkarteak antolatuta, irailaren 18an jokatu da aire zabaleko 47. Simon Arrieta pintura lehiaketa. Margolariak hartuko dituzte herriko kaleak eta nor bere txokoa lehiaketara aurkezteko margolana egiten ikusteko aukera izango da. Sari banaketa egunean bertan izango da, udaletxean, 14:30ean.

Lehiaketara aurkeztutako margolanekin erakusketa egingo dute, ondoren, udaletxeko areto nagusian. Hain zuzen, irailaren 23tik urriaren 7ra bitartean egongo da zabalik: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



GLOBAL STUDIES

Ondo ibili sanmartinetan!

Ingeleseko eskolak: maila guztiak eta 3 urtetik aurrera irakasgai guztietarako laguntza eskolak

Beste hizkuntzak: alemana, frantsesa...

San Lorentzo 23, behea 1 • BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72 • global_studies_academy@yahoo.es



Udal ordezkariak eragileekin batera eguaztenezan egindako aurkezpena. HASIER LARREA



Kilimak taldea abuztu amaieran Amaiur herriko jaietan. KILIMAK

Txosnagunean ere aukera zabala

Xaxauko lagunek ere ilusio handiarekin prestatu dute San Martin jaietako egitaraua. Ohikoa duten moduan, Munibe plazan kokatuko dute txosnagunea, eta hilaren 15ean, eguena, irekiko dute. Pintxo-potea eta bikote jolasa, mojito festa, sokasaltoa, marianito festa, oliba-hezur jaurtiketa lehiaketa, karro-potea eta azeri jolasa izango dituzte, besteak beste. Kontzertu eskaintza ere ez da edonolakoa: Nhil, Golden Blend, Lizartxo, DJ Xaxau, Kilimak, Virgin Mari eta DJ Hirukiak taldeak daude iragarrita. Zapatuko herri bazkarirako txartelak salgai daude eta gutxi batzuk besterik ez dela gelditzen adierazi du konpartsako kide Irati Alberdik. Gaineratu du San Martin jaietako lantaldea osatuta dagoela, baina deialdi berezia egin du Pentekoste jaietarako; "Lanean hasi beharko dugu laster. Komeni da jende gehiago gerturatzea".

San Martin jaietako egitaraua

Egubakoitza 9

- **18:00** Bergara Hiria Emakumezkoen SASKIBALOI TXAPELKETA Labegaraietan.

Zapatua 10

- **9:30** BARAZKI, FRUTA eta GAZTA LEHIAKETAK eta AZOKA San Martin plazan. Bestelako produktuen azoka eta talo postua Seminarioko patioan.
- **11:00** KALEJIRA Bergarako trikitalariekin.
- **11:00** HAURRENTZAKO TAILERRAK eta erleen inguruko eskulanak Seminarioko patioan, Jardun elkartearen eskutik.
- **11:30** BERGARAKO ODOLOSTEEN DASTAKETA Urzelai, Imaz eta Leturia harakinei esker San Martin plazan.
- **12:00** ERLEAK ETA EZTI ERAKUSKETA eta DASTAKETA. Eztiaren eraldaketa aurrez aurre Erlantz Oلابarriaren eskutik San Martin plazan.
- **13:30** BARAZKI, FRUTA ETA GAZTA LEHIAKETETAKO SARI BANAKETA San Martin plazan.
- **17:30** Gaztetxoentzako ZESENTXOAK ETA PONIAK Seminarioko patioan.

Eguena 15

- **18:30** APAR FESTA Seminarioko patioan.
- **19:00** TXOSNAGUNEAREN irekiera eta PINTXO-POTEA. Ondoren, BIKOTE JOLASA.
- **22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.
- **23:30** SAN MARTINEN ERREPENTAZIOA Bergarako Musika Bandaren laguntzarekin San Martin plazan.
- **00:15** JOSELU ANAIK taldearekin ERROMERIA San Martin plazan.

Egubakoitza 16

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan.
- **11:00** DIANA, Bergarako Txistulari Bandarekin.
- **11:30** KALEJIRA Musika Bandarekin.
- **12:30** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **12:30** Bergarako Musika Bandaren KONTZERTUA San Martin plazan –euria bada, udal pilotalekuan–.
- **18:30** HAURREN DANBORRADA.

- **19:30** MOJITO FESTA txosnagunean.
- **20:00** NHIL, GOLDEN BLEND, LIZARTXO ETA DJ XAXAU txosnagunean. Tartean, sokasaltoa.
- **22:00** ZESENSUZKOA.

Zapatua 17

- **09:00** SOKAMUTURRA, Barrenkalean eta San Martin plazan.
- **12:00** TRAKAMATRAKA taldearen *Matraka Culinary Center* KALE ANTZERKI emanaldia Fraiskoazuri plazan.
- **13:00** MARIANITO FESTA eta oliba-hezur jaurtiketa LEHIAKETA txosnagunean.
- **14:30** HERRI BAZKARIA eta BINGO MUSIKATUA txosnagunean.
- **17:00** ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA Seminarioko patioan.
- **18:30** Bergarako Erraldoi Konpartsaren KALEJIRA.
- **18:30** KARROPOTEUA.
- **20:00** Bikote nagusientzako 37. MOISES AZPIAZU DANTZA SOLTEKO TXAPELKETA Seminarioan. Antolatzailea: Bergarako Musika eta Dantza Eskola.
- **23:00** KILIMAK, VIRGIN MARY eta DJ HIRUKIAK txosnagunean. Tartean, LINBO eta AZERI JOLASA.

Domeka 18

- **9:00** Aire zabaleko 47. SIMON ARRIETA PINTURA LEHIAKETA, Bearrte elkarteak antolatua. Sari banaketa 14:30ean izango da udaletxean.
- **18:30** AFRIKA MUSIKA DANTZA Bergarako kaleetan.



Plazara itzuliko azoka aurten

Barazki, fruta eta gazta azoka eta lehiaketak egingo dituzte bihar San Martin plazan; taloak, eztiak eta odolosteak dastatzeko aukera ere egongo da, besteak beste



2015ean jarri zuten azkenengoz sanmartinetako azoka herriko plazan. GOIENA

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
Aurreko urtean COVID-19 neurriekin Ibergarain ospatu bazen ere, aurten normaltasun osoz dator sanmartinetako tradizio egun hau. Barazki, fruta eta gazta azokaz eta lehiaketaz gozatzeko aukera egongo da 09:30etik aurrera. Aurten, bi kokaleku izango ditu azokak: alde batetik, San Martin plazan barazki, fruta eta gazta lehiaketei lotutako postuak egongo dira. Guztira, sei fruta eta barazki ekoizle eta beste horrenbeste gazta saltzaile izango dira. Bai-

ta bestelako postu batzuk ere; tartean, Ekoudalatx eta ezti ekoizleak. Bestetik, Seminarioko patioa hartuko du azokak eta han kokatuko dira gozogintza, arrain-kontserba eta hestebeteen postuak, besteak beste.

Salmahai horiez guztiez gain, San Martin plazan odoloste postua jarriko dutela iragarri du Bergarako Udalak, herriko Imaz, Leturia eta Urzelai harategiei esker. Halaber, eguerdian, Erlantz Olabarriak eztiaren eraldaketaren inguruko erakusketa egingo du Seminarixoan. Ondo-

ren, ekimen horretan ateratako eztiak dastatu ahalko da.

Maider Osa Kultura teknikariak azaldu duenez, indartu egin nahi izan dituzte ekoizleak, baita lehiaketa bera ere. Hori izan da aurten saltzaileak San Martin plazan kokatzearren arrazoia.

Azoka eta lehiaketa

Feriaren ezaugarrietako bat da lehiaketa bera; bai barazki eta frutena, baita gaztarena ere. Osak aurreratu duenez, barazki eta fruten kasuan, kontuan hartuko dituzte, hala nola, ekoizle-

bakoitzak ekarritako produktuen aniztasuna eta postuaren itxura.

Gaztari dagokionez, Idiazabal elkarteak etorriko dira gazta lehiaketara eta epaimahaiko kideak ere eurak izango dira. Osak baieztatu du 20 bat gaztagilek eman dutela izena, mo-

mentuz: "Hala ere, egunean bertan egongo da izena emateko aukera, San Martin plazara etorrita 09:30etik 10:30era bitartean".

Ortutik plazara

Beste urte batez hartuko dute parte azokan Bergarako Etxague Azpikoa baserriko Karmen Etxeberriak eta Elkorro baserriko Ane Gorosabelek. Biek sasoiko barazkiak izango dituzte salgai. Aurreko urtean, gainera, barazki lehiaketako hirugarren saria partekatu zuten. Uztari erreparatu, adierazi dute ekoizpena ez

Elektrohigadura

GRUPO
IAM

Ur-zorrotada bidezko ebaketa

Ur-zorrotada bidezko mikroebaketa

IAM
IAMCUT
IAMMICRO

Goi mailako
teknologia
bezeroaren
zerbitzura

GOKI

erreformak

Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.

*Aurten bai!
Gora
sanmartinak!*

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

dela hain hona izan beste urteekin alderatuta, dena eguraldia dela eta. Gainera, bat etorri dira lekaren uztaz hitz egitean: "Leka loratzeko arazoak izan ditugu. Beroarekin lore asko galdu da".

Debagoieneko egoeraz galdetuta ere, biak ados: "Oso makal dago. Geroz eta ekoizle gutxiago daude. Inguruko gazteek ogibidea utzi dute, zailtasunak dituztela ikusita".

Etxeberriak ezta ere ekoizten du, eta San Martin plazara eramango duela baieztatu du. Azaldu duenez, aurtengo denboraldia hobea izan da aurrekoarekin alderatuta; hala ere, arazoekin jarraitzen dutela: "Liztorra ari da sartzen, bete-betean dago. Barroa akaroaren arazoa daukagu".

Gorosabelek nabarmendu du halako azokak bereziak direla eta ez bertaratzen direnek ez dituztela asteko erosketak egiten. Jende kopuruaz galdetuta: "Aurreko urtean koronabirus neurriekin ospatu zen egun hau. Hala ere, ez dut uste jende gehiago ibiliko denik. Txukuna izan zen eta aurten berdin izango delakoan nago".

"Ekoizleok laguntzak behar ditugu"

Karmen Etxeberriak zortzi urte daramatza lehiaketetan parte hartzen. Barazkiez gain, fruta eta ezta ere eramango ditu. Azpimarratu du euren egoera ez dela oso ona: "Daukagun eguraldiak asko eragiten du, eta produkzioan igarri egiten da. Agintariak kontuan hartu beharko lukete, nolabait laguntzeko. Gure sektorea gogorra da".

Etxeberriak dio duela bi hilabete eman zutela izena azokan parte hartzeko. Kexu agertu da, ordea, egun gutxiren faltan postua non jarri behar duen ez dakielako: "Bost egun falta dira eta ez daukagu inongo informaziorik; ze mahaitan, ze lekutan izango garen. Lotsagarria da. Gutxienez, 15 egun lehenago jakin beharko genuke non kokatuko garen".



Karmen Etxeberria, Etxague Azpikoa baserriko produktuak saltzen. K.E.

"Nik neuk lehiak kenduko nituzke"

Ane Gorosabelek sei urte daramatza parte hartzen. Oraingoan, ordea, ezberdina izango da, duela gutxi Jon Patxi Ayastuy bazkidea gehitu zaiolako proiektura: "Hasi nintzenetik bakarrik ibili naiz. Uste dut pertsona berri honek lanpostua bera egonkortzeko balioko duela".

Lehiaketei ez die zentzu handirik ikusten, eta, ondorioz,

kendu egingo lituzke: "Bailaran oso gutxi mantentzen gara sektorean. Nik neuk gure arteko lehia hori kendu egingo nuke, behingoz. Estetikari ematen zaio garrantzia handia, eta uste dut ez dela egiten atzeko proiektuaren baloraziorik. Denok saiatzen gara gure ogibidea hortik ateratzen, eta, zerbait saritu nahi bada, hori saritu beharko litzateke".



Ane Gorosabel eta Jon Patxi Ayastuy azoka batean. A.G.

BANAKETA BERRIAK **ESTRA ASKOREKIN**

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak **140.000 €-tik aurrera** (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

**Berriz
ere**

lorentxoko

P25 · bizigune berria

Gure Lorentxoko maiteak berrasmatzen jarraitzen du eta Bergarako higiezin merkatuko etxebizitzarik ikusgarrienak eskaintzen dizkizu.

Oraingoan, bereziki pertsonalizatuak, maiteminduko zaituzten xehetasun guztiak eta, nola ez, GEn bermearekin.

Zatoz Lorentxokon oraindik eskuragarri dauden etxebizitza berriak ezagutzera.

**IRAILEAN BAKARRIK,
trasteleku bat oparituko dizugu
prezio horretan!!**

GE grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

E: comercial@grupoeibar.com
GRUPO EIBAR-EN BULEGOA: **943 31 66 11**
Email 1 · 20570 BERGARA. **650 44 21 59**

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Sanmartinetako danbor hotsa bueltan da. Hilaren 15eko helduen danborradan 700 lagunek baino gehiagok hartuko dituzte kaleak, 22:30etik aurrera. 426 danbor eta 117 barrikaz gain, San Martinen errepresentazioa egingo dute San Martin plazan. Denera, 22 taldek hartuko dute parte. Horietatik bi berriak izango dira: Pirañak eta Txiri taldeek astinduko dituzte makilak lehen-dabizikoz. Umeen txanda irailaren 16an izango da, baina Nagore Narbaiza Udaleko Parte-hartze teknikariak adierazi duenez, parte-hartzaile kopurua zehaztu gabe dago oraindik: "Ez dago izena eman beharrik. Astelehenean hasi ziren entseguak, baina egun hauetan jende gehiago animatuko da".

Bi urtez, danborrada egin barik eta "gogotsu" agertu da Narbaiza. Gainera, dio "kurioso" izan dela danborradaren bilakaera: "Duela urte batzuk, gainbeheran zegoen erabat. Oso talde gutxik hartzen zuten parte, eta gazteek ez zuten parte hartzen. Udaletik hasi ginen sustatzen bai emakumeen par-



2018ko sanmartinetako danborrada, plazan. GOIENA

Danbor-hotsak kaleetan zehar

'Lagun artean' eta 'Danbor txikia' martxak joko dituzte lehen aldiz; azken hori Musika Bandako zuzendari Enrike Txurrukak konposatu du eta Pello Garitanori eskainia da

te-hartzea, baita jende gaztearena ere. Gaur egun, parekidea da, eta geroz eta gazte gehiago ateratzen da".

Esker ona Pellori

Duela hilabete batzuk zendu zen Pello Garitano. Bergarako Musika Bandako zuzendari Enrike Txurrukak baita Nagore Narbaizak ere argi daukate Garitano hurren danborradako "ari-ma" dela. Hurren nahiz helduen danborradan ere utzi du arrastoa, eta hura omentzeko Txurrukak *Danbor txikia* izeneko pieza konposatu du: "Uztaileko bileran, danbor taldeek erabaki zuten Pellori omenaldia egitea, danborradan urtero egin duen lanagatik. Pentsatu zen eskertza polita izan zitekeela martxa bat eskaintzea, eta niri proposatu zidaten konposatzea".

Gustura konposatu duela dio Txurrukak: "Pello bezalako jendeak, herrigintzan parte hartzen dutenek, horixe irakatsi digute: gauzak egiteko, besterik ez dela behar, egitea. Beraz, ekimen polita irudituta, pozik hartu nuen eskaera". Gainera, piezaren hasierak badu berezitasuna,

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatara
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Ondo ibili
sanmartinetan!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain

ALFONBRAK

Pelloren izen-abizenen bokaletan oinarritutako notez baitago osatuta.

Halaber, ez da pieza berri bakarra izango. Igor Larrañaga bandako zuzendariordeak konposatutako *Lagun artean* pieza estreinatu zuen kontzertu batean bandak. Danborradan ateratzen den Lokatza taldeari eskainia da, eta hau ere aurten joko da aurreneko aldiz.

San Martinen errepresentazioa

Hasiera batean, haurren danborradan egiten zen soilik San Martin Agirreren erailketaren errepresentazioa, baina Valen Moñuxek adierazi du duela hamar urte sartu zutela helduenean: "Alde batetik, danborren taldeak daude. Beste zatia errepresentazioa da, Japoniakoa. San Martin Agirre Japoniara joan zelako eta han eraili zutelako. Aspaldi erabaki zen Japoniako giroa sartzea Bergarako danborradan. Gure taldean, danbor-joleak japoniar jantzen dira, karrozan ere geishak eta bes-telako figurak joaten dira". 23:30ean hasiko da ekitaldia, San Martin plazan.



ENRIKE TXURRUKA MUSIKA BANDAKO ZUZENDARIA

"Danbor-jole txikiengatik deitzen da 'Danbor txikia'"

"Pello beti ibili da mila saltsatan laguntzen, baina, bereziki, umeen danborradaren motorra izan zen urte askoan. Horregatik deitzen da *Danbor txikia*, danbor-jole txikiengatik. Aukera bezala hitz egin zen etorkizunean danborrada txikian jo ahal izatea; beraz, martxa erraza da: haurrentzat pentsatuta dago, haur abesti baten antzerakoa da. Martxak hitzak ere baditu, eta, hari ez ezik, urte hauetan danborradan erakusten ibili diren eta etorkizunean ibiliko diren guztiei buruz hitz egiten du".



VALEN MOÑUX JAPONIARREN TALDEKO ZUZENDARIA

"Pena da, baina ez da dantzaririk egongo aurten"

"50 lagun inguruk hartzen dugu parte. Beste taldeak, normalean, koadrilak edo elkarteetako jendea izaten da. Gurean, musikaletan eta antzerki munduan sartuta dagoen jendea gaude. San Martinen martirioa errepresentatzen ateratzen dira frantziskotarrak, soldaduak, samuraia zaldian... Musika ezberdina da, gurea ekialdekoa baita. Aurten, pena da, baina ez da dantzaririk egongo. Dantza irakaslea gaixotu egin da, bajaran dago eta ezin izan du koreografia prestatu. Hala ere, zerbait polita egingo dugu".



NERE IBARRA DANBARRARA TALDEKO ARDURADUNA

"Ederra da ikustea gazteek taldeak nola sortu dituzten"

"Asko gustatzen zait danborradan ateratzea, oso egun polita izaten da. Herritarrontzat egun garrantzitsua da. Gu hasi ginenean, askoz gutxiago ginen. Poliki-poliki, gazteak hasi dira sartzen. Ederra da ikustea zelan gazteek euren taldeak sortu dituzten. Gure taldean denok neskak gara, baina, berez, mistoa da; ez dugu lortu taldean mutilik sartzerik. Danborra jotzen hasi ginen, baina, barrika gutxi zeudenez, aldatzeko eskatu ziguten. Danbor asko daude, eta jendea barrika jotzen ateratzeko animatzen ari gara".



ASIER MUÑOZ TXIRI TALDEKO ZUZENDARIA

"Barrika jotzea danborra jotzea baino zailagoa da"

"Lokaleko 30 mutil aterako gara, adin askotariko bizpahiru kuadrilla, eta aurten hartuko dugu parte lehen aldiz. Norbaitek aipatu zuen izena emateko, eta dezente animatu ginen. Bergarakoa izanda, egun ederra da. Hasieratik prest nengoen zuzendari izateko; konpromisoa izan behar da. Barrikak egokitu zaizkigu. Danborra jotzea baino zailagoa da. Egia esanda, lehenengo entsegua desastrea izan zen. Hobetzen joango gara. Bandera egin dugu, eta janzkera bilatzen nahiz antolatzen ari gara".

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoia
Horma-Armairuak
Altzariak neurria
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com






INDUSTRIAS **FEGAR, S.A.**

www.fegar.com



Ondo ibili sanmartinetan!



Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo, Elgoibarko San Bartolome jaietako dantza solte txapelketan. ^{BARREN.EUS}

Galarraga eta Murgiondo, bikote faboritoen artean

Moises Azpiazuren omenezko 37. dantza askatu txapelketa hilaren 17an jokatu da Seminarioan. Bergararrak gogotsu daude; Elgoibarko txapelketa irabazi dute aurten, eta aurrean ibili dira gainerakoetan. Hori bai, erraza ez da izango

Larraitx Zeberio Lekuona BERGARA Bihar amaituko da Bergarako Dantza eta Musika Eskolak urtero antolatzen duen dantza askatu txapelketan izena emateko epea. Hala, bihar arte ezin jakin ziur zenbat bikote izango diren lehian. Oraingoz, zazpik eman dute izena eta tartean dira, nola ez, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrak. Udan lehiaketa asko jokatzeko dira, eta dantzariak ondo ezaugutzen dute elkar. Faborito nagusiei buruz galdetuta, bergararrek Gorka Granada eta Maren Galvez aipatzen dituzte. "Azpeitiko Laura Bastida eta Ekain Uzkudun ere maila oso onean daude, baina uste dut ez direla Bergarara etortzekoak", esan du Murgiondok.

Elgoibarko San Bartolome jaietako txapelketa irabaztetik datoz Galarraga eta Murgiondo. Maila ona dute, baina ez dira bakarrik. "Ordutik, pare bat txapelketa jokatu ditugu, eta bigarren eta hirugarren postuak lortu ditugu". Dena den, gogotsu daude herriko txapelketarako. "Bai, herriko txapelketa beti izaten da berezia. Presioa han-

diagoa da, baina gozatu ere asko egiten da. Aurten, gainera, nahiko ondo gabiltza. Denbora gutxiago izan dugu entseatzeko, baina uda ondo doa".

Galarragak eta Murgiondok ondo ezagutzen dute elkar. Badira zortzi bat urte txapelketaz txapelketa dabiltzala elkarrekin. Badakite Moises Azpiazuren omenezko txapelketa irabaztea zer den. 2019an eta 2020an jantzi zuten txapela. Iazkoa Oarsoaldeko Katerin Artolak eta Iker Belintxonek eraman zuten. Bergararrak Euskal Herriko dantza txapelkunak ere izan dira 2019an.

Ikuskizuna, ziurtatuta

Maila handiko dantzariak elkartuko dira hilaren 17an Bergaran. Txapelketa Seminarioan jokatu da, 20:00etan hasita. Bergararrez gain, oraingoz izena emanda dauden bikoteak hauek dira: Maren Galvez-Gorka Granada (Lezo-Sopela), Alaia Amubieta-Amets Amubieta (Azpeitia), Nahia Urkizu-Ione Aranberri (Azpeitia-Itziar), Ane Jaunarena-Endika Osa (Lezo) eta Iker Urrestilla-Leire Urrestilla (zestoa).

itesa

Ondo ibili sanmartinetan!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

IKAZKIN TRAIL, ARETXABALETAKO I. MENDI LASTERKETA

GOIENA TELEBISTA, 'HARMAILATIK' SAIOA
IRAILAREN 12AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



'África' musikalaren zati ikusgarrienak kalez kale

Atzotik eskuragarri daude 'África, las dos orillas' musikalaren estreinaldirako sarrerak. Urriaren 1ean eta 2an eskainiko dute Seminarioan. San Martin jaietako azken egunean, ordea, kalera aterako dituzte pasarterik ikusgarrienak

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA
Pandemiak eraginda hainbat aldiz atzeratu ostean, urriko lehen aste bukaeran izango da, azkenean, musikalaren estreinaldia. Bergarako Musika Eskolako ikasleak, artista gonbidatuak eta dantzariak arituko dira eta sarrerak eskuragarri daude *seminarixoa.eus* atarian zein aretoko leihatilan –eguzten arratsaldeetan–. Ikuskizunak Afrika du esentzia nagusia eta Donato Goienetxeren musika piezak ditu oinarri. "Irailean berrekin diogu entseatzeari eta prestaketa lanetako azken txanpan gaude. Lizarran egindako aurre-estreinaldia oso ondo joan



África, las dos orillas musikalaren pasarte bat. MIKEL LEGARISTI

zen, eta ikusita ikuskizunak pasarte eta koreografia oso koloretsuak eta indartsuak dituela eta oso egokia dela kalean ere erakusteko, pentsatu dugu musikalaren aurrerapen bat egitea San Martin jaietan herriko hainbat puntutan", azaldu du eszena zuzendari Valen Moñuxek.

Hamabost minutuko emanaldiak
Ordu laurdeneko hainbat pasarte aukeratu dituzte kalez kaleko agerraldirako. "Tbilbidea ez dugu guztiz finkatuta; ikusi behar dugu ze eguraldi izango dugun, baina, ziurrenik, Espolotik abiatuko gara eta joango gara herriko leku esanguratsuenetara, herritarrek ikus dezaten musikalaren aurrerapen bat. Ez dugu dena erakutsiko, noski!".
Moñuxek azaldu du hilaren 18ko kale agerraldian 40 bat lagunek hartuko dutela parte. "Afrikar jatorriko bost dantzarik, 30 bat kantarik eta sei musikaririk", esan du.

Afrikako lo-kanta bat oinarri
Afrikako lo-kanta bat du oinarri *África, las dos orillas* musikalak eta kanta zentral horretatik

abiatuta iragan bat eta etorkizuneko egoerak sortzen dira. Neurri handi batean, herrian eta herritik sortutako ikuskizuna da, nahiz eta dantzari taldea Irundik datorren. "Ikusgarriak dira. Merezi du, benetan, dantzan ikustea", ziurtatu du Moñuxek.

Bergarako Musika Eskolako ikasleekin osatutako ikuskizuna da eta jantziak Ndank Ndank elkarteko lagunek egin dituzte. Dekoratuak, berriz, Valen Moñuxenak dira.

Musikalak, osorik, pare bat orduko iraupena du. San Martin jaietan pasarte esanguratsuak erakutsiko dituzte eta afrikar doinuak eta dantzak ekarriko dituzte festetara. "Bi aukera daude, eta bietara gerturatzeko esango nieke bergararrei, bi formatuak izango direlako oso ikusgarriak".

Hilaren 18ko emanaldi ibiltaria 18:00etan hasiko da. Seminarioko ikuskizunak urriaren 1ean 19:00etan zein 22:30ean eta urriaren 2an 19:00etan izango dira. Estreinaldia gazteleraz izango da. Lantaldeak euskarazko emanaldia ere prestatuko du; 2023rako aurreikusten dute.



Aurten bai!
Gora
sanmartinak!

construcciones
Goitu
eraikuntzak S.L.

Aurten bai!
Gora sanmartinak!



- Eraikuntza orokorra • Fatxadak • Teilatua
- Terrazak • Birgaitze orokorra • Baserriak
- Unifamiliarrak • Pabilioiak • Proiektuak...

Tel.: 943 76 11 23 - Faxa: 943 76 30 41 | Masterreka 14-16 / 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
goitu@grupogoitu.com | www.grupogoitu.com



Bergarako Lord Witch heavy metal taldea. LORD WITCH

Metal gaua Buztinzuri auzoko lehen jaietan

Gaurtik domekara bitartean, askotariko ekintzak antolatu dituzte Buztinzuri auzoko lehen jaietan. Denondako jai parte-hartzaileak egitea izan dute helburu antolatzaileek. Gaur, egubakoitza, 19:00etan emango diete jaiari hasiera herriko trikitilari gazteek

Maidar Arregi ANTZUOLA

Lehenengoz ospatuko dira Buztinzuri auzoko jaiak, gaurtik domekara bitartean. Egitarau zabala antolatu dute, ahalik eta jai parte-hartzaileenak izan daitezten. "Denendako festa antolatzen saiatu gara; kontzertuak, ekintzak... denen gustukoak izan daitezten ahalegina egin dugu. Haurrentzako jolasak egongo dira, ekintza gastronomikoa ere antolatu dugu eta gauerako kontzertuak", azaldu du Alaitz Jauregi Buztinzuriko jaietako antolatzaile taldeko kide eta auzotarrak.

Giroa alaitzea ere badute asmo: "Oporrak amaitu dira eta oraindik ere aisiadirako ekintzaren bat egotea nahi genuen. Sasoi gogorra ere badatorkigu, eta animoa ere beheraka joaten zaitu aro honetan. Helburua herria alaitzea eta giro ona aprobetxatzea da, herritarrei dibertsiorako aukera emateko. Pintxo-pote baten bueltan auzotarren artean jaiotako ideia izan da".

Gastronomia

Ondorengo egunetan jana eta edana ez da faltako Buztinzurin. Izan ere, zaturako, patata-tortilla lehiaketa antolatu dute. Parte hartzaileek, baina, etxetik eginda eraman beharko dute tortilla. "Gazteek ere parte hartzen nahi dugu; hala, trikitilari gazteak ditugu, gastronomia lehiaketa ere egingo da eta pintxo-txotxa izango da, nahi duen oro gerturatu dadin".

Rock eta metal gaua

Musikari dagokionez, pisu handiko kontzertuak antolatu dituzte. Patxi Luque musikari eta antolatzaileak jardun du kartela osatzeko lanetan: "Gaur, 22:00etan hasita 61, String talde

GAUR, TRIKITILARI GAZTEEN EMANALDIA, AUZO POTE OA ETA KONTZERTUAK IZANGO DIRA BUZTINZURIN

bergararra izango dugu; ondoren, 00:00 aldera, neuk jardungo dut oholtza gainean. Zapatuan, 21:00etan, Azkaiter Pelox bergararraren pop-rock doinuak izango ditugu, eta ondoren, estiloz aldatu eta metal doinuak izango dira nagusi: 22:00etan Oñatiko Letagin taldea, 23:00etan Itinerum arrasatearrak eta 00:00etan kartel-buru diren Lord Witch bergararrak".

Gaurtik domekara

Gaur, arratsaldeko zazpitan, herriko trikitilari gazteek emango diete hasiera jaiari eta auzo-poteoa egingo dute; gauean kontzertuak izango dira. Zapatuan, aldiz, 12:00etan, patata-tortilla lehiaketa egingo da, 17:00etan gaztetxoendako eta haurrendako jolasak eta 18:00etan mus txapelketa; gauean, rock eta metal kontzertuak.

Domekan, berriz, auto klasi-koen erakustaldia egingo da, 11:00etan hasita, eta 13:00etan pintxo-txotxa.



EMAKUME MASTER CUP

Galeano, Lekeition txapeldun

Lekeitioko I. San Antolin Torneoa jokatu zen zapatuan. Leire Galeanok 18-11ko emaitzarekin irabazi zion Ainhoa Romerori. Orekatua eta berdindua izan zen partida hasiera, baina hamarnako berdinketaren ostean etorri zen alde. Antzuolarrak daukan errematerako gaitasunari esker bereganatu zuen markagailua.

Errasti, lehen gipuzkoarra

Junior mailako munduko txapelketako atariko proba jokatu zen irailaren 4an Beasainen. Unax Errasti antzuolarra 15. helmugaratu bazen ere, lehen gipuzkoarra izan zen. Ulma taldeko txirrindulariak 115 kilometroko distantzia egin zuen batez besteko 41,7 kilometroko abiadurarekin. Irabazleak minutu eta 38 segundoko alde ateratu zion.



@GTXF_

OHARRAK

Fernando Lete gogoan

Zapatuan, 18:00etan, Fernando Lete herriko eragilearen omenez meza esango da parrokan. ETBk grabatuko du eta domekan eskainiko dute. Hilaren 17ko eta 24ko mezak ere grabatuko ditu eta hurrengo egunean eskainiko dira.

Odola emateko aukera

Irailaren 20an, Torresoroan odola emateko urteko azken aukera dago, 16:30ean. Goizean eskatu beharko da txanda: 943 00 78 85.

Memoria tailerra

Landatxoek antolatuta, memoria tailerrean izena eman daiteke hilaren 12an eta 13an, 17:00etatik 18:00etara, bulegoan. Tailerra hilaren 21ean hasiko da eta hamar saio izango dira.

Lodosara txangoa

Landatxoek hilaren 27an Lodosara irteera egingo du. Izena eman daiteke hilaren 12an eta 13an, 17:00etatik 18:00etara, bulegoan. Landatxoeko bazkideendako egun osoko txangoak 35 euroko prezioa dauka; gainontzekoendako, 40 euro. Informazio gehiagorako, deitu 687 83 12 13 telefonora (Joxe Anjel Arbulu).

128 ikasle ikasturte honetan Herri Eskolan

Ikastetxeak iaz baino lau ikasle gehiago izango ditu, eta gehienek atzo eman zioten hasiera ikasturteari. Maskararik eta burbuila talderik gabe hasi dira aurtengoa; pandemia aurreko jardueretara bueltatzeko aukera emango du horrek

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Bi hilabete pasatxoko oporren ostean, atzo izan zuten ikasturteko lehen eskola eguna Elgetako Herri Eskolako ikasleek. Zuzendaritzak azaldu du 128 ikasle izango dituela ikastetxeak 2022-2023ko ikasturtean; aurrekoan baino lau gehiago. Irakasle taldea, berriz, hemezortzi lagunek osatuko dute. "Maila bakoitzak bere gela izango du. Haur Hezkuntzan lau talde eta Lehen Hezkuntzan sei", zehaztu dute. Atzo, eguena, goizeko jardunaldia izan zuten ikastetxean. Gaur jaieguna da, eta astelehenean hasiko dira goizeko eta arratsaldeko jardunaldiarekin.

Ikasturte hasierako guraso bilerei dagokienez, martxan dira dagoeneko. Eguaztenean egin zuten 2 urteko gelako gurasoena, eta gainerakoak hilaren 20ra bitartean egingo dituzte.

2 urteko gelan hamalau ume

Lehen eskolaratzeak hamalau izango dira aurten. Haur horiek astelehenean hasiko dira egokitzapen prozesuarekin eta urriaren 3an hasiko dira ohiko jardunaldiarekin.

COVID protokolorik gabe

Aurreko bi urteetako kontingentzia planik gabe hasi dute ikasturtea ikastetxe guztietan. "Albiste oso ona da. Pandemia aurreko jarduerak berreskuratuko ditugu: taldeen arteko ekintzak, jolastokian denok elkarrekin egoteko aukera... Hori bai, Osasun Sailaren eta Hezkuntza Departamentuaren gomendioak jaso ditugu eta eskola komunitatean zabaldu ditugu". Proposatutako neurrien artean dira, besteak beste, espazioak aireztatzea, txertaketa gomendioak jarraitzea edo eskuak garbitzea eta arnas higienea zaintzea.

LOMLOE legearen ezarpenaren zein Hezkuntza Lege berriaren ikasturtea izango da honako



Ikasle taldea eskolara sartzen, atzo. L.Z.L.

LUDETEKAK ASTELEHENEAN IREKIKO DITU ATEAK; ZABALIK DA IZEN-EMATEA

hau. "Aurreko ikasturteetan emandako pausoak norabide berean badoaz ere, aldaketak inplementatzen joango dira. Irakasleek formakuntza jasoko dute, eta familiak informatuz jolastokio gara".

Abuztuan lanak eskolan

Udalak hainbat lan egin ditu abuztuan ikastetxean. "Lau ikasgela, irakasleen gela eta beheko solairuan bi horma margotu dituzte. Beharra zegoen lehengo solairuko gelak margotzeko. Bestalde, Haur Hezkuntzako jolastokian biltegi bat egin dute, materiala gordetzeko espazio falta baikenuen. Emaitzarekin oso gustura gaude".

Haur Eskolan hiru erabiltzaile

Haur Eskolak eguaztenean zabaldu zituen ateak erabiltzaileendako. "Hiru familiak eman

dute izena, eta bi hezitzaile gaude", azaldu du Laura Martinek. "Edozein momentutan etor daiteke haur eskolara informazioa eskatzera eta matrikulatzera. Hori bai, haurra hasteko data baino hamar egun lehenago, gutxienez, eta hilabete bat lehenago, gehienez".

Ludoteka eta musika eskolak

Eskolaz kanpoko jarduerak ere hasita daude poliki-poliki martxa hartzen. Ludoteka zerbitzuak astelehenean zabalduko ditu ateak, eta aste honetan ireki da izen-ematea. Aplikagarriak diren hobariak kontuan hartu gabe, ikasturteko kuota 280 eurokoa da, eta hilekoa 40 eurokoa. Ikasturte honetan aukera egongo da bost eguneko bonuak erosteko. Prezioa 20 euro da. Nerea Villak jarraituko du ludotekako hezitzaile lanetan, eta, aurreko ikasturteetan moduan, haurrak eskolatik jasotzeko aukera emango du zerbitzuak. Lorea Larrañagaren musika eskolei dagokienez, hasita daude eguaztenetik. Udal kirol zerbitzuetan, berriz, ate irekiak egingo dituzte iraileko azken astean. Etor Garatek jarraituko du monitore lanetan.

80 urtetik gorakoen bazkaria berreskuratuko du Xalbadorpek

Erretiratuen elkarteak eguenerako antolatu du 2019tik egiten ez den bazkaria; 32 lagunek eman dute izena

L.Z.L. ELGETA

Badator, poliki-poliki, normaltasuna, eta Xalbadorpe elkarteak zuzendaritzak erabaki du pandemia aurretik bi urtean behin egiten zen bazkaria berriz ere antolatzea. Elkarteak presidente Jose Antonio Ojangurenekin emandako datuen arabera, 80 urtetik gorako 54 lagun daude herrian, eta guztiek jaso dute gonbidapena. Parte hartzea baieztatu dutenak 32 dira. Bazkaria Ozkarbi elkartearen izango da, 13:30ean. Aurretik, 12:30ean, meza entzungo dute.

Irteera Uxuera

Erretiratu elkarteak, bestetik, egun osoko txangoa antolatu du Uxuera hilaren 21erako. Parte hartzeko ezinbestekoa da izena ematea, eta domekan izango da horretarako aukera Ozkarbi elkartearen, 11:00etatik 12:30era. Prezioa 30 euro da.

Podologoa erretiratuendako

Iraileko kontsulta hilaren 19an izango da. Interesatuak lehenbailehen deitu behar diote Maite Elkorori. Telefono zenbakia 669 99 81 65 da.



L.Z.L.

Sua frontoi azpiko belardian

Argitzeke dago zerk eragin zuen sua, baina domeka arratsaldean hura itzaltzeko lanetan ibili ziren hainbat lagun. Frontoi zaharraren azpian dagoen belardia erre da, errepidera jaisteko eskaileren parean dagoena, eta nahiko eremu zabalean. Sargori zegoen, aspaldian ez du euririk egin, eta erraz zabaldu zen sua. Guztiz belztuta dago erretako eremua.

OHARRAK

Irakurketa talde feminista

Ikasturteko lehen saioa eguaztenean izango da, 18:30ean, liburutegian. Gaia da: *Berdintasuna LGTB+ mugimenduan*.

Baserritarren azoka hilaren 17an

Baserritarren azoka eta Intxortako igoera izango dira Elgetan hilaren 17an. Gazteendako tirolina ere bai. Zabalik da azokan postua jartzeko izen-ematea udaletxean.

Mendi taldeak Maizara irteera hilaren 18an

Urbanan dago Maiza tontorra (1.183 metro), eta Bakaikutik abiatuta lau bat orduko ibilaldia antolatu du Kantsatzekek. Izen-ematea zabalik da eguenera arte. Prezioa hamar euro da.



Natur Eskolako langileak eta nutrizionistak elkarrekin. AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN

Zaintzarako tresnak elikaduraren bitartez

Naturari entzunda, auto ezagutza landu eta zaintza pertsonalerako tresnak eskainiko dituzte, elikaduraren bitartez, Natur Eskolak eta bi nutrizionistak elkarrekin antolatu dituzten tailerretan. Hamaika jardunaldi egingo dituzte eta herritar guztiendako dira

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Naturaren erritmoak kontuan izan eta ongizate integral eta elikadura osasuntsua eta jasangarria ardatz izango dituzten proposamenak eskaintzeko proiektua landu dute Natur Eskolak eta Orekan Jan eta Izaneko Amaia Diaz de Monasterioguren eta Amaia Ayerbe nutrizionistek. Naturari entzunda autoezagutza landu eta zaintza pertsonalerako tresnak eskainiko dituzte, elikaduraren bitartez.

Natura eta norbera

Tailerren bitartez egingo dute eskaintza hau. Hamaika egingo dituzte, urrian hasita, hilean bat. Osasunaren gakoak diren gaiez hitz egingo dute; adibidez, elikadura, loa, harremanak, kirola, eta mugimendua eta emozioak. "Elikadura da osasunaren ardatz nagusienetako bat eta hori landuko dugu, esaterako, tailer hauetan. Ikasiko dugu ere naturari begiratzen eta naturaren eta gure gorputzaren arteko

Udazkeneko tailerrak

ELIKADURA OSASUNTSUA

- **Eguna:** Urriak 8.
- **Gaia:** *Elikadura osasuntsurako planifikazioa.*
- **Natura lanketa:** *Erreka.*

GURE OHITURAK AZTERTUZ

- **Eguna:** Azaroak 12
- **Gaia:** *Kontsumo kontzientea.*
- **Natura lanketa:** *Onddoak, ezezagun handiak.*

GABONAK

- **Eguna:** Azaroak 17
- **Gaia:** *Gabonetara begirako prestaketak.*
- **Natura lanketa:** *Ideia osasuntsuen lanketa.*

antzekotasunak ikusten. Orain, esaterako, udaberriko loraldia- ren eta udako fruitu festaren ondoren, atsedean hartzeko garaia hasiko du naturak, udaberrirako berriz prest egoteko. Guk ere badugu deskantsatzeko beharra. Sasoi honetan birrikak dira, esaterako, arnasketa, gure gorputzeko organo funtsezkoenetako batzuk. Eta justu horiek zaintzeko lagungarriak diren fruituak ematen dizkigu naturak udazkenean", jarri du adibide moduan elikaduran aditu Amaia Diaz de Monasterioguren oñatiarrak. "Naturari entzunda, gure buruaren, gorputzaren eta naturaren alde asko egingo genuke".

Herritar guztiendako

Natur Eskolan egingo dituzte tailerrak, hilean behin, zapatuetan, goizez. Gai eta lanketa zehatzak jorratuko dituzte saio bakoitzean eta herritar guztiendako izango dira. Interesa duenak aurrez eman behar du izena: 651 70 17 41.

Entseguak antolatuta eta Herri Eguneko azoka martxan

Nagusien danborradako lehen entsegua datorren eguaztenean, hilak 14, egingo dute, 20:00etan. 19an eta 21ean izango dira hurrengoak eta 26an azkena. Denak izango dira Eltzian, 20:00etan. Aurtengo kintoak ere aterako dira dantzan danborradan, eta hasi dituzte entseguak. Eltzia ondotik pasaz gero entzuten dira danborradako doinuak, dantza

prestatzen ari direlako batzuk eta danborra jotzen ikasten ari direlako beste batzuk. Izan ere, umeenean parte hartuko dutenak ere hasi dira entseatzen.

Nekazarien Elkartekoak ere buru-belarri dabilta Herri Eguna antolatzen. Urriaren lehen izango da, eta ganadu azokan, gazta lehiaketan zein fruitu, barazki, lore eta landare erakusketetan parte hartu gura dutenek hilaren 13a aurretik eman beharko dute izena base-rritarren elkartearen.

GORA ETA BEHERA



Ispilua apurtuta Garagaltza auzoan



Santipillau baserri gainean, Garagaltza auzoan, dagoen ispilua apurtuta dagoela jakinarazi du herritar batek, argazkia bidalita. Gaineratu du aspalditik dagoela egoera horretan.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Arantzan Zu!

Urtero bezala, gaurko egunez erromesak hitz hauek esango dizkio Arantzazuko Amari: "Erromesen arreba, bideko Andre Mari, gure fede-bidean zu zeu ibiltari. Emaiozu bihotza gure bideari, zure aintza dezagun helmugako sari. Ez dizugu eskatzen kentzeko arantzik, ezta ere gozatzeko gure bide latzik. Gizadi berri baten esperantza baizik, gure pozak ez dezan sekula arratsik...".

Aspalditik datorren historia da. 1468. urtean Baltategiko Errodrigok, arantza artean, Mariaren iruditxo aurkitu zuen. Garai odoltsuak ziren haiek euskal gizartearentzat eta baketzerako dei eta zeinutzat ulertu zen irudiaren aurkikuntza. Berehala bidea ireki, eta elorriko Amarentzat ermita bat eraiki zen, eta ordutik, askoren bihotzean bakea eta poza isuri du ibaiak.

"Zelako erokeria!", pentsatuko du inork, akaso, harrizko irudi txiki horri begira jarrita horrelako festa nola egin daiteken ulertu ezinik. "Zelako emakumea!", esan du beste batek, harri eta zur, begiak itxita Andre Mariari begira-begira zegoelarik.

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Beste herri batzuetan bertako kantuak egon badaudela eta kantatzen direla baina Oñatin ez daudela jasota ikusita, ez modu orokorrean, behintzat, bilketa hori egitea eta batutakoak herriratzea pentsatu dute Mirari eta Arantzazu Sagarzazu Sacristan ahizpek. Horretan ibili dira azken urte honetan, eta egun hauetan atera dute produktua kalera: *Kantakerixak*, hamaika musika pieza batzen dituen lana.

Kantuak, testuak, poemak

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa izeneko graduondoa egin dute biek eta titulaziorako euren proiektua izan da hau, bide batez. Bertso mundua gustuko dute biek, eta, bakoitzak bere aldetik duen jakin-minarekin, antropologiaren ingurukoak Arantzazuk eta arte ederrarekin lotutakoak Mirarik, lanari ekin zioten, musikarekiko biek duten zaletasuna ahaztu barik.

XIV. mendetik gaur arteko kantuak batu dituzte. "Antropologo moduan, baserrietan ibili izan gara elkarrizketak egiten, artxiboetan ere bai bilaketak egiten, eta testu eta kantu ezberdinak agertu dira. Disko honetan jaso ditugun batzuk batuta genituen eta beste batzuk propio enkarguz eskatutakoak dira. Testu horiei gorputza eta interpretazioa ematea falta zen eta hori musikariaren eta artisten lana izan da gurea baino gehiago", azaldu du Arantzazuk.

Kantu zaharrena, Urrexolakoa

Batutakoaren artean irizpide jakin batzuk erabili dituzte aukeraketa egiteko: euskaraz izatea, Oñati zeharkatzea eta garai ezberdinak agertzea. Horretaz gain,



Mirari eta Arantzazu Sagarzazu Sacristan ahizpak, argitaratutako lana eskuetan dutela. IÑIGO PALACIOS ANDUAGA

Lehengo kantuak jaso eta herriratu egin dituzte

Lehengo hamaika kantu eta kontu jaso, musikatu eta 'Kantakerixak' izeneko diskoan batu dituzte Mirari eta Arantzazu Sagarzazu ahizpek, herritarrek eta bertako musikariek jarrita ahotsa eta doinua. Emanaldi ireki bat egiteko asmoa ere badute

genero ikuspegiari ere eman diote garrantzia, bai testuen aukeraketan, baita geroko interpretazioan ere. Gaitegi ezberdinak agertzen ere ahaleginu dira: baserrikoak, eliz kontuak, jauntxoak... "Garbi genuena zen aniztasuna agertzea gura genuela, eta gero, garrantzia ematea normalean bigarren mailan gelditu diren aspektu batzuei.

Beste gauza bat ere sartu da: musikariaren barrutik ateratakoa. Musika aldetik ere zabala izan dela. Tradizionala edo klasikoa dago –tronpa bat, piano bat...-, eta baita estudioko grabaketak, ahotsen modulazioak barne –patxaran-botila, peñaparda, heavya, hardcore estiloak...-".

Izan ere, lehengo kantu, testu eta poemai hainbat herritarrek

eta beste musikari askok jarri diete ahotsa eta doinua. Euren-gandik biengandik irtendako proiektura herriko talde eta pertsona asko batu dira. "Aniztasun horretan jarraituta, parte-hartzaileen artean adin ezberdinak egon dira. Hasi 5 urteko umeetatik eta 80 urteko herritarrenaino. Gizon zein emakume daude euren artean

eta denek borondatez hartu dute parte. Batzen dugun dirua izango da gastuak ordaintzeko eta zabaltzen jarraitzeko; soinu teknikariaren lana eta erreproduktzioak baino ez dira pagatu, dena doan izan da", zehaztu du Mirarik. Eta gaineratu: "Sormen prozesua ere ezberdina izan da musikari bakoitzarekin. Batzuei kantua eta doinua eman genien eta interpretatu egin dute. Beste batzuei letra pasa diegu, doinurik gabe, ez dagoelako jasota. Eurek sortu dute doinua eta sekulako oparia egin digute. Eurek sortutako doinuekin geldituko dira kantu horiek".

Guztira, hamaika pieza batu dituzte *Kantakerixak* lan honetan. Horieta zaharrena, *Urrexolako lekaioa* izenekoak. Felipa Urkiak idatzitako *Ama kantuzalearen bertsoak*, *Zirulen* kantu bihurria, atzean historia gogorra duen *Sandailia* kanta eta Oskorriekin ezaguna egin zena eta letra osoa topatzea lortu duten *Hortxe goiko-goiko* dira beste kantetako batzuk.

Parte-hartze handia

Bizarro, Lizargarate Trikiti Elkarteak, Osaba kimu, Aitor Regueiro, Ane Irazabal, Jose Mari Anduaga, Loli Ordoki, Maider Arregi, Beatriz Irizar, Itziar Ugarte, Hidenao Dohino eta Mikel Sagarzazu dira parte hartu dutenetako batzuk. Horiez gain, esker oharrean dioten moduan, baita etxeko ateak zabaldu dizkieten herritarrak.

IRIZARREN ETA ARRANON DAGO SALGAI; JAIETAN ERE JARRIKO DITUZTE SALMENTA POSTUAK



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!



Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Ikastetxeak Kantari egitasmoa berreskuratu dute

Pandemiak eraginda, azken bi ikasturteetan ez dute Ikastetxeak Kantari egitasmorik egin, baina egingo da hasi den honetan. Herriko hiru ikastetxeetan eskainiko den aukera izango da, Ganbara faktoriaren eskutik.

Astelehenean, irailak 12, hasiko du ikasturtea Ganbara faktoriak, *Eman Like kulturari* leloarekin, eta egitasmo hori da

proiektuz beteta dagoen ikasturte berriaren berritasunetako bat. Egingo dituen emanaldien artean, nazioartekoak izango dira batzuk eta herrikoak beste asko; horien artean, hurbilena azaroan egingo den *Gure Aita Madina* izenekoa; Ganbara eta Hots abesbatzek parte hartuko dutena. Gabonetarako ikuskizunak ere zehaztuta dituzte, baita 2023ko hainbat ere.

Ikasturte hasierarekin batera zabaltu dituzte Ganbarako laguntzaile edo bazkide kanpainak.

Jaiak dira asteburuan Atzeko kalean eta Arantzazu auzoan

Erraldoiekin eta txorimaloekin hasiko dituzte Atzeko kaleko jaiak gaur, egubakoitza, eta domekara bitarteko egitaraua prestatu dute. Musikari dago-kionez, Aretxabaletako Nhil eta Oñatiko Letagin eta Lizartxo izango dira gaur, 22:00etan, zuzenean. Bihar, Los Zopilotes Txirriaos taldea eta domekan, musika bandaren kontzertua

eta Gauargi. Poneyak, mus txapelketa, garagardo dastatzea eta bestelakoak ere izango dira musika emanaldiez gain. Gaur, egubakoitza, esaterako, patata-tortilla pintxoak banatzen egingo dira Hotz Oñati taldeko kideak, 20:00etan.

Arantzazun, bestalde, patata-tortilla lehiaketa egingo dute, 19:00etan, auzo-etxean, eta auzo bazkaria bihar. 30 kilometroko mendi bizikleta irteera ere antolatu dute; zapatuan, 09:00etan, auzo-etxetik abiatuta.

Gary Bañosen omenezkoa izango da biharko lasterketa

Mikel Deuna saria jokatu dute bihar, zapatua, gazte mailako txirrindulariek. 10:00etan abiatuko dira, Unibertsitate etorbideetik, eta hantxe izango da helmuga ere. Aloña Mendik bederatzi txirrindulari ditu kategorian honetan, eta abiapuntu izango dira. Gary Bañosen omenezkoa izango da, bigarren urtez.

San Migel pilota txapelketako final laurdenetako azkenak

Aurrez ondo lotutako egutegia jarraituz, bihar, hilak 10, jokatu dituzte final laurdenetako azken jardunaldiak; lau izan dira, guztira. Eguenekoan, atzo, Peru Etxegarai oñatiarrak jokatu zuen gazte mailan. Final laurdenak jokatu, finalerdiak izango dira hurrengo: irailaren 15ean eta 22n. Finala, berriz, urriaren 2an izango da.



Martin Zalakain ikuskizuna Arrasateko Amaia antzokian, 2019ko ekainean. GOIENA

Zalakainen abenturak ikusiko dira Oñatin

Pio Barojak idatzitako 'Zalakain abenturazalea' eleberriko mutikoaren abenturak dantzaren eta musikaren bitartez kontatzen ditu Juan Antonio Urbeltz-ek 'Martin Zalakain' izeneko lan honetan. 120 lagunek hartuko dute parte, dantzariak asko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Dantza, musika, antzerkia eta literatura uztartzen dituen ikuskizuna taularatuko dute hilaren 17an Zubikoako pilotalekuan: *Martin Zalakain*. Argia dantzari taldearen eta Artedrama arte eszenikoen plataformaren zuzendaritzapean sortu zen ikuskizuna, eta Pio Barojak 1908. urtean idatzitako *Zalacain el aventurero* eleberriaren protagonista den Martin Zalakain mitikoaren abenturak kontatzen ditu.

Azken hiru emanaldiak
2017an estreinatu zuten, hainbat hilabetez prestatzen ibili ondoren. Pandemiak oraindik egiteke zituzten zortzi emanaldi bertan behera utzi zituen eta 2021eko abenduan ekin zioten falta zituztenak egiteari. Azken hiru ikuskizunak dituzte soilik egiteko: Oñatikoa datorren astean, Deban urriaren hasieran eta Donostian, azkena, urriaren 23an.

Guztira, 120 bat lagun izango dira Zubikoan; horietatik hemezortzi musikariak eta gehienak dantzariak, Euskal Herriko hainbat tokitakoak, ekialdetik mendebaleraino: Iruñekoak, Donostiakoak, Elgoibarkoak eta Portugaletekoak, tartean. "Metala, perkusioa, txistua... entzuten dira, baina hari-instrumentuek izugarrizko indarra dute. Ikaragarria da biolinaren doinuak, adibidez, transmititzen duena", dio talde arduradun lanetan ibili den Iñaki Arregik.

Dantza, musika eta antzerkia
Pio Barojaren eleberriari Juan Antonio Urbeltzek egindako interpretazioa da obra hau. Dantzako piezen bidez ikusten dira

IRAILAREN 17AN IZANGO DA, KIROLDEGIAN, ETA SARRERAK SALGAI DAUDE, 10,5 EUROTAN


orduko ezkontzak, gerrak eta maitasun istorioak. Dantzarekin batera musika da espresibide nagusia, baina karga dramatikoak ere badu ikuskizunak. Horretarako, antzerki tratamendu handiagoa eman gura izan diote lanari. Ander Lipus hartu zuten eszena zuzendari izateko eta Harkaitz Canori eskatu zion hark gidoia egiteko.

Emozioa duen obra
Obra emozioa daramala dio Arregik, eta hori ikuslearengana iritsiko dela: "Herri proiektu bat da eta horretaz ere konturatuko da ikuslea. Pozik bizi dute obra parte hartzen dutenek eta lortzen dute poz hori jendearengana heltzea. Dantzarako gogoz atera da jende asko aurreko ikuskizunetatik".

Irailaren 17an izango da Urbeltzen *Martin Zalakain* ikuskizuna Zubikoa kiroldegian, 19:30ean. Sarrerak udal webgunean eta Txokolateixan eros daitezke, 10,5 eurotan.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



18. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 19ra arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07).
Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.




Kretako hondartza zoragarriek | Argazkia: Nerea Zugasti Iñarra (Arrasate)



Donostia | Argazkia: Sandra Melero Cabezas (Antzuola)



Dolomitak, Italia | Argazkia: Mirari Urdapilleta (Eskoriatza)



Oporretan | Argazkia: Alaitz Jauregi (Antzuola)



Esne Bidea Rinlo gainean | Argazkia: Mikel Lasa Murguizu (Bergara)



Garai zaharrak berreskuratzen | Argazkia: Aitor Kerexeta (Arrasate)



Mallorca | Argazkia: Maider Igartua (Oñati)



Lurgorri | Argazkia: Erik Garcia Altuna (Aramaio)



Islandia | Argazkia: Nuria Agirre Unzueta (Aretxabaleta)



3.000en ibilbidea Pirinioetan | Argazkia: Eñaut Uriarte (Bergara)



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/uda-koargazkiak-2022>



Aretxabaletako eta Aloña Mendiko jokalariek lehia, aurreko denboraldiko Ibarako derbian. IMANOL SORIANO

Denboraldia hasteko, derbia

FUTBOLA Asteburuan hasiko da liga Ohorezko Erregional mailan, Aretxabaleta, Mondra, Bergara eta Aloñarekin. Aretxabaletarrek eta oñatiarrek elkarren kontra ekingo diote lehiari; Mondrak Lagun Onak hartuko du etxean eta Bergarak Zarautzen jokatuko du

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Sei baja izan ditu Aretxabaletak, eta kanpotik etorritako lau jokalarirekin eta herrikoekin ordezkatu dituzte. "Bizpahiru gazterekin ere ibili gara denboraldiaurrean, eta maila ona eman dute", dio Unai Calzon entrenatzaileak. Lagunartekoetako jokarekin "gustura" agertu da.

Denboraldi hasierak beti zailak direla dio, baina aurtengoa bereziki izango dela, bi derbi izango dituzte-eta lehen hiru jardunaldietan –Aloñarekin, domekan, 16:30ean, Ibarra–: "Neurketa bereziak dira, eta edozein aldetara eror daitezke".

Aloñaren hasiera ere "nahi baino gogorragoa" da, Garikoitz Nuñez entrenatzailearen esanetan: Hernani, etxean –Antzuolan jokatuko dute–, eta Hirugarren Mailatik datorren Beti Gazte gero, Aretxabaletarekin estre-

natu ondoren: "Aretxabaleta beti dago gora begira, baina ezin da baztertu hara joan eta irabaztea".

Nuñezentzat lehen urtea da talde nagusiarekin –baina bi egin ditu bigarrenarekin; kategoriaren berri ere badu–, eta aldagelan ere izan dira aldaketak. Bost jokalarik utzi dute, eta gazte mailakoak iritsi dira: "Oso oso gustura nago eurekin". Denboraldiaurreko lanarekin ere pozik dago legazpiarra.

Mondrak Lagun Onaken kontra hasiko du liga –bihar, zapatua, 16:30ean–. Azpeitiarren bigarren taldea da, gorengo

MONDRAK IZAN EZIK, DENEK IZANGO DUTE BELAR BERRIA; ARTIFIZIALA IZANGO DA BERGARAN ERE

mailatik igo berria, baina arriskutsua, arrasatearren entrenatzaile Cristian Matiasen arabera, hainbat jokalaririk Hirugarren Mailakoekin entrenatzen direlako: "Oso talde fisikoa da".

Denboraldira begira dio jokalaririk gakoak galdu dituztela, eta nahi izan arren ezin izan dutela fitxaketarik egin –atezain bat ekarriko dute–: "Etxekoekin egin beharko dugu aurrera".

Bergarak Zarautzen hasiko du liga, zelai zailean –paretsu amaitu zuten aurreko sasoi–. "Abuztu hasieratik ari dira entrenatzen", dio Iker Ruiz de Larramendik. Bi derbi gero: Mondra, etxean –non jokatuko den ez dago zehaztuta–, eta UDA.

26 urteko entrenatzaile berria –etxeko lehena, hamabi urtean– gustura dago denboraldiaurrearekin, eta "ahalik eta goren" geratzen saiatuko direla dio.

Nola ekingo diozue Ohorezko Erregionaleko denboraldiari?



UNAI CALZON
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Ilusio eta gogo handiz gaude, betiko moduan, lehia hasteko, hori da-eta gustatzen zaiguna. Aurreko denboraldia oso ona izan zen, eta aurtengo helburua iazko maila hobetzea izango da. Talde oso gaztea daukagu, iaz bezala; aurreko denboraldian ikusi gura genuen noraino iritsi gitezkeen, eta lau puntu baino ez zizkigun atera bigarrenak. Zaila izango da neurri horretara iristea, baina hori izango da gure asmoa. Osatu dugun jokalaririk multzoaren maila iazkoaren antzerakoa dela esango nuke".



IKER RUIZ DE LARRAMENDI
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Entrenatzaile berria naiz, baina bigarren taldean eta gazte mailakoan ibilia, eta horrek erraztu egiten du; jokalaririk hauekin aritutakoa naiz, jokatu ere egin dut batzuekin, eta nire ideia ezagutzen dute. Iaztik baja batzuk egon dira, eta kanpotik etorritako hiru lagunekin eta bigarren taldekoekin ordezkatu ditugu. Zelaia ere, berria, belar artifiziala, baina uste dut gure jokorako aproposa izango dela. Iazko bigarren itzuli onari jarraipena eman nahi diogu, nahiz eta aldaketek denbora behar izan".



CRISTIAN MATIAS
MONDRAKO ENTRENATZAILEA

"Aurtengo urtea zaila izango da, aurrekoa baino zailagoa: taldeek ezagutu egiten gaituzte dagoeneko, eta erronka handiagoa dugu aurreko sasoiak kasualitatea izan ote zen edo talde ona genuelako izan zen erakusten. Nik uste dut bigarrena dela. Kostaldeko taldeekiko desabantailarekin hasiko dugu liga, eurek askoz lehenago ekiten baitiote denboraldiaurreari; lehen partiduak gure antzerako egoeran dauden taldeekin jokatuko ditugu –Bergara da hurrengo aurkaria–, eta gaitz erdi".



GARIKOITZ NUÑEZ
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

"Taldekoko gehiengoak urtetxo batzuk badaramatza kategorian, ezagutzen dute, ez dira berriak. Lasaitasuna ematen du horrek, eta, momentuz, gustura nago; gero ikusiko dugu denboraldiak non jartzen gaituen. Gure helburua, herriko jokalariekin jokatzen dugun taldea izanda, mailari eustea izango da; eta, ahal bada, lasaitasun puntu batekin. Aurreko sasoiaren partidu bakarra irabazi zen kanpoan, apiril bukaeran-edo, eta horrela ez da erraza, nahiz eta azkenean helburua lortu. Ea lasaia igo gaituzkeen".

Azken bi txapeldunak aurrez aurre Aramaion

AUTOMOBILISMOA Iazko lasterketako irabazle Mattin Villares eta 2020an txapela jantzi zuen Gorka Idigoras irteera puntuan izango dira bihar. Eta eurekin batera beste 40 pilotutik gora lehiatuko dira bi noranzkotan jokatu duten lasterketan (12:00)

Xabier Urzelai ARAMAIO Nobedadeekin dator Aramaio Rallysprintaren 21. edizioa. Eta nabarmenena da, uztailean Eskoriatzako rallysprintean egin zuten moduan, lasterketa bi noranzkotan egingo dutela. "Aramaio Rallysprinteko hastapenetan ere halaxe egiten zuten, eta formatu horretara itzuliko gara. Alegia, goizeko lehenengo bi txandetan pilotuek Ibarrik Uribarrirako bidea hartuko dute, eta eguerdian bazkaltzeko tarte bat hartu eta gero, arratsaldeko bi txandak kontrako noranzkoan izango dira; hau da, pilotuek Ibarrik Gantzagarako bidea hartuko dute. Horrela, neurri batean, indarrak parekatu egiten dira, noranzko batean azkar igotzen dutenek abantaila daukatalako, baina hurrengo bietan jaisten azkarrak direnek aurre har dezaketelako", adierazi du antolaketa taldeko kide Eneko Uribek.

Hain zuzen, horregatik, lasterketa beste urte batzuetan

baino goizago hasiko da, 12:00etan: "Esango nuke pilotuek gustura hartu dutela erabakia; izan ere, azken batean, txanda bat gehitu dugu, eta horrek esan nahi du kilometro gehiago egin ahal izango dituztela".

Partaide gehiago

Iaz, ohi baino parte-hartze txikiagoa izan zuen lasterketak -35 auto batu ziren irteera puntuan-, eta zapatuko lasterketarako, berriz, aste barruan 43 pilotuk emana zuten izena. Gainera, antolatzaileek lehia politikak aurreikusten dituzte. Maila nagusian, esaterako, azken bi urteotako txapeldun Gorka Idigoras (Renault Clio) eta Mattin Villares (BMW Com-

LASTERKETA GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ EGINGO DUTE, ETA LAU TXANDA IZANGO DIRA, GUZTIRA

pact) izango dira aurrez aurre. Egia da azken urteotan izan dituzten lehia estuak auto berdinarekin izan dituztela, Clio autoarekin, eta ikusteko dago BMWrekin Villares zelan mol datzen den. Eguneko denbora onena egiteko borrokan ibiliko dira bi horiek, baina kategoria txikiagoetan ere saltsa polita egongo da: "Adibidez, debagoien-darren artean lehia politik izango dira. Esaterako, Aimar Arriolabengoa eta Xabi Jauregi, batetik, eta Unai Jurado eta Asier Rioja, bestetik, aurrez aurre izango dira. Citroen AX bana dute horiek, eta ikusteko dago indarrak parean egonda nor den azkarrena".

Zati batzuetan, gainera, asfaltoa konpondu egin dute. Berez, albiste ona da, nahiz eta badagoen irakurketa gehiago: "Halakoetan, eta eguraldi onarekin, pilotuek gehiago estutzen dituzte autoak, eta ez da jakiten zer den komenigarriena, kolpeak ere handiagoak izan daitezke eta".




Gorka Idigoras eta Raul Perez, iazko lasterketan, Aramaion. GOIENA

Ikazkin Traileko lehen edizioak 126 korrikalari batuko ditu

MENDI LASTERKETA Bihar, zapatua, 10:00etan hasiko dute lasterketa, Aretxabaletako Durana kalean

X.U. ARETXABALETA

UDA kirol elkarteko lagunek dena dute gertu biharko Ikazkin Traileko lehen ediziorako. Durana kalean batuko dira 126 mendi lasterkari, eta antolaketan lanetan ere kuadrilla polita izango da. Hala, parte-hartze kopuruarekin pozik, antolatzaileek nabarmendu dute herri mailako lasterkariak bai, baina maila politekoak ere izango direla lasterketan. Esaterako, euskal selekzioko ordezkari Ainara Urrutiak eta Igor Olalde ez dute etxeko lehen lasterketan kalerik egin nahi izan.



Abasolo irudian. IKAZKIN TRAIL

Helmuga, 12:00ak aurretik

21 kilometroko lasterketa egiteko azkarrenak ez dira bi ordura iritsiko, eta 12:00ak aurretik Duranako helmugan izango dira, gutxi gorabehera. Gainera, Arientzako jaiak izanda, auzotarren

ekimena izan da auzotik pasatzen den 32. korrikalaria saritzea: "Auzoan 31 bizilagun dira, eta 32.a sarituko dute. Bertako produktuz osatutako otarre ederra prestatu dute. Hori bai, lasterketa amaitu behar da", adierazi du antolatzaile Julen Ezeizak.

SASKIBALOIJA Julen Berrocal da MUKO entrenatzaile berria

MUK Julen Berrocal entrenatzaile durangarra fitxatu du EBA mailako taldea zuzentzeko; Eneko Mata ordezkatu du. Izan ere, Ointxe! klubak eta Eneko Matak elkarrekin adostu dute egungo lan-zikloa ixtea. Hala, Ointxe!-k "eskerrak" eman dizkio Matari egindako lan guztiagatik, eta "arrakasta handia" opa dio etorkizun hurbilean.



Julen Berrocal. 'BIZKAIABASKET.COM'

ESKALADA Debagoiena eskolak ikastaroak emango ditu Ibarrik

Debagoiena eskalada eskolak ikastaroak eskainiko ditu Aretxabaletako rokodromoan. Kurtsoa urrian hasiko dute eta ekainean amaitu. Informazio gehiago, Ibarrik kiroldegian egun hauetan: iaz ikastaroan egon zirenak irailaren 13an -18:00etatik 20:00etara- eta lehenengo joango direnak irailaren 14an eta 15ean -18:00-20:00-.

TRIATLOIA Joseba Azkaratek lehen triatloia egingo du

Tetraplegia duen Joseba Azkaratek Zumaiako triatloia egingo du bihar, zapatua. Oñatiarrak 15:00etan hasiko du lasterketa eta 750 metro egin beharko ditu igeri, 20 kilometro bizikletan eta beste bost korrika egiteko aulkian. Azkaratek Antxintxikakoen babesaren izango du eta Goienak bertatik bertara jarraituko du proba.

"Sekulako oparia izan da 'Hazia' niretzako"

ARKAITZ GARTZIANDIA AKTOREA

Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartek eta Gontzal Mendibil musikariak sortu duten 'Hazia' musikala estreinatuko dute irailaren 17an, 20:00etan, Amaia antzokian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Hamaika musikari, sei kantari eta hamasei antzezle izango dira Mondragoneko kooperatiba sortzaileari buruzko ikuskizunean; horien artean dago Arizmendiarrietaren papera egingo duen Arkaitz Gartzandia.

Estreinaldirako dena prest?

Prozesua nahiko luzea izan da, normalean izaten denerako. Facebooken bidez jaso nuen Gontzalen [Mendibil] proposamena abendu bukaeran, eta otsailean hasi ginen lanean. Harrezkero, prozesu oso interesgarria izan da; aktoreok, orokorrean, korrika eta presaka egiten dugu lan, eta, kasu honetan, denbora luzez ari gara lanean eta pertsonaia barneratzen joateko aukera oso polita ari zait *Hazia* eskaintzen. **Zer da zuretzako Arizmendiarrietaren?** Gure gizarteak lehiakortasun eta individualismora bultzatzen gaituela esango nuke eta Arizmendiarrietaren mezuak ez dira horrelakoak, kontrakoak baizik. Indibiduoak eduki dezakeen ideia batetik abiatuta bai, baina hark esaten zuen moduan: "Izan, egin eta partekatuta". Hiruko hori jarraituz, izatea eta norzaren jakitea oso garrantzitsua dela helarazi nahi zuela uste dut, eta baita ideia horiek praktikan jarri behar direla ere.



Arkaitz Gartzandia, Jose Maria Arizmendiarrietaren paperean. JON IRIZAR

Sekulako eredua da niretzako Arizmendiarrietaren, eta asko ari naiz ikasten pertsonaia honekin, uste dut nire garapenerako kristoren *coach*-a dudala.

Zelan landu duzu pertsonaia?

Biografiak eta bestelako gogoeak irakurtzen sekulako lana egin du Gontzalek, eta testu oso ona sortu du; niretzako oso lagungarria izan dena. Eta bestetik, Jesus Mari Arizmendiarrietak, Jose Mariaren lobak, kristoren opari polita egin zidan: Fernando Molinak idatzitako *Jose Maria Arizmendiarrietaren*

biografia, batetik, eta *On Jose Maria Arizmendiarrietaren. Bere gogoetak* izenekoa, bestetik, eta material asko dago horietan. Apenas dago haren gaineko ikus-entzunezkoak, baina Gontzalek aurkitu dituen argazkiak eta audioak ere oso lagungarriak izan dira pertsonaia osatzeko. Argazkietan ikusi dudana haren begiradak asko esaten dit; pertsona jakintsu baten begirada garbia daukala iruditzen zait, eta haren irribarrea ere oso esanguratsua. Aktoreok animalia bat aukeratzeko dugu pertso-

naia bat lantzeko, eta, oraingoan, indioilar moduan irudikatzen dut, atrakzio handia duen hegaztia, hark nahi duenean edertasun hori erakusten duena.

Lanketa hori egin eta gero, errespetu berezia sortzen dizu pertsonaia ezaguna eta erreala antzezteak?

Egia esan, bai; haren familiak ikusiko du ikuskizuna eta jende askok ezagutzen zuen. Bestetik, aktorearen lana aktorearena da, eta publikoa, gainera, aktoreak bere burua ere errespetatu behar du eta kontuz ibili behar da gaizki egitearen beldurrik ez sartzeko. Egia da uztailean egin genuen entsegura Arizmendiarrietaren loba etorri zela eta zoriondu egin ninduela nire lanagatik, eta horrek sekulako konfiantza eman zidan.

Lantalde zabala dago, eta Gontzal Mendibil da gidari nagusia.

Niretzat zoragarria da, sekulako pribilegioa daukat Mendibil ezagutzeagatik. Pertsona moduan maitagarria da, aktore moduan ere konfiantza handia ematen dit. Lantaldea ere bikaina da, Aritz Salamankak gidatutako dantzarien lana ere aparta eta musikariak ere ikaragarriak dira. Abesbatza bat atzean izateak indarra ematen dit, eta baita lana asko erraztu ere. Opari bat da hemen egotea.

Mendibilek azpimarratu du proposamen laikoa eta modernoa dela. Gomendatuko zenuke?

Bai; ez da helduentzako proiektua bakarrik. Lantalde gaztea osatu du Gontzalek, eta Arizmendiarrietak adierazten zuen mezuak gaurkotatzen handia du, eta musika ere oso interesgarria. **Hamabi aktore zaudete taularen gainean. Aldez aurretik ezagunak?** Madrilen bizi diren etorkizuneko aktore handiak dira denak; horien artean daude *Goa!zen*

telesailen ibilitakoak, eta publiko gaztearentzat erakargarria izan daiteke hori.

Telebistan eta zinemagintzan ere ibilitakoa zara. Antzokiak nahiago?

Antzokietan izugarri gozaten dut, baina zinemagintzan eta telebistan ere oso gustura jarduten dut. *Maixabel* (Iciar Bollain) filmean parte hartzea sekulako oparia izan zen, eta ezin ahaztu nire lehenengo telesaila izan zen *Goenkale*, lan-kide izan nuen Kepa Errastirekin izugarri ikasi nuen.

Amaian antzokian bi emanaldi egingo dituzue, zapatuan eta domekan, eta ondoren non izango zarete?

Urriaren 1ean Arriaga antzokian; Iruñeko Baluarte aretoan urriaren 29an; Donostian, Kursalen, azaroaren 25ean; Gasteizen abenduaren 15ean; eta Beasainen abenduaren 23an.

Aktore taldea

Taularen gainean honako aktore eta abeslari hauek izango dira Jose Maria Arizmendiarrietaren eta haren gertuko paperean: Gontzal Mendibil, Arkaitz Gartzandia, Ainhoa Tabuyo, Diana Irazabal, Txomin Maidagan, Begoña Rodríguez, Maddi Otamendi, Benito Patzeko, Samuel Gibert, Alberto Mendigutxia, Aritz Salamanca, Antton Fernandez, Alfonso Diez, Adriano Herreros, Udara Zubillaga, Eneko Asiain, Xanti Korkostegi, Oier Zapiain, Ander Lacalle eta Ander Ayerza.

ANDRAMAIXAK

GOIENA TELEBISTA, 'JAIK' SAIOA LEINTZ GATZAGATIK
MARTITZENEAN, IRAILAREN 13AN, 21:30EAN ETA 23:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Gisell magoa. ARETXABALETAKO UDALA



David Blanco magoa. A.U.



Asier Kidam magoa. A.U.

Publiko zabalarentzako magia saioak gozagarri

Asier Kidam, Gisell eta David Blanco magoen eskutik ikuskizunak eta tailerrak izango dira hilaren 14tik 17ra bitartean; emanaldi batzuk kalean doan izango dira eta hiru euroko sarrera ordaindu beharko da Arkupe kultura etxeko Zaraia aretokoetarako

A. Aranburuzabala ARETXABALETA
Magiari tokia egingo dio, beste behin, Aretxabaletako Udalak, hilaren 14an abiatuko duten Magia Astea izeneko egitarauaren baitan. "Publiko zabalarentzako askotariko ekintzak antolatutitu; ikuskizunak eta haurrentzako magia tailerrak, horien artean. Bi tailer izango dira: 7 eta 10 urte bitartekoei zuzendutakoa da bat eta 10 urtetik gorakoendako bigarrena", azaldu du Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

Hiru mago gonbidatuta
Gasteizen jaiotako Asier Kidam magoa 10 urte zituela hasi zen magiarekin jolasten eta gaur

egun bizibide eta pasio du magia. Bartzelonan bizi den Gisell mago peruteraren performan- ceekin gozatzeko aukera ere izango da datorren astean, eta baita Londreseko Magic Circle magia klubeko kide David Blanco ilusionistaren lanak bertatik bertara ikusteko aukera ere.

Hiru mago horien trikimailuak GSR zaharren egoitzan eskainiko dituzte, hasteko, eta kalean eta Arkupe kultura etxean izango dira saio gehiago. "Arkupeko Zaraia aretoan izango diren emanaldietarako sarrerak hiru eurotan izango dira, eta leihaitan zein *Aretxabaleta.eus* dau- de eskuragarri".

Egitaraua

Irailak 14, eguaztena
• 17:00 Hiru magoen saioa zaharren egoitzan.
• 19:00 Magia poteoa.

Irailak 15, eguena
• 18:30 Gisell, Arkupe.

Irailak 16, egubakoitza
• 15:00 Magia tailerra.
• 16:15 Magia tailerra.
• 19:00 Kidam, Arkupe.

Irailak 17, zapatua
• 18:30 David Blanco, Herriko Plazan.

toreen arteko adiskidetasuna erakusten dutenak, hain zuzen ere", azaldu dute antolatzaileek.

Inaugurazioa, gaur, 12:00etan
Omendutako margolarien familiakoak, Bergarako eta Arrasateko Kultura zinegotziak eta Beart eta JGPLE elkarteetako kideak izango dira gaur, egubakoitza, 12:00etan egingo duten inaugurazio ekitaldian. "Ekitaldia guztiontzako zabalik dago, eta katalogoak eskuragarri izango dira aretoan".

Julio Galartaren eta Miguel Okinaren margolanak Aroztegin

Gaur hasi eta irailaren 25era bitartean izango da 'Julio Galarta, Miguel Okina. Bi adiskide' izeneko erakusketa

A. Aranburuzabala BERGARA
Eskualdeko margolari erreferenteak izan diren Arrasateko Julio Galartaren eta Bergarako Miguel Okinaren hamazortzina koadro aukeratu dituzte Julio Galarta Pintorearen Lagunak

Elkarteak Beart elkartearekin elkarlanean prestatu duten erakusketarako. "Gehiago genituen aukeratuta, baina aretoan, azkenean, horiek erakutsiko ditugu. Horrez gainera, argazkiak ere izango dira ikusgai, bi pin-


Goienakideen txokoa

IRAILEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua

'Kobo clara' e-book-a

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LPD 15/1999 legearen arabera jakingarritasun dugu eta goiena.eus komunikazio zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten bidezko dirua. Data biletatzen horien helburu bakarra da indarrez dagoen zerbitzuaren gestioa. Eskubide eragozdu dituzten artetik, baki zuzentzeko edozein zuzentze helburu haren bidez. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arizmendiarrietaren Lagunen Elkarteari esker

'Hazio' musikaleko bi emanaldietarako sarrerak ditugu

Arrasate | Amaia Antzokia | Irailak 17 | 20:00

Arrasate | Amaia Antzokia | Irailak 18 | 19:00

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "Hitza 17" edo

"Hitza 18" - [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Indarrez dagoen LPD 15/1999 legearen arabera jakingarritasun dugu eta goiena.eus komunikazio zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten bidezko dirua. Data biletatzen horien helburu bakarra da indarrez dagoen zerbitzuaren gestioa. Eskubide eragozdu dituzten artetik, baki zuzentzeko edozein zuzentze helburu haren bidez. goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: irailak 13.

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📍 GOIENAKIDE Jateketa [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 30 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU Bergara. Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaleta. Etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Bi edo hiru logelakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 612 54 69 93

Arrasate. Etxeak, etxe-atariak edo bestelako lokalak garbituko nituzke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 68 40 89

Arrasate. Esperientzia handia duen emakumea egunean zehar zaintza lanak egiteko gertu. Jaur-laritzako agiriak eta soziosanitario ikasketak dauzkat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 12 85 30

Bergara. Emakumea prest garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 747 40 55 91

Bergara. Magisteritza ikasten dabilen neska euskalduna, arratsalde

umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 42 27 02

Bergara. Neska gertu orduka pertsona nagusiak zaintzeko. 602 34 68 69

Debagoiena. Asteburutan nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Paziatzera ateratzeko gertu. 642499409

Debagoiena. Asteburuetan orduka zaintza lanetan jardun nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 13 02 16

Debagoiena. Astelehenerdik ostiralera arratsaldetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 600 00 51 60

Debagoiena. Emakume arduratsua orduka edo etxean bertan bizi izaten pertsona nagusiak zaintzeko prest. Soziosanitario titulua daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 25 26 67

Debagoiena. Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziaduna eta erreferentziak dituen. Titulu sozio-sanitario. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

Debagoiena. Emakumea gertu tabernako zerbitzari bezala, nagusiak zein haurrak zaintzen edo garbiketan jarduteko. Astelehenerdik ostaldueretan. 613 22 70 86 (Karen)

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanak egin edota pertsona nagusiak zaintzeko. 631 54 60 99

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanak egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 611 24 18 98

Debagoiena. Emakumezkoa prest astean zehar edota asteburuetan nagusiak eta haurrak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo taberna batean zerbitzari bezala aritzeko. 624 066 921 (Jeny)

Debagoiena. Esperientzia handia duen mutila nagusiak zaintzeko gertu. Legezko agiri guztiak eta erreferentzia onak aurkez ditzaket. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 662 43 08 54

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten pertsona nagusien zaintzan lan egin nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 58 78 57

Debagoiena. Garbiketa edo zaintza lanetan jarduteko prest nago. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 635 87 82 18

Debagoiena. Garbiketa eta zaintza lanak egiteko gertu nago, baita orduka ere. 657 59 57 65 (Maria)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen esperientzia duen neska lan bila. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan. Lanerako egiaztagiria daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 39 64 98

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Goizez, gauez eta asteburuetan. Ospitalean gauak ere pasatuko nituzke. Legezko agiriak ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan, obratan. Lan egin nahi dut; kotxea daukat. 645 72 92 87

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta orduka pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 634 85 66 51

Debagoiena. Zaintza lanak egingo nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 34 11 68

Elgeta. Emakume arduratsua naiz eta lan egin nahi dut garbiketarako, pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 617 18 49 30

Etxeak garbitzeko prest. Arrasateko emakume euskalduna, eguerdi/atsaldetan etxeak garbitzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 653 71 64 79

Garraiolari lanak. Esperientzia duen mutila, autonomia, garraio lanetan jarduteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 616 82 83 20

Goizetan haurrak zaintzeko prest. Bergaran bizi den 23 urteko neska bat naiz eta ikasturtean zehar goizetan haurrak zaintzeko prest nago. Lehen Hezkuntzako gradua daukat eta Haur Hezkuntzako gradua amaitzen ari naiz. Ordu-tegi malguta daukat. Deitu 688 84 99 79 edo 610 49 43 48 telefono zenbakietara.

Haurrak zaintzeko prest. Bergaran bizi naizen emakume gazte bat naiz eta haurrak zaintzeko prest nago eguerdian. 644 52 94 92

Oñati eta inguruko herriak. Emakumea gertu orduka, asteburu edo astean zehar, zein gauean zaintza lanak egiteko. Erizaintza ikasketak, medikuntza eta psikiatria titulua ditut. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 943 78 06 76

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak opari. Katakumeak ematen dira opari. 620 13 83 86

8. DENETARIK

805. TRUKATU

